



Iturria: *Bonaparte Ondareko Eskuizkribuak*, (Rosa Miren Pagola eta taldearen edizioa).
CD-ROMa, Bilduma osoaren edizio digitala.
Deustuko Ubibertsitatea / Eusko Jaurlaritza, 2004.

Klasikoen Gordailuan:
<http://klasikoak.armiarma.com/idazlanak/I/IntxauspeElhestaldiak.htm>

BESTE ZENBAIT ITZULPEN

Emanuel Intxauspe

Klasikoen Gordailuak egindako lanak oro dominio publikokoak dira, eta, Jabego Intelektualaren Legearen arabera jatorrizko idazlanak bestelako eskubiderik ez baleuka, nahi bezala erreproduzi daitezke.

JAUNDONE JOHANE APOSTOLIAREN APOKALIPSA

LEHEN KAPITÜLIA

1. Jesü-Kristen Apokalipsa Jinkoak eman deiona, laster heltü behar direnen agertzeko bere zerbützarier; eta ezagüterazi diana, igorririk bere aingüriaz bere zerbütxari Johaneri.

2. Zoñek jakilegoa ekharri beitu Jinkoaren hitzari, eta Jesü-Kristen jakilegoa, ikhusi dütian orori.

3. Dohaxü profezia huntako hitzak irakurten eta entzüten dütian, eta huntan izkiribatürik direnak begirutzen dütian, ezi denbora hüllan da.

4. Johanek Asian diren zazpi Elizer. Grazia zier eta bakia Denaganik, Zenaganik eta jinen denaganik; eta haren jargiaren aitzinian diren zazpi izpiritienganik.

5. Eta Jesü-Kristganik, zoñ beita jakile leiala, hiletarik lehen sorthia eta lürreko erregen gehiena; zoñek maithatü beikütü eta xahatü beikütü gure bekhatietarik bere odolian.

6. Eta egin gütü Jinkoaren eta bere Aitaren erresuma eta aphez; hari gloria eta bürüzagügoa menten mentetan. Halabiz.

7. Huna non jiten den odeieki, eta ikhusiko die begi güziek eta hura zilatü dienek, eta bulharrak joko dütie haren ikhustian lürreko popülü güziek.

8. Ni niz alfa eta omega, haxarria eta ürhentzia, dio Jinko Jaunak, Denak eta Zenak eta jinen denak, Ahalorotakoak.

9. Ni Johane zien anayia eta lagüna eskernioan eta erresuman, eta igurztian Jesü-Kristetan, izan niz Pathmos deitzen den ühartian, Jinkoaren elhiagatik eta Jesüsen jakilegoagatik.

10. Izan nintzan gogoz eroanik igante egün batez, eta entzün nian ene gibelian mintzo azkar bat trunpetarena üdüri,



11. Zioana: Ikhusten düzüna izkiriba ezazü librü batetan; eta igor ezazü zazpi Elizer, zoñ beitera Asian, Efesan eta Smirnan eta Pergamen, eta Thiatiran eta Sardesen, eta Filadelfian eta Laodizian.

12. Eta ützüli nintzan mintzo zeitan botzaren ikhusteko, eta ützüli nintzanian ikhushi nian zazpi ürhezko khandeler.

13. Eta zazpi khandeleren erdian gizonaren Semia bezalako bat, saio lüze bat jaunxirik eta ürhezko gerriko batez thiti ondoetan tinkatürük.

14. Haren büria aldiz eta bilhoak xuri ziren ilhia bezala eta elhürra bezala, eta haren begiak sü garra bezalako ziren.

15. Eta haren hoñek üdüri zien leton xuria labe beroan, eta haren mintzoak üdüri zian hur handien heroxa.

16. Eta bazütian bere esküñeko eskian zazpi izar; eta haren ahotik espata bat bi aldetarik zorroztürük elkhiten zen, eta haren begithartiak argitzen zian ekhiak bere indarrian bezala.

17. Eta ikhushi nianian, erori nintzan haren hoñetara hilik bezala; eta ezari zian bere eskü esküña nitan gañen, zioalarik: E-tzitiala loxa, ni nüzü lehena eta azkena,

18. Bizi nizana, eta izan niz hilik; eta huna non bizi nizan menten mentetakoz; eta badütüt herioaren giltzak eta ifernükoak.

19. Izkiriba etzatzü arren ikhushi düütüzünak, eta direnak eta heltü behar dienak hoiendotik.

20. Huna ene eskü esküñian ikhushi düütüzün zazpi izarren misterioa eta zazpi khandelerena: zazpi izarrek dira zazpi Elizen aingüriak, eta zazpi khandelerak, zazpi Elizak dira.

BIGERREN KAPITÜLIA

1. Izkiriba izozü Efesako Elizaren Aingürinari: Horik diotza, edükiten dütianak zazpi izarrek bere eskü esküñian, eta zazpi ürhezko khandeleren erdian dabilanak:

2. Badakit zat zure egitatiak, eta zure nekia eta zintarzüna, eta ezin ditzaketzüla egar gaistoak; eta ikhertü düütüzüla apostolü direla errailiak, ez-tirelarik; eta gezürti ediren düütüzü.

3. Eta zintarzün badüzü eta igurtzi düzü ene izenagatik eta e-tzira ükhatü.

4. Bena erraiteko badizüt zure kontre, zure leheneko karitatia ützi düzüla.

5. Orhit zite arren nontik erori ziren, eta egizü penitentzia, eta egitzü zure leheneko obrak; ezi bestela, jiten nitzaizü ene elkhiko dizüt zure khandelera bere lekhütik, ez-padüzü penitentzia egiten.

6. Hau hatik badüzü, hastio beitätüzü Nikolaiten egitatiak, zoñ nik ere hastio beitätüt.

7. Beharri dianak entzün beza Espiritiak zer dioan Elizer: Goitzen dianari emanen düt jatera bizizko zühañetik, zoñ beita ene Jinkoaren pharadüsian.

8. Eta Esmirnako Elizaren aingürinari izkiriba ezazü: Horik diotza lehenak eta azkenak, hil izan denak eta bizi denak.

9. Badakit zure eskernioa eta zure gabezia, bena aberax zira; eta gaizki saldürük zira jüdio direla dioienez, eta ez-tira hala, bena bai Satanen bilzarrena.

10. Ez ükhen egartera zoazanen beldürrik, huna non debriak igorriko dütian zietarik zombait presontegialat tentatürük izateko, eta eskernio ükhenen düzie hamar egünez. Izan zite fidel hil artio eta emanen deizüt bizizko khoroa.

11. Dianak beharri entzün beza zer dioan Espiritiak Elizer: Goitzen diana ez-ta hunkirik izanen bigerren heriotziaz.

12. Eta Pergameko Elizaren Aingürinari izkiriba ezazü: Horik diotza dianak ezpata bi aldetarik zorroztia:

13. Badakit non zaudian, Satanen jargia den lekhian; eta edükiten düzü ene izena eta ez-tüzü ükhatü ene sinhestia. Ez eta egün haietan zoñtan Antipas ene aithorzale leiala hil izan beita zien artian, non beitago Satan.

14. Bena badizüt zure kontre zerbaitto, beitätüzü hor jarraikitzen direnak Balaamen erakaspinari, zoñek erakasten beitzian Balaki galbide emaiten Israeleko semer, sori e-tzeienaren janeraztez eta likhizkerian nahaseraztez.

15. Halahala badütüzü ere Nikolaiten erakaspinari jarraikitzen direnak.

16. Egizü arren penitentzia; bestela jinen nitzaizü bertan, eta güdükatüko niz haieki ene ahoko ezpatareki.

17. Dianak beharri entzün beza zer erraiten dian Espiritiak Elizer: Goitzen dianari emanen düt manna gordia, eta emanen deiot harri xuri bat, eta harrian izen berri bat izkiribatürük ihurk ez-takiana harzaliak baizik.

18. Eta Thiatirako Elizaren Aingürinari izkiriba ezazü: Horik diotza Jinkoaren Semiak zoñen begiak sü garraren antzoko beitera eta zankhoak letu xuria üdüri.

19. Ezagützen ditizüt züre egitatiak eta sinhestia, eta zure karitatia eta lanhegina, eta zure zintarzüna eta zure azkeneko egitatiak lehenak benoagoak.



20. Bena badizüt zure kontre zerbaitto, üzten beitzü Jezabel, emazte profeta dela berak dioan bat, erakastera eta ene zerbütixarien inganatzera, likhizkeriala hen bulkatzera, eta Jinko falxier ohereskatiatarik janezterera.

21. Eta aldarte eman deiot penitentzia egiteko, eta ez-ta nahi ürrikitan sarthü bere likhizkeriaz.

22. Haudela ezariko düt ohian, eta hareki nahasi direnak izanen dira eskernio handienian, ez-padie penitentzia egiten bere egitatez.

23. Haren haurrak ehoren dütüt, eta jakinen die Eliza güziek ni niza-la gerrien eta bihotzen ikherzalia; eta emanen düt zietarik bakhoitzari bere lan heginen arau. Zier aldiz dioziet,

24. Eta beste Thiatiren ziraiener: Erakaspen horri jarraikiten ez-tirenak oro, eta ezagützen ez-tütienak Satanen barnetarzünak, haiek dioien bezala, ez-tüt ezariko zietan gañen beste haxerik.

25. Alabena düziena etxek ezazie ni jin artio.

26. Eta goitzen dianari eta ene erezeko eginbidiak begirutzen dütiari, eskü emanen deiot popüliden gañen.

27. Eta erabiliren dütü bürdüñazko zaharoareki, eta lürrezko ontzi bat bezala izanen dira phorrokaturik.

28. Nihaurek ükhen düdan bezala ene Aitaganik, eta emanen deiot goiz-izarra.

29. Beharri dianak entzün beza zer dioan Espiritiak Elizer.

HIRURGERREN KAPITÜLIA

1. Eta Sardeseko Elizaren aingüriari izkiriba ezazü: Horik diotza dütianak Jinkoaren zazpi Izpiritiak eta zazpi izarrak: Badakitatzat zure egitatiak, badüzüla bizi zirelako izena eta hilik zirela.

2. Izan zite iratzarri, eta azkart etzatzü beste hiltzera zoatzanak. Ezi ez-titizüt edireiten zure eginbidiak betherik ene Jinkoaren aitzinian.

3. Gogoan arren har ezazü zer ükhen düzün eta entzün, eta begira ezazü, eta egin penitentzia. Ez-pazaude ordian iratzarririk, jinen nitzaizü ohoña bezala, eta ez-takikezü zer ordüz jinen nitzaizün.

4. Haregatik badütüzü izen bakhoitz batzü Sardesen, bere suñekoak theiütü ez-tütienak; eta ebiliko dira eneki xuriz althatürük, züzendün beitära.

5. Goitzen diana, hola izanen da xuriz althatürük, eta ez-tüt khentüko haren izena bizizko libürütik; eta aithortüren dü haren izena ene Aita-ren aitzinian eta haren aingüriden aitzinian.

6. Beharri dianak entzün beza zer erraiten dian Espiritiak Elizer.

7. Eta izkiriba ezazü Fidadelfiako Elizaren aingüriari: Horik diotza Saintiak eta Egatiak, Dabiten giltza dianak, zoñek idekiten beitä eta ihurk ez-tü zerrätzen, zoñek zerrätzen beitä eta ihurk ez-tü idekiten:

8. Badakitatzat zure egitatiak. Huna ezari deizüt aitzinian bortha idekirik, ihurk zerra ez-tezakena; indar güti düzülakoz, eta begiratü beitzü ene hitza, eta ez-peitüzü ene izena ükhatü.

9. Huna non emanen deitzüdan Satanen bilkhüratik, jüdio direla erraiten dien batzü, eta ez-tira hala, bena gezürra dioie; huna non jin eraziko dütüdan, eta güthüren dira zure hoiñetan eta jakinen dizie maite zütüdala.

10. Begiratü beitzü ene igurtzpeneko hitza, nik ere begirätüren zütüt borogüzko orenian, zoñ jitekoa beita mündü güziala, lürreko ekhoiliarren borogatzera.

11. Huna non jiten nizan berhala; etxek ezazü düzüna, ihurk har ez-tezan zure khoroa.

12. Goitzen dianaz eginen dü habe bat ene Jinkoaren tenploan, eta kanporat ez-ta elkhiren haboro; eta izkiribatüko dü hartan gañen ene Jinkoaren izena, eta ene Jinkoaren hiriaren izena, Jerüsalem berriarena, zoñ jaisten beita zelütik ene Jinkoaganik eta ene izen berria.

13. Dianak beharri entzün beza zer erraiten dian Espiritiak Elizer:

14. Laodiziako Elizaren aingüriari ere izkiriba ezazü: Horik diotza Egial, jakile leialak eta egjazkoak zoñ beita Jinkoak eginen haslia:

15. Badakitatzat zure egitatiak, e-tzirela ez hotz ez bero, aizina hotz edo bero!

16. Bena zirelakotz ephel, eta ez hotz eta ez bero, hasiko nüzü zure urthikitzen ene ahotik.

17. Erraiten beitzü: Aberax niz eta ditxatü, eta ihuren ez-tüt beharrik. Eta ez-takizü zirela orozbehar, eta desdixatü eta deusgabe, eta üxü eta bilaizi.

18. Aholkatzen zütüt eros dizadazün süian garbitü ürhia, aberast zitian, eta jaunx detzatzün suñeko xuriak, ager ez-tadin zure pikarraitarzünaren ahalkia; eta begihurez bereka etzatzü zure begiak ikhus dezazün.

19. Nik maite dütüdanak xüxentzen düüt eta zehatzen. Sühart zite arren, eta egizü penitentzia.

20. Huna nago borthan, eta joiten dü; norbaitek entzüten badü ene oihia eta idekiten badeit bortha, sarthüren niz haren ganat, eta aihaltüren niz hareki, eta hura eneki.



21. Goitzen diana jar-eraziko düt eneki ene tronoan, nik ere goithü dūdan bezala, eta jarri nizan bezala ene Aitareki haren tronoan.
22. Dianak beharri entzün beza zer dioan Espiritiak Elizer.

LAURGERREN KAPITÜLIA

1. Horien ondoan ikhusi nian, eta huna bortha bat idekirik zelian, eta lehenik entzün nian botzak, tronpeta bat bezala eni mintzatzen, erran zeitan: Igain zite huna, eta erakuxiren deitzüt haraitzina heltü behar dienak.
2. Eta hainsarri izan nintzan gogoz eroanik, eta huna jargia bat ezaririk zen zelian, eta jargian gañen jarria.
3. Eta jarririk zenak üdüri zian diamant nabarra eta gorria eta ozadar bat bazen jargiaren üngürían, üdüri beitzian diamant berdaxa:
4. Eta jargiaren üngürían hogeí eta laur jargia, eta tronoetan gañen hogeí eta laur zahar jarririk, saio xuriz üngüratürík, eta haien bürietan ürhezko khoroak.
5. Eta tronotik elkhiten zen iñhazi eta oihü eta ühülgü, eta bazen tronoaren aitzinian zazpi argi phiztürík, horik beítira Jinkoaren zazpi Izpiritiak.
6. Eta tronoaren eretzian bitrezko itxaso bat bezala kristala üdüri; eta jargiaren erdian, eta jargiaren üngürían, laur abere begiz betherik aitzinian eta gibelian.
7. Eta lehen aberia zen lehoa üdüri, eta bigerren aberia aretxia üdüri, eta hirurgerren aberiak bazian begitharte bat gizonarena üdüri, eta laurgerren aberiak üdüri zian hegaltaz doan arranoa.
8. Eta laur aberek bazien seia hegal; eta üngürían eta aldebarnian betherik ziren begiz; eta thaik hartü gabe gaiaz ez egünaz, erraiten zien: Saintü, saintü, saintü, Jauna Jinko ahalorotakoa, zoñ beitzen, eta zoñ beita, eta zoñ jinen beita.
9. Eta ari zirelarik abere hurak gloria eta ohore eta beneditzione emaiten jarririk zenari tronon gañen, bizi denari menten mentetan,
10. Ahozpez erorten ziren hogeí eta laur zaharrak tronoan jarririk zenaren aitzinian, eta egoisten zütien bere khoroak tronoaren aitziniala, zioelarik:
11. Züzendün zira, gure Jinko Jauna, ükheiteko gloria eta ohore eta berthüte; zeren zük egin beítütüzü oro, eta zure nahiz beitziren eta eginik beítira.

BOSTGERREN KAPITÜLIA

1. Eta ikhusi nian tronoan jarririk zenaren eskü esküñian, güthün bat barnetik eta kanpotik izkiribatürík eta zazpi kaxetez zerratürík.
2. Eta ikhusi nian aingürü azkar bat oihü egiten borthizki: Nor da haizü güthünaren zabaltzera eta kaxeten eraikitera?
3. Eta ihurk e-tzezakian, ez zelian, ez lürrian, ez lürpian, zabalt güthüna ez hura begista.
4. Eta ni nigar turrustaz nengoan, ihur e-tzelakoz haizü edireiten güthünaren zabaltzeco eta haren ikhusteko.
5. Eta zaharretarik batek erran zeitan: Ez-tezazüla egin nigarrík; huna irabazi dü Jüdaren gizeliko lehoak, Dabiten herroak, güthünaren zabaltzia eta zazpi kaxeten eraikitia.
6. Eta ikhusi nian, eta huna tronoaren eta laur aberen erdian, eta zaharren erdian, Axuri bat xüti ehorik bezala, beitzütian zazpi adar eta zazpi begi, zoñ beítira Jinkoaren zazpi izpiritü lür güziála igorriak.
7. Eta jin zen eta hartü zian güthüna tronoan jarririk zenaren eskü eskünetik.
8. Eta zabaltü zianian güthüna, laur aberiak eta hogeí eta laur zaharrak lüherrastü ziren Axuriaren aitzinian, zadüzkelarik bakhotxak harpa eta ürhezko fiola batzü ürrin honez betherik, horik beítira saintien othoiztiak (sic).
9. Eta khantatzen zien kantika berri bat, zioelarik: Haizü zira, Jauna, güthünaren hartzera eta haren kaxeten eraikitera, zeren erhorik izan beitzira, eta arrososi beikütüzü Jinkoarentako zure odolaz gizeli eta mintzaje, eta popülü eta nazione güziatarik.
10. Eta egin gütüzü gure Jinkoaren errege eta aphez, eta errege girate lürrian.
11. Eta ikhusi nian, eta entzün nian aingürü hanitxen botza tronoaren eta aberen eta zaharren üngürían, eta ziren mila miliuka,
12. Goratik oihüz zioienak: Züzendün da hilik izan den Axuria, ükheiteko berthüte eta Jinkotarzün eta zühürtarzün eta indar eta ohore eta gloria eta beneditzione.
13. Eta zelian, eta lürren gañen, eta lürpian diren güziak, eta itxasoan eta hartan barnen direnak, oro entzün nitian erraiten: Tronoan jarririk denari eta Axuriari beneditzione eta ohore eta gloria eta photere menten mentetan.
14. Eta laur aberek erraiten zien: Halabiz. Eta hogeí eta laur zaharrak ahozpez erori ziren, eta adoratü zien bizi dena menten mentetan.



SEIGERREN KAPITÜLIA

1. Eta ikhusi nian Axuriak ideki ziala zazpi kaxetarik bat, eta entzün nian laur aberetarik bat, erraiten, ühülgiaren botza bezalako bateki: Tziauri eta ikhus ezazü.

2. Eta ikhusi nian, eta huna zamari xuri bat, eta hartan gañen jarririk zenak, bazian balesta bat; eta eman zeioen khoroa bat, eta abiatü zen goitzale goitzera.

3. Eta ideki zianian bigerren kaxeta, entzün nian bigerren aberia, erraiten: Tziauri eta ikhus ezazü.

4. Eta elkhi zen beste zamari gorhail bat, eta hartan gañen jarririk zenari emanik izan zen bakiaren lürretik khentzia, eta alkharren erhoe-raztia; eta eman zeioen ezpata handi bat.

5. Eta ideki zianian hirurgerren kaxeta, entzün nian hirurgerren aberia erraiten: Tziauri eta ikhus ezazü. Eta huna zamari beltz bat, eta hartan gañen jarririk zenak bazian balantza bat bere eskian.

6. Eta entzün nian botz bat bezala laur aberen artetik, erraiten: Bi libera ogi dinerian, eta hirur libera garagar dinerian, eta ardua eta olio ez hunki.

7. Eta ideki zianian laurgerren kaxeta, entzün nian laurgerren aberia-rien mintzoa erraiten: Tziauri eta ikhus ezazü.

8. Eta huna zamari zurphail bat, eta hartan gañen jarririk zenak, izen zian Herioa, eta jarraikiten zeion ifernia; eta eskü emanik izan zeion lür-aren laur eretzetan, erhaiteko ezpataz, gosetiaz eta heriotziaz, eta lürreko saiez.

9. Eta ideki zianian bostgerren kaxeta, ikhusi nütian althariaren pian, Jinkoaren hitzagatik, eta ekharri zien jakilegoagatik erhorik izan zirenen arimak.

10. Eta oihüz ari ziren borthizki, zioelarik: Noiz artio, Jauna, saintia eta egiatia, ez-tüzü züzen egiten eta ez-tüzü goiherazten gure odola lürrian dauden hoietarik?

11. Eta emanik izan zeitzen saio xuriak, eta erranik izan zeien egürü-ki lezen orano aphür bat, bethe artio haien zerbütixari lagünen, eta hurak bezala erhorik izan behar zienen saldoa.

12. Eta ikhusi nian ideki zianian seigerren kaxeta, eta huna lühikhara handi bat izan zen, eta ekhia belztü zen bilhozko zakü bat bezala, eta argi-azia oro odola bezalakatü zen.

13. Eta izarrak zelütik erori ziren lürrialat, phikotziak ixurten dütian bezala bere phikoak, aize handi batek iharrausten dianian.

14. Eta zelia bildü zen güthün holla bat biribilkatzen den bezala; eta mendiak oro eta ühartiak bere günetarik zotükatü ziren.

15. Eta lürreko erregiak eta gehienak, eta armadetako aitzindariak eta aberaxak eta azkarrak, eta oro manüzpeko direnak eta jabiak, gorde ziren harziloetan eta mendietako botxietan.

16. Eta erraiten deie mendier eta botxier: Eror ziteie gütan gaña gorda gitzatzien tronoan jarririk denaren ikhusbidetik eta Axuriaren khe-xeriatik.

17. Zeren heltü beita haien khexiaren egün handia; eta nor dauke xütü?

ZAZPIGERREN KAPITÜLIA

1. Hoiendo ondoan ikhusi nian laur aingürü xütü lürrenen laur eretzetan lürreko laur aizen etxekiten, buha e-lezen lürrialat, ez itxasoalat, ez zühañ batetara ere.

2. Eta ikhusi nian beste aingürü bat igaiten ekhi-jalkhigiatik, zoñek beitzian Jinko biziaren zeñharia; eta oihü egin zeien borthizki laur aingür-ier, zoñi eskü emanik beitzen lürrenen eta itxasoaren zaflatzeko,

3. Zioelarik: Ez egin ogenik lürriari ez itxasoari ez eta zühañer, marka ditzagün artio gure Jinkoaren zerbütixariak bere belarretan.

4. Eta entzün nian markatien zombata, ehün eta berrogei eta laur mila markatürük Israelen semen gizeli orotarik.

5. Jüdaen gizelitik, hamabi mila markatürük; Rübönen gizelitik, hama-bi mila markatürük; Gaden gizelitik, hamabi mila markatürük;

6. Aseren gizelitik, hamabi mila markatürük; Neftalien gizelitik, hamabi mila markatürük; Manaseen gizelitik, hamabi mila markatürük;

7. Simeonen gizelitik, hamabi mila markatürük; Lebien gizelitik, hamabi mila markatürük; Isakarren gizelitik, hamabi mila markatürük;

8. Zabülonen gizelitik, hamabi mila markatürük; Josefén gizelitik, hamabi mila markatürük; Benjaminen gizelitik, hamabi mila markatürük;

9. Hoiendo ototik ikhusi nian saldo handi bat ihurk khunta e-tziokia-na, nazione eta gizeli, eta herri eta mintzaje güzietarik, xütü tronoaren aitzinian eta Axuriaren begipian, saio xuriz estalirik, eta palmak bere eskietan.

10. Eta oihü egiten zien zinez, zioelarik: Gür gure Jinko tronoan jarririk denari eta Axuriari.

11. Eta aingürüak oro zauden xütü tronoaren eta zaharren eta laur abe-ren üngürían, eta ahozpez erori ziren tronoaren aitzinian, eta adoratü zien Jinkoa,



12. Zioelarik: Bai, beneditzione, eta ospe, eta zühürtze, eta esker, eta ohore, eta berthüte, eta indar gure Jinkoari menten mentetan, halabiz.

13. Eta erantzün zeitan zaharretarik batek, eta erran zeitan: Nor dira saio xuriz althatürrik diren horik? Eta nontik jin dira?

14. Eta erran neion: Ene Jauna, zük dakizü. Eta erran zeitan: Horik dira jin direnak eskernio handitik, eta bere zaiak xahatü dütienak eta hurak xuritü Axuriaren odolian.

15. Hartakoz dira Jinkoaren tronoaren aitzinian, eta zerbüttxatzen die gai eta egün haren tenploan, eta tronoan jarririk dena egonen da haien gañen.

16. Ez-tükie goserik ez egarririk haboro, eta ez-tütie joko ekhiak, ez beste erredürak.

17. Zeren Axuri tronoaren erdian denak zaintüko beitätü eta oxemamen bizizko üthür-huretarat; eta txukatüren dütü Jinkoak nigarrak oro haien begietarik.

ZORTZIGERREN KAPITÜLIA

1. Eta ideki zianian zazpigerren kaxeta ixiltü zen zelian, oren erdi baten heña.

2. Eta ikhusi nütian Jinkoaren aitzinian dauden zazpi aingüriak, eta emanik izan zeitzen zazpi trunpeta.

3. Eta beste aingürü bat jin zen, eta ükhüratü zen althariaren aitzinian inxenxoar bat zadükalarik; eta eman zeioen inxenxü hanitx, ezar lezan saintü güzian othoitzetarik ürhezko altharen gañen, zoñ beita Jinkoaren tronoaren aitzinian.

4. Eta igain zen inxenxien khia, saintien othoitzez egina, aingüriaren eskütik Jinkoaren aitziniala.

5. Eta hartü zian aingüriak inxensoarra, eta bethe zian althareko sütik; eta urthiki zian lürrialat, eta egin zen ühülgü, eta oihü, eta iñhazi, eta lühikhara handi.

6. Eta zazpi aingürü zazpi trunpetak zadüzkenak adelatü ziren tronpeten joitera.

7. Eta lehen aingüriak jo zian trunpeta, eta egin zen harri eta sü odolareki nahasirik; eta egotxirik izan ziren lürrialat, eta lürriaren herena erre zen, eta zühañen herena txokartü zen, eta belhar berde güzia erre zen.

8. Eta bigerren aingüriak jo zian trunpeta; eta mendi handi bat bezalako bat sü-garretan urthikirik izan zen itxasoalat, eta itxasoaren herena odol bilhatü zen.

9. Eta hil zen itxasoan bizia zien kreatüretarik herena, eta untzien herena galdü zen.

10. Eta hirurgerren aingüriak trunpeta jo zian; eta erori zen zelütik izar handi bat, sü-garretan ilhinti bat bezala, eta erori zen ühaitz-handietarik hereniala eta üthür-huretara.

11. Eta izarraren izena da Ixeña; eta huren herena ixenetara khandiatü zen; eta gizon hanitx hil zen hur haietarik, kharastü zirelako.

12. Eta laurgerren aingüria trunpetoxez ari izan zen; eta joik izan zen ekhiaren herena, eta argizagiaren herena eta izarren herena, hala non ülhüntü beitzen haien heren phartia, eta ez-peitzian heren phartiak argirik eman egünari, ez eta halaber gaiari.

13. Eta ikhusi nian, eta entzün nian zeliaren erdia gainti hegaltaz zolan arrano baten botza, zoñek oihü egiten beitzian azkarki: Gaitz, gaitz, gaitz lürrian daudener, beste hirur aingürü trunpetak jo behar dütien botzetarik.

BEDERATZÜGERREN KAPITÜLIA

1. Eta bostgerren aingüriak jo zian trunpeta, eta ikhusi nian izar bat erori zela zelütik lürriera, eta emanik izan zeion lezeko phütziaren giltza.

2. Eta ideki zian lezeko phützia eta igain zen phützüko khia, sü-labe handi batena bezala; eta ülhüntürrik izan zen ekhia eta airia phützüko khiaz.

3. Eta phützüko khetik elkhi zen llarhote lürrialat; eta emanik izan zeien ahal, lürreko erluriek dien bezalako ahala.

4. Eta izan zeien manhatürrik e-lezen ogenik egin lürreko belharrari, ez berde zen orori, ez zühaiñ güzier; baizik ere Jinkoaren zeinharia bere belarretan ez-tien gizoner.

5. Eta eskü emanik izan zeien, ez haien erhaiteko, bena eskerniatzeko bost hilabetez; eta haien minak ziren, erluriak gizona isukitzen dianian bezalako minak.

6. Eta egün haietan gizonak ebiliko dira herioaren ondoan, eta ez-tie edirenen; eta nahi dirateke hil, eta herioak ihes eginen deie.

7. Eta llarhotiak bezalako haiek, üdüri zien zamari eli bat güdükako adelatürrik; eta haien bürietan ziren khoroak bezalako batzü, ürhezko üdüriz; eta haien begithartia gizon begithartia bezalako zen.

8. Eta bazütien bilhoak emazten bilhoak üdüri, eta haien hortzak lehoen hortzak üdüri ziren.

9. Eta bazütien bulharrekoak bürdün bulharrekoak üdüri, eta haien hegaleen heroxak üdüri zian orgeki güdükara doan zaldi saldo baten heroxa.



10. Eta bazütien büztanak erlurienak üdüri, eta lantzetak baziren haien büztanetan, eta haien photeria gizonen ogen egiteko bost hilabetez, eta bazien bere gañen

11. Erregetako leze handiko aingüria, zoñen izena beita hebrüz Abadon, grekez aldiz Apollion, latiz deitzen da Exterminans (erhailia).

12. Gaitz bat igaran da, eta huna jiten orano bi gaitz haren ondotik.

13. Eta seigerren aingüriak jo zian trunpeta eta entzün nian botz bat, Jinkoaren begien aitzinian den ürhezko althariaren laur adarretarik,

14. Erraiten seigerren aingürü, trunpetadünari: Solta itzak Eüfrateko ühaitz handian estekirik diren laur aingüriak.

15. Eta soltatürük izan ziren laur aingüriak zoñ beitziren adelatürük oreneko, eta egüneko, eta hilabeteko, eta urtheke, gizonen herenaren erhaitera.

16. Eta zaldizko armadaren saldoa hoge milatan hamar mila, eta entzün nian haien zunbata.

17. Eta hola ikhüsi nütian zamariak ikhusaldian; eta haietan gañen jarririk zirenek bazütien süzko, iazintezko eta sofrezko bulharrekoak; eta zamarien büriak ziren lehuen büriak bezalako, eta haien ahotik elkhi zen sü eta khe eta sofre.

18. Eta hil zen gizonen herena hirur üzürri hoiez, haien ahotik elkhi-ten ziren sü eta khe eta sofriaz.

19. Ezi zamarien photeria haien ahoan da eta haien büztanetan, ezi haien büztanak sügiak üdüri dira, badütie büriak eta haiez ogen egiten die.

20. Eta üzürri hoiez erhorik izan e-tziren beste gizonen e-tzien hartü ürririk bere eskien egitatez, eta etzien ützi debrien eta ürhezko, eta zilharrezko, eta metalezko, eta harrizko, eta zurezko üdüripenen adoratzia, zoñek ez-peitiokeie ez ikhus eta ez entzün, eta ez-peititake ebil.

21. Eta e-tzien egin penitentzia bere gizon-erhaitez, ez pozonatzez, ez bere likhizkeriez ez eta bere ohoinkeriez.

HAMARGERREN KAPITÜLIA

1. Eta ikhüsi nian beste aingürü azkar bat zelütik jaisten, odeiez üngüratürük eta ozadar bat бүрүн gañen; eta haren begithartia zen ekhia bezala, eta haren zankhoak süzko habe batzü bezala.

2. Eta bazian eskian librütto bat zabaltürük, eta ezari zian zankho esküña itxason gañen, eiskerra aldiz lürren ganen.

3. Eta oihü egin zian ozenki, lehuak egiten dian orrua bezala; eta oihü egin zianian, zazpi düründak bere mintzoak erantzün zütien.

4. Eta erantzün zütienian zazpi düründek bere mintzoak, ni izkiribatzera nindoan, eta entzün nian botz bat zelütik eni erraiten: Kaxeta etzatzü zazpi düründek erantzünak, eta ez-titzatzüla hurak izkiriba.

5. Eta aingürü, itxason eta lürren gañen xüti ikhüsi nianak, altxatü zian bere eskia zelialat.

6. Eta jüratü zian menten mentetan bizi denaz, zelia eta hartan direnak, eta lürra eta hartan direnak, eta itxasoa eta hartan direnak kreatü dütianaz, denborarik ez-tatekiala haboro;

7. Bena zazpigerren aingüriaren mintzoaren egünetan, trunpeta hasi datekianian erantzüten, ürhentüren dela Jinkoaren misterioa, erazagütü dian bezala bere zerbütixari profetez.

8. Eta entzün nian botz bat zelütik berriz eni mintzatzen eta erraiten: Zoaza, eta har ezazü güthün zabaltia itxason gañen eta lürren gañen xüti dagon aingüriaren eskütik.

9. Eta joan nintzan aingüriagana, eta erran neion eman lizadan güthüna. Eta erran zeitan: Har ezazü güthüna eta irex ezazü; eta kharasteraziko dü zure sabela, bena zure ahoan gozo dükezü eztia bezala.

10. Eta hartü nian güthüna aingüriaren eskütik, eta irexi nian; eta ene ahoan gozo zen eztia bezala; eta irexi nianian, kharastü zen ene sabela.

11. Eta erran zeitan: Behar düzü orano egia erantzün nazioner, eta populier, eta mintzage hanitxekori, eta hanitx erregei.

HAMEKAGERREN KAPITÜLIA

1. Eta emanik izan zeitan kanabera bat makhila bat üdüri, eta erranik izan zeitan: Jaiki zite, eta izart ezazü Jinkoaren tenploa, eta altharia, eta han adoratzen ari direnak.

2. Heipia aldiz tenplotik kanpo dena, bego kanpoan, eta ez-tezazüla hura izart, zeren ütirik beita atzer, eta hiri saintia zaphatüko die berrogei eta bi hilabetez.

3. Eta manü emanen düten ene bi jakiler, eta egia erantzünen die mila berrehün eta hirurhogei egünez, zakiak jaunxirik.

4. Horik dira olibatziak eta bi khandelerak lürren Jaunaren aitzinian daudenak.

5. Eta norbaitek gaizkirik egin nahi badeie, sü bat elkhiko da haien ahotik, eta ilhaintüren dütü haien exaiak; eta norbaitek min egin nahi badeie, hola harek hil behar düke.

6. Hoiek badie photeria zeliaren zerratzeko, egin ez-tezan euririk hoi profetisatzeko egünetan; eta eskü badie huretan gañen, haien odo-



letara khanbiatzeko, eta lurraren joiteko zer nahi züzürriz nahi dükien bezainbat.

7. Eta ürhentü dükeienian bere jakilegoa, leze handitik igaiten den saia güdükan ariko da hoiien kontre, eta goithüren dütü eta erhoko dütü.

8. Eta haien khorpitzak hedatürük egonen dira Sodoma eta Egipta üdüripenez deitzen den hiri handiko plazetan, non ere haien Jauna izan beita krüzifikatürük.

9. Eta hanitx gizeli eta popülü eta mintzaje eta nazionetakok ikhusi- ren dütie haien khorpitzak hirur egün eta erdiz, eta ez-tütie ützi-ko haien khorpitzak hobietan ezartera.

10. Eta lürreko ekhoiliarrak boztüko dira haien hiltzia, eta jei eginen die; eta algarri emaitze igorriko die, zeren bi profeta haiek marrüskatü beitätie lürrian egoiten zirenak.

11. Eta hirur egün eta erdien ondoan, bizizko haxa Jinkoaganik sarthü zen haietan; eta xütitü ziren bere zankhoetan gañen, eta loxeria handi batek hartü zütian haien ikhusiak.

12. Eta entzün zien botz handi bat zelütik haier erraiten: Igain ziteie hunat. Eta igain ziren zelialat odei batetan; eta ikhusi zütien haien exaiek.

13. Eta ordü hartan egin zen lühikhara handi bat, eta hiriaren hamar-gerren phartia erori zen, eta hil ziren lühikhara zazpi mila gizon; eta bes- tiak loxak hartürük izan ziren, eta gloria eman zien zelüko Jinkoari.

14. Biggerren gaitza igaran da, eta huna hirurgerren gaitza laster jite-ko dena.

15. Eta zazpigerren aingüriak jo zian trunpeta; eta botz handiak erantzün ziren zelian eta zioen: Mündü huntako nausigoa gure Jaunaren eta haren Kristentakotü da, eta errege date menten mentetan, halabiz.

16. Eta hogeie eta laur zaharrak, Jinkoaren aitzinian bere jargietan jarririk direnak, erori ziren ahozpez eta adoratü zien Jinkoa, zioelarik:

17. Esker deizügü, Jauna Jinko ahalorotakoa, zirena, eta zinena, eta ziratekiana, hartü beitätü zure indar handia, eta nausitü beitzira.

18. Khexatü dira nazioniak, bena zure khexaldia heltü da, eta theno-ria hilen jüjatzeko, eta sariaren emaiteko zure zerbütixari profeter, eta sain- tier eta zure izenaren beldür direner, txipier eta handier; eta lürra sokhie-razi dienen ilhaintzeko.

19. Eta zabaltü zen Jinkoaren tenploa zelian, eta ikhusi zen haren patoko arka; eta egin zen iñhazi, eta oihü, eta lühikhara, eta harrite han- dia.

HAMABIGERREN KAPITÜLIA

1. Eta ikhusgarri handi bat agertü zen zelian: Emazte bat ekhi-az üngüratürük, eta haren hoinpetan argizagia, eta haren bürian hamabi iza- rrezko khoroa bat.

2. Eta izorra beitzen, heiagoraz ari zen haurminetan, eta eskernia- tzen zen erditzeko.

3. Eta ikhusi zen beste ikhusgarri bat zelian; eta huna herensüge handi gorhail bat, zoñek beitzian zazpi bürü eta hamar adar; eta haren bürietan zazpi khoroa.

4. Eta haren büztanak zaraman zelüko izarren hirurgerren phartia, eta egotxi zütian lürrialat; eta herensügia baratü zen haurminetan zen emaztiaren aitzinian, erdi zatekianian, haren semiaren irexteko.

5. Eta sorthü zian haur bat seme, zoñek oxemanen beitätü nazione güzia- k bürdün zaharoareki; eta eroanik izan zen haren semia Jinkoaganat, eta haren tronoala.

6. Eta emaztiak ihes egin zian baserrialat non beitzian lekhü bat Jin-koak adelatürük, han hazirik izateko mila berrehün eta hirurhogeie egünez.

7. Eta izan zen güdüka handi bat zelian: Mixel eta haren aingüriak güdükan ari ziren herensügiaren kontre, eta sügia oldartzen zen, eta haren aingüriak ere.

8. Eta e-tzien goithü, eta e-tzen ediren haien lekhürük haboro zelian.

9. Eta egotxirik izan zen herensüge handi hura, süge zaharra, Debria, eta Satan deitzen dena, mündü güzia inganatzan diana; eta egotxirik izan zen lürriala, eta haren aingüriak hareki igorririk izan ziren.

10. Eta entzün nian botz handi bat zelian erraiten: Orai zintü da sal- bamentia, eta indarra, eta gure Jinkoaren erregegua, eta haren Kristen photeria; egotxirik beita gure anaien gaizkisal hazalia, zoñek gaizkisal ha- tzen beitzütian gure Jinkoaren aitzinian gai eta egün.

11. Eta hoiek goithü die hura Axuriaren odolaz, eta bere jakilegoaren elhi-az, eta ez-tütie bere biziak maithatü heriotziari ihes egiterano.

12. Hartakoz botz ziteie zeliak, eta han zaudenak. Gaitz lürriari, eta itxasoari, zietara jaixi beita debria khexüeri handiareki, jakinik denbora güti dila.

13. Ikhusirik herensügiak egotxirik zela lürrialat, gahatü zeion semia sorthü zian emaztiari.

14. Eta emanik izan zeitzon emaztiari arrano handi baten bi hegal, hegalta ledin baserrialat bere egongialat, non hazirik beita denbora batez eta denboraz, eta denbora erdi batez sügiaren ikhusbidetik.



15. Eta igorri zian sügiak bere ahotik emaztiaren ondoan, hur ühaitz bat bezala, ühaitzaz haren eroanerazteko.

16. Eta lagüngoia egin zeion lürrak emaztiari, eta zabaltü zian lürrak bere ahoa, eta irexi zian herensügiak bere ahotik igorri ühaitza.

17. Eta gaiztü zen herensügia emaztiaren kontre eta joan zen güdükara haren odoleko besten kontre, zoñek begirutzen beitütie Jinkoaren maniak, eta ekharten Jesü-Kristen jakilegoa.

18. Eta baratü zen itxasoko hariñan.

HAMAHIRURGERREN KAPITÜLIA

1. Eta ikhusi nian sai bat itxasotik igaiten, zazpi bürü zütiana, eta hamar adar, eta hamar adarretan gañen hamar khoroa, et haren bürietan gañen burhauzko izenak.

2. Eta ikhusi nian saiak üdüri zian leopardoa, eta haren hoñak hartzen aztaparrak bezalako ziren, eta haren ahoa lehoaren ahoa bezalako. Eta herensügiak eman zeion bere indarra, eta ahal handia.

3. Eta ikhusi nian haren bürietarik bat joik üdüri hiltzera zoala, eta haren heriozko zauria sendotü zen. Eta lür güzia amiratüririk jarri zen saia-
ren ondotik.

4. Eta adoratü zien herensügia, zoñek eman beitzian photeria saiari; eta adoratü zien saia, zioelarik: Nor da saia üdüri? eta nor güdüka daite hareki?

5. Eta emanik izan zeion aho bat nausa, eta burhau egiten ziana; eta eman izan zeion gaizkigiteko ahala berrogei eta bi hilabetez.

6. Eta ideki zian ahoa Jinkoaren burhaustatzeko eta haren izenaren, eta haren egongiaren, eta zelian daudenen burhaustatzeko.

7. Eta eman izan zeion saintier gerla egitia eta haien goitzia. Eta eskü ükhen zian gizeli, eta popülü, eta mintzaje eta nazione güzien gañen.

8. Eta adoratü zien lürrian zauden güziek, zoñen izenak ez-peitira izkiribatüririk mündiaren hastetik erhorik izan den Axuriaren bizizko Librian.

9. Norbaitek balin badü beharririk, entzün beza.

10. Besten bahi eroailia, bera bahitüririk joanen da; ezpataz erhailiak, behar dü ezpataz erho. Hor da Saintien zintarzüna, eta fedia.

11. Eta ikhusi nian beste sai bat lüretik igaiten, eta bazütian bi adar Axuriarenak üdüri, eta mintzo zen herensügia bezala.

12. Eta lehen saia-aren ahala oro egiten zian haren aitzinian; eta lürrari, eta hartan zaudener, adorarazi zian lehen saia, zoñen heriozko zauria sendotüririk izan beitzen.

13. Eta egin zian gaiza izigarri handirik, sü jaixeraz artio zelütik lürriala gizonen aitzinian.

14. Eta inganatü zütian lürrian zaudenak, saia-aren aitzinian, eman izan zeion gaiza izigarrien egitiaz, erranik lürrereko ekhoilarrer, egin lezen ezpataren zauria ükhenik bizi den saia-aren üdüri bat.

15. Eta ahala ükhen zian biziaren emaiteko saia-aren üdüriari, eta saia-aren üdüriaren mintzerazteko, eta egiteko saia-aren üdüria adoratzan e-tzienak oro, erhorik izan litian.

16. Eta güzier, txipier eta handier, eta aberaxer, eta beharrer, eta jaber, manüxpekoer hareraziko deie señale bat bere eskü eskünian, edo bere belarretan.

17. Eta eginen dü ihurk eros edo sal ez-tezakian, ez-palinbadü saia-
ren señalia, edo izena, edo haren izenaren zombata.

18. Heben da zühürtarzüna. Dianak enthelegia, khunta beza saia-
ren zombata. Ezi gizon baten zombata da, eta haren zombata sei ehün eta hirurhogei eta sei.

HAMALATURGERREN KAPITÜLIA

1. Eta ikhusi nian, eta huna Axuria zen xüti Sioneko mendin gañen, eta hareki ehün eta berrogei eta laur mila, haren izena, eta haren Aitaren izena ekhartan zienak bere belarretan izkiribatüririk.

2. Eta entzün nian herox bat zelütik, hur handien heroxa üdüri, eta ühülgü handi baten orrokoa üdüri; eta entzün nian heroxa zen harpalariak harpan ari direnien bezalakoa.

3. Eta khantatzen zien kantika berri bat bezala jargiaren aitzinian, eta laur aberen, eta zaharren aitzinian, eta ihurk e-tzezakian erran kantika, ehün eta berrogei eta laur mila, lüretik erosirik izan diren haiek baizik.

4. Horik dira emazteki theiütü ez-tirenak, ezi birjina dira. Horik Axuriari jarraikiten dira noratnahi joan dadin. Horik erosirik izan dira gizonetarik lehentxak Jinkoarentako, eta Axuriarentako;

5. Eta haien ahoan ez-ta aurkhitü gezürra, halaz thonagabe dira Jinkoaren tronoaren aitzinian.

6. Eta ikhusi nian beste aingürü bat zeliaren erdia gainti hegaltatzen, Ebanjelio bethierekoa zadükalarik, erakasteko lürrian zaudener, nazione eta gizeli, eta mintzaje eta popülü güzier.

7. Erraiten zialarik oihü handireki: Jaunaren beldür izan ziteie, eta eman ezozie ohore, jin beita haren jüdizioneko orena; eta adora ezazie, zelia eta lürra eta itxasoa eta üthür-hurak egin dütian.



8. Eta beste aingürü bat ondotik jin zen, erraiten zialarik: Erori da, erori da Babilone handi hura zoñek bere likhizkeriaren kolerazko ardoa edanerazi beitu nazione güzier.

9. Eta hirurgerren aingürü bat agertü zen haien ondotik zioalarik oihü handireki: Nork ere adoratü beitu ke saia eta haren üdürüa, eta zeñ-haria hartü bere belarrian edo bere eskian,

10. Harek ere edanen dü Jinkoaren khexüzko arduetik, haren khexüzko ontzian garbi adelatürük izan denetik; eta izanen da thormentatürük süiaz eta sofriaz aingürü saintien aitzinian eta Axuriaren aitzinian.

11. Eta haien gaitzminen khia igañen da menten mentetan; eta ez-tie phausürük gai ez egün, saia eta haren üdürüa adoratü dienek eta haren ize-naren zeñharia hartü dianak.

12. Heben dago Jinkoaren maniak eta Jesüsen fedia begiratzan dien saintien zintarzüna.

13. Eta entzün nian botz bat zelütik, eni erraiten: Izkiriba ezazü: Dohaxü hilak, Jaunian hiltzen direnak. Oraidanik dio Espiritiak: Phausa ditiala bere neketarik, ezi bere lanheginak jarraikiten zaitze.

14. Eta ikhushi nian eta huna odei xuri bat, eta odein gañen jarririk gizonaren Semia üdürü bat, zoñek beitzian ürhezko khoroa bat bürian, eta eskian dallü zorrotz bat.

15. Eta beste aingürü bat elkhi zen tenplotik, oihüz goratik odein gañen jarririk zenari: Igor ezazü zure dallia, eta ephait ezazü, jin beita ephaiteko ordia, zohi direlakoz lürreko üztak.

16. Eta igorri zian odein gañen jarririk zenak, bere dallia lürrialat, eta ebakirik izan zen lürra.

17. Eta beste aingürü bat elkhi zen zelian den tenplotik, beitzian harek ere dallü zorrotz bat.

18. Eta beste aingürü bat elkhi zen altharetik, harek eskü beitzian süiaren gañen; eta oihü egin zian azkarki daillü zorrotza zianari, zioalarik: Erabil ezazü zure daillü zorrotza, eta mutz etzatzü lürreko mahasti molkhoak, huntürük beitura hanko mahaxak.

19. Eta igorri zian aingürüak bere daillü zorrotza lürrialat, eta bildü zütian lürreko mahaxak, eta urthiki zütian Jinkoaren khexüzko zügan handialat.

20. Eta iruxkirik izan zen zügana hiritik kanpoan, eta elkhi zen odol züganetik zaldien kabastürietarano mila eta sei ehün estadaren eremian.

HAMABOSTGERREN KAPITÜLIA

1. Eta ikhushi nian beste zeñhare handi, eta izigarri bat zelian: zazpi aingürü, azken zazpi üzüriak zadüzkenak, haietan beita ürhentzen Jinkoaren khexia.

2. Eta ikhushi nian bitzezko itxaso bat bezala süiareki nahasirik, eta saiaren, eta haren üdürüaren, eta haren izeneko zombataren goithzaliak, zaudela itxason gañen Jinkoaren harpeki.

3. Eta khantatzen ziela Moisa Jinkoaren zerbütxiaren kantika, eta Axuriaren kantika, zioalarik: Handi eta izigarri dira zure lanheginak, Jauna Jinko ahalorotakoa; xüxen eta egiazko dira zure bidiak, menten Erregia.

4. Nor ez-ta zure beldür izanen, Jauna, eta nork ez-tü handixiren zure izena? Zü zihaur beitzira bihotzbera; nazioniak oro jinen beitura, eta gürhüko beitura zure aitzinian, ageri direlakoz zure jüdizioniak.

5. Eta gero ikhushi nian, eta hau dela ideki zen zelian jakilegoaren egongiako tenploa.

6. Eta elkhi ziren tenplotik zazpi üzüriak zadüzken aingürüak, lizko saio xahü eta xuriak jaunxirik, eta ürhezko gerrikoez bulharretan tinkatürük.

7. Eta laur aberetarik batek eman zian zazpi aingürüak zazpi ürhezko untzi, Jinko menten mentetan bizi denaren khexiaz betherik.

8. Eta tenploa khez bethe zen Jinkoaren handitarzünetik, eta haren borthizarzünetik; eta ihur e-tzaitekian sar tenploan, zazpi aingürüen zazpi üzüriak igaran artio.

HAMASEIGERREN KAPITÜLIA

1. Eta entzün nian botz handi bat tenplotik, erraiten zazpi aingürü: Zoazte, eta ixur etzatzie Jinkoaren khexiaren zazpi untziak lürrialat.

2. Eta joan zen lehena, eta ixuri zian bere untzia lürrialat, eta jin zen zauri garratz eta ezinago gaistoa saiaren herexa zien gizonetara, eta haren üdürüa adoratü zienetara.

3. Eta bigarren aingürüak ixuri zian bere untzia itxasoalat, eta jarri zen hil baten odola bezala; eta bizi zirenak oro hil ziren itxasoan.

4. Eta hirurgerrenak ixuri zian bere untzia ühaitzetarat, eta üthür-huretarat, eta odol bilhatü ziren.

5. Eta entzün nian huretako aingürüa erraiten: Xüxen zira, Jauna, zirena, eta zinena, saintia, arrest horik ekharri dütüzüna.

6. Ixuri dielakoz saintien eta profeten odola, eman deiezü odol edatera, eki merexi zizien.

7. Eta entzün nian beste bat altharetik erraiten: Bai, Jaun Jinko ahalorotakoa, egiazko dira eta xüxen zure jüjamentiak.



8. Eta laurgerren aingüriak ixuri zian bere untzia ekhin gaña, eta emanik izan zeion gizonen beroaz thormentatzia, eta süiaz.

9. Eta txispiltzen ziren gizonak beroaren handiaz, eta burhaustatu zien Jinkoa, üzürri hoién igorteko photeria ziana, eta etziren ürrikitan sarthü hari gloria emaiteko.

10. Eta bostgerren aingüriak ixuri zian bere untzia saiaren jargiala, eta haren erresuma ülhüntü zen, eta jan zütien bere mihiak minez.

11. Eta burhaustatu zien zelüko Jinkoa bere min eta zaurien artian, eta e-tziren ürrikitü bere egitatez.

12. Eta seigerren aingüriak ixuri zian bere untzia Eüfrateko ühaitz handi hartara eta agorerazi zian haren hura, bidiaeren adelatzeko ekhijalk-higiatiko erreger.

13. Eta ikhushi nian herensügiaren ahotik, eta saiaren ahotik eta basaprofetaren ahotik hirur izpiritü likhix elkhiten igelen üdürían.

14. Hurak dira eki debrien izpiritiak gaiza izigarri egiliak, eta badoatza lür orotako erregetara, haien güdükara biltzera, Jinko ahalorotakoaren egüneko.

15. Huna non jiten nizan ohoña bezala. Dohaxü iratzarririk dagoana, eta suñekoak begiratzen düttiana, bilaizirik ebil ez-tadin, eta ikhus ez-tezen haren ahalkia.

16. Eta bildüko dütü Hebrüz Armagedon deitzen den lekhiala.

17. Eta zazpigerren aingüriak ixuri zian bere untzia airialat, eta erantzün zen mintzo handi bat tenplotik tronoko aldetik, zioana: Egin da.

18. Eta egin zen iñhazi, eta oihü, eta ühülgü; eta lühikhara bat izan zen, egündano gizonak lürren gañen zirenez geroz, ez-peitzen izan halako lühikhara handirik.

19. Eta hiri handia egin zen hirur zathitan, eta nazionetako hiriak erori ziren. Eta Babilone handia gogoala jin zeion Jinkoari, hari hürrüpa-tzera emaiteko bere khexü herakitüzko ardoaren edanontzia.

20. Eta ühartia oro ezabatü zen, eta mendiak e-tziren ediren.

21. Eta harrite handi bat kintaletako talentia bezalakoa erori zen zelütik gizonetara, eta burhaustatu zien Jinkoa gizonek harrizko üzürriaren-gatik, handi beitzen izigarri.

HAMAZAZPIGERREN KAPITÜLIA

1. Eta jin zen zazpi untiak zütien zazpi aingürietarik bat, eta mintzatü zeitan, zioalarik: Tziauri, erakuxiren deizüt hur handietan gañen jarririk den phüta handiaren kundenazionia,

2. Zoñeki nahasi beitira lürreko erregiak, eta orditü beitira lürreko ekhoiliarrak haren likhizkeriako ardoaz.

3. Eta eroan nündian gogoz baserri batetara. Eta ikhushi nian emazte bat jarririk sai gorri baten gañen, zoñ beitzen burharizko izenez betherik, eta zoñek beitzian zazpi bürü, eta hamar adar.

4. Eta emaztia üngüratürük zen purpraz, eta eskerletaz, eta ürhez, eta harri baliusez, eta perlaz aphaintürük, eta bazian bere eskian edanontzi bat, itxuskeriaz, eta bere likhizkeriazko theiarzünez betherik;

5. Eta haren belarrian izen bat izkiribatürük: Misterio: Babilone handia, likhizkerien eta lürreko itxuskerien ama.

6. Eta ikhushi nian emaztia orditürük saintien odolaz, eta Jesüsen martiren odolaz. Eta izitü nintzan haren ikhustiaz harrigarriki.

7. Eta erran zeitan aingüriak: Zertako lazten zira? Nik erranen deizüt emaztiaren egia estalia, eta hura daraman sai zazpi bürü eta hamar adar dianarena.

8. Ikhushi düzün saia izan da eta ez-ta, eta igañen da lezetik, eta hiltzera joanen da; eta izitüko dira lürreko ekhoiliarrak, zoñen izenak ez-peitira izkiribatürük bizizko Librian mündiaren haxarretik, ikhustez saia bazela eta haboro ez-tela.

9. Eta hau da erranahia, zoñtan beita jakitatia. Zazpi büriak dira zazpi mendiak, zoñtan gañen jarririk beita emaztia, eta ere zazpi errege dira.

10. Bost erori dira, bat badago, beste bat ez-ta orano jin, eta jin datekianen, behar dü harek güti egon.

11. Eta sai zena, eta ez-tena, hura da zortzigerrena; eta zazpietarikoa da, eta hiltzera doa.

12. Eta ikhushi dütüzün hamar adarrak, hamar errege dira, zoñek erresumarik ez-peitie orano ükhen, bena photere errege bezala oren batez ükhenen die saiaren ondotik.

13. Hoiiek xede bat die, eta bere indar eta ahala emanen die saiari.

14. Horik Axuriareki güdükatüren dira, eta Axuriak goithüren dütü; zeren jaunen Jauna beita, eta erregen Erregia, eta hareki direnak, deithiak haitatiak, leialak.

15. Eta erran zeitan: Hur ikhushi dütüzünak non phüta jarririk beita-go, popüliak dira, eta nazioniak, eta mintzajiak.

16. Eta saiari ikhushi dütüzün hamar adar: haiek hastiatüko die likhixa, bereber eta pikarrai ezariko die; haren aragiak janen dütie, eta bera süian erreren.



17. Ezi Jinkoak ezari deie bihotzian, egin dezen harek nahi diana, eman dezen bere erresuma saiari, bethe ditian artio Jinkoaren erranak.

18. Eta ikhusi düzün emaztia da hiri handia, zoñek beitu bürüzagigoa lürreko erregetan gañen.

HAMAZORTZIGERREN KAPITÜLIA

1. Eta gero ikhusi nian beste aingürü bat, photere handia ziana, jais-ten zelütik; eta lürra argitürük izan zen haren gloriaz.

2. Eta oihü egin zian azkarki, zioalarik: Erori da, erori da Babilone handia; eta egin da debrien egongia, eta izpiritü likhix güzien iheslekhia, eta hegazti tzar eta hügügarri ooren ziloka.

3. Zeren haren khexüzko likhizkeriaren ardutik edan beitie populü güziek, eta lürreko erregiak hareki nahasi beitera, eta lürreko salerosliak aberastü beitera haien siraxen khostüz.

4. Eta entzün nian beste botz bat, erraiten: Elkhi zite hortik, ene populüa, e-tzitian izan phartedün horren gaistokerietan eta eztezazün har horren üzürrietarik.

5. Zeren heldü beitera horren bekhatiak zelialano, eta orhitü beita Jinkoa horren gaistokeriez.

6. Ützül izozie eman deizien bezala, eta emozie bitan haren egitaten arau; eskentü deizien edanontzian edaneraz izozie bietan.

7. Zonbat ere goratü beita, eta gozatü, hanbat emozie gaitz eta nigarbide; zeren erran beitu bere bihotzian: Jarririk nago erregiña, eta e-niz alhargünxa, eta ez-tüt ikhusiren nigarbiderik.

8. Hartakoz egün batez jinen dira haren gaitzak, herioa, eta nigarrak, eta gosetia, eta süian erreko da; zeren azkar beita hura jüjatüren dian Jinkoa.

9. Eta nigar eginen die, eta heiagoraz ariko dira harengatik hareki nahasi, eta siraxetan bizi izan diren lürreko erregiak, ikhusi dükienian haren erratzeko khia.

10. Eta hürrün daudelarik haren gaitzminen beldürrez, erranen die: Othian! Othian! Babilone hiri handi hura, hiri azkar hura, hola oren baten barnian jin beita hire galtzia!

11. Eta lürreko saleroslek nigar eginen die, eta hasperen hartan gañen; zeren haien salgeiak ihurk ez-peitütü erosiren haboro.

12. Ürhezko, eta zilharrezko, eta harri baliusezko, eta perlazko, eta li mehezko, eta purprazko, eta zetazko, eta eskerletazko salgeiak, eta ürrin hunezko zur güziak, eta iboarazko untzi güziak, eta harri baliusezko eta brunzezko, eta bürdüñazko, eta marmorezko injamiak oro,

13. Eta zinamoma eta ürrin-hunak, eta ünkhüntiak, eta insensia, eta ardua, eta olioia, eta irin lilia, eta ogi bihia, eta zaldiak, eta ardiak, eta zama-riak, eta orgak, eta esklaboak eta gizonen arimak.

14. Hire arimaren gozoko frütak joan dütüük hireganik, eta gaiza gizen, eta ederrak, galdü zaitzak, eta ez-tütü hurak haboro edirenen.

15. Hoiens salerosle aberastiak, hartarik hürrün egonen dira haren gaitzminen loxaz, nigarrez, eta hasperenez,

16. Erraiten dielarik: Othian! Othian! hiri handi hura, zoñtan aberastü beitera itxasoan ontzi zienak oro, hauen huntarzünetarik; hola oren baten barnian izan beita erauxirik.

20. Boztariotan jar zite zelia, eta apostolü saintiak, eta profetak; zeren goiherazi beitu Jinkoak zien althia haren kontre.

21. Eta aingürü azkar batek altxatü zian harri bat eiherarri handi bat bezalakoa, eta urthiki zian itxasoalat, zioalarik: Hain zalhe egotxirik izanen da Babiloneko hiri handia, eta ez-ta haboro edirenen.

22. Eta harparien, eta khantarien, eta txürülarien, eta trunpetarien botza ez-ta entzünen hitan gehiago; eta ihulako offizioko langilerik ez-ta hitan edirenen gehiago, eta eiherariaren heroxa ez-ta haboro entzünen hitan.

23. Eta ezkoaren argiak ez-tik hitan argitüren haboro, eta senhar emazten mintzoa ez-ta entzünen gehiago hitan; zeren hire tratlantak beitziren lürreko gehienak, zeren hire inkantie inganatürük izan beitera populü güziak.

24. Eta hartan ediren da profeten eta saintien odola, eta lürrian erhorik izan diren güziena.

HEMERETZÜGERREN KAPITÜLIA

1. Hoiens ondoan entzün nian ozte handi baten botza bezalako bat zelian erraiten: Allelüia. Gürra, eta gloria, eta indarra gure Jinkoarentako dira.

2. Zeren egiazko beitera eta xüxen haren jüjamentiak, zügen egin beitu phüta handiaz, bere likhizkerian lürra sokhierazi dianaz, eta goiherazi beitu haren eskietarik bere zerbürtxarien odola.

3. Eta berriz erran zien: Allelüia.

Eta haren khia igaiten da menten mentetako.

4. Eta lüherrastü ziren hoge eta laur zaharrak, eta laur aberiak, eta adoratü zien tronoan jarririk den Jinkoa, zioalarik: Amen. Allelüia.

5. Eta botz bat elkhi zen tronotik, zioana: Goraipha ezazie gure Jinkoa haren zerbürtxari güziek, eta haren beldür ziraien, txipi eta handiek.



6. Eta entzün nian ozte handi baten botza bezalako bat, hur handien heroxa üdüri ziana, eta ühülgü handien orrokoa bezala, beitzioen: Allelüia, bürüzagitü beita gure Jinko Jauna, ahalorotakua.

7. Botz gitian eta alagera, eta eman dizogün gloria, zeren heltü beiti-ra Axuriaren ezteiak eta haren ezkongeia adelatürük beita.

8. Eta emanik izan zaio althatürük izatia li mehe, distiant eta xuriaz. Li mehezko saioa aldiz saintien egitate xüxenak dira.

9. Eta erran zeitan: Izkiriba ezazü: Dohaxü Axuriaren ezteietako apairiala deithürük direnak. Eta erran zeitan: Jinkoaren hitz horik egiazko dira.

10. Eta erori nintzan haren hoñetara, haren adoratzeko. Eta erran zeitan: Begireizü ez-tezazün egin; zure zerbütxari lagüna nüzü, eta Jesü-sen jakilegoa dien zure anaiena. Jinkoa adora ezazü. Jesüsen jakilegoa da aldiz profeziatzko izpiritia.

11. Eta ikhusi nian zelia idekirik, eta huna zamari xuri bat, eta hartan gañen jarririk zena, deitzen zen Leiala, eta Egiatia, eta xüxentarzüneki jüjatzen dü, eta güdükatzen da.

12. Baita haren begiak ziren sü garra üdüri, eta bürían zütian hanitz khoroa, eta bazian izen bat izkiribatürük, ihurk ez-takiana berak baizik.

13. Eta jaunxirik zian saio odolstatü bat; eta harek ekhartan dian izena, Jinkoaren Berboa (Hitza).

14. Eta zelian diren armadak, jarraikiten zeitzon zamari xurietan, li mehezko saio xuriak eta xahiak jaunxirik.

15. Eta haren ahotik elkhiten da ezpata bat bi aldetarik zorrotürük hartaz popülien joiteko. Eta berak oxemanen dütü bürdün zaharoareki, eta Jinko ahalorotakoaren khexü gaitzaren arduaren zügana berak iruxkiten dü.

16. Eta dü izkiribatürük bere soinekoan, eta bere isterrian: Erregen Erregia, eta jaunen Jauna.

17. Eta ikhusi nian beste aingürü bat ekhian xüti, eta oihü egin zian zinez, erraiten zialarik zelü erdia gainti hegaltatzen ziren hegazti güzier: Tziauste, eta bil ziteie Jinkoaren apairü handialat,

18. Jan ditzatzien erregen aragiak eta armadetako gehienen aragiak, eta azkarren aragiak, eta zamarien, eta hetan jarririk direnen aragiak, eta nausien, eta mithilen, eta txipien, eta handien aragiak.

19. Eta ikhusi nütian saia, eta lürreko erregiak, eta haien armadak bildürük, güdükan aritzeko zamarian jarririk zenareki, eta haren armadaeki.

20. Eta atzamanik izan zen saia, eta hareki basa profeta; haren aitzian gaiza izigarrien egilia, zoñetzaz inganatü beitzütian saiaren markaren

harzaliak, eta haren üdüriaren adorazaliak. Bizirik igorririk izan ziren horik biak sofrez herakitzen den süzko osinialat.

21. Eta bestiak erhorik izan ziren zamarian jarririk zenaren ahotik elkhiten zen ezpataz, eta hegazti güziak ase ziren haien aragiez.

HOGEIGERREN KAPITÜLIA

1. Eta ikhusi nian aingürü bat jaisten zelütik, zoñek beitzian lezeko giltza, eta khatia handi bat bere eskian.

2. Eta atzaman zian herensügia, süge zaharra, hura beita debria, eta Satan, eta estekatü zian mila urtherentako.

3. Eta egotxi zian lezialat, eta zerratü zian, eta kaxetatü zian haren gañen, e-litzan haboro nazioniak ingana, mila urthiak bethe artio; eta gero soltatü behar dü denbora aphürrentako.

4. Eta ikhusi nütian jargiak, eta jarri ziren haietan gañen; eta emanik izan zeien jüjatzeko eskia, eta Jesüsen jakilegoagatik, büriak muztürük izan zirenen arimak, zoñek ez-peitzien saia adoratu, ez eta haren üdüria, ez hartü haren zeñharia bere belarretan, edo eskietan, eta bizi izan dira eta errege egon dira Jesü-Kristeki mila urthez.

5. Beste hilak ez-tira bizitü, mila urthiak bethe artio. Hori da lehen arraphiztia.

6. Dohaxü, eta saintü, pharte ükhenen diana lehen arraphiztian; haie-tan bigerren heriotziak ez-tü eskürük; bena Jinkoaren eta Jesü-Kristen aphez dirate, eta errege hareki mila urthez.

7. Eta bethe diratekienian mila urthiak, soltatürük izanen da Satan bere presuntegitik, eta elkhiren da, eta inganatüren dütü lürrenen laur eretzetan diren popüliak, Gog, eta Magog, eta bildüren dütü güdükako; haien zombata da itxasoko hariña bezala.

8. Eta hedatü ziren lürrenen zabaltarzünian eta üngüratü zien saintien bilkhüra, eta hiri maitia.

9. Eta jaixi zen sü bat zelütik Jinkoaganik, eta ilhaintü zütian; eta debria, haien inganazalia, egotxirik izan zen süzko eta sofrezko osinialat, non saia ere

10. Eta basaprofeta izanen beiti-ra marrüskatürük egün eta gai menten mentetan.

11. Eta ikhusi nian trono handi xuri bat, eta hartan jarririk zena, zoñen aitzinian ezabatü beitzen lürra, eta zelia, eta haien lekhürük etzen ediren.

12. Eta ikhusi nütian hilak, handiak eta txipiak, tronoaren aitzinian xüti; eta libriak zabaltürük izan ziren. Beste Librü bat ere zabaltürük izan



zen, hura beita bizizkoa, eta jüjatürük izan ziren hilak librietan izkiribatürük zirenetarik, haien egitaten arau.

13. Eta itxasoak eman zütian hartan ziren hilak; herioak ere, eta iferniak eman zütien bere hilak, haietan zaudenak, eta jüjatürük izan zen bat-bederaz bere egitaten arau.

14. Eta ifernia eta herioa igorrririk izan ziren süzko osinialat. Hori da bigerren heriotzia.

15. Eta ediren e-tzena bizizko Librian izkiribatürük, igorrririk izan zen süzko osinialat.

HOGEI ETA BATGERREN KAPITÜLIA

1. Eta ikhusi nian zelü berri bat, eta lür berri bat. Ezi lehen zelia, eta lehen lürra joan ziren, eta itxasorik ez-ta haboro.

2. Eta nik Johanek ikhusi nian hiri saintia, Jerüsaleme berria, zelütik jaisten Jinkoaganik, althatürük ezkuntberria bere senharrarentako aphaintzen den bezala.

3. Eta entzün nian botz handi bat tronotik erraiten: Huna Jinkoaren egongia gizoneki, eta egonen da haieki. Eta hurak dirate haren popülia, eta Jinkoa bera date haieki haien Jinkoa.

4. Eta txükatüren dütü Jinkoak nigarrak oro haien begietarik; eta ez-tate haboro heriorik, ez bihotzminik, ez heiaigorarik, ez eta nahigaberik ez-tate haboro, zeren lehenekoak joan beitura.

5. Eta erran zian tronoan jarririk zenak: Huna, berri egiten düüt oro. Eta erran zeitan: Izkiriba ezazü, hitz horik osoki sinhexgarri direla, eta egiazko.

6. Eta erran zeitan: Egin da. Ni niz alfa eta omega, haxarria eta ürhentzia. Nik egarri denari emanen dü bizizko huraren üthürritik, dohaiñ.

7. Goitzen dükianak, horik badütüke, eta haren Jinko nizate, eta hura ene seme dateke.

8. Loxorrak aldiz, eta sinhestegabiak, eta arnegagarriak, eta gizon erhailiak, eta likhixak, eta phozoazaliak, eta Jinko falxien adorazaliak, eta gezürtiak oro, haien ükhengeia dateke süz eta sofrez herakitzen den osinian; hori beita bigerren heriotzia.

9. Eta jin zen untziak azken üzürriez betherik zadüzken zazpi aingürrietarik bat, eta mintzatü zeitan, zioalarik: Tziauri, eta erakuxiren deizüt ezkontberria, Axuriaren emazia.

10. Eta gogoz eroan nündian mendi handi eta gora batetara, eta erakuxi zeitan hiri saintia, Jerüsaleme, jaisten zelütik Jinkoaganik,

11. Jinkoaren argiaz edertürük; eta haren argia harri baliusa üdüri diamant ñabarraren antzoko, kristala bezalakoa.

12. Eta bazian mürrü handi eta gora bat, zoñek beitzian hamabi bortha; eta borthetan, hamabi aingürü, eta izenak izkiribatürük, zoñ beitura Israeleko haurren hamabi gizelien izenak.

13. Ekhi alkhiatik hirur bortha, eta ipharaldetik (sic) hirur bortha, eta hegoaldetik hirur bortha, eta itzalaldetik hirur bortha.

14. Eta hiriko mürriak bazian hamabi egarzola, eta hamabi haietan, Axuriaren hamabi apostolien izenak.

15. Eta eneki mintzo zenak, bazian ürhe kanaberazko izari bat, hiriarren, eta haren borthen, eta mürriarren izartzeko.

16. Eta hiria laur hegitan eginik zen, eta haren lüzegoa zen zabalgoa bezain bat; eta izartü zian hiria ürhe kanaberaz, eta ediren hamabi mila estada; eta lüzetarzüna, eta goratarzüna, eta zabaltarzüna bardin dira.

17. Izartü ere zian haren mürria, zoñek beitzian ehün eta berrogei ta laur beso, gizon izari, hori beitzen aingüriarena.

18. Eta mürrü hura eginik zen harri diamant ñabarrez; hiria bera aldiz ürhe xahia bitre argia üdüri.

19. Eta hiriko mürriarren egarrolak harri balius orotzaz edertürük ziren: «Lehen egarzola zen harri ñabarra; bigerrena, harri urdina; hirurgerrena, xuria; laurgerrena berdaxa;

20. Bostgerrena xurigorria; seigerrena hallaxa; zazpigerrena hori-berdia; zortzigerrena, berde-argia; bederatzügerrena horia; hamargerrena berde-zurphalla; hamekagerrena hori gorphalla; hamabigerrena, harri-übel».

21. Eta hamabi borthak, hamabi perla dira, bakhoitzkal: bortha bakhoitzta perla bakhoitz bat zen, eta hiriko plaza ürhe xahia zen, bitre argi bat üdüri.

22. Eta tenplorik enian hartan ikhusi. Ezi haren tenploa da Jinko Jaun ahalorotakoa, eta Axuria.

23. Eta hiriak ez-tü ekhi, ez argizagi beharrik argitürük izateko. Ezi Jinkoaren argitarzünak argitzen dü, eta haren argizalia da Axuria.

24. Eta ebiliko dira popüliak haren argian, eta lürreko erregek ekharriren deioe bere gloria eta ohoria.

25. Eta haren borthak ez-tira zerratüren egünkal, ez-peitate han gayik.

26. Ekharriko ere die hara popülien gloria, eta ohoria.

27. Ez-ta han sarthüren deus theiürük, edo itxuskeria egilerik, eta gezür errailerik, baizik ere Axuriaren bizizko Librian izkiribatürük direnak.



HOGEI ETA BIGERREN KAPITÜLIA

1. Eta erakuxi zeitan hur biziaren ühaitza, kristala bezain argi, Jinko-aren eta Axuriaren jargiatik elkhiten.
2. Hanko plazaren erdian, eta ühaitzaren bi aldetarik da bizizko zühaña, zoñek ekhartzen beütü hamabi früta, eta hilabetekal emaiten bere früta, eta zühañaren ostoak nazionen sendotzeko dira.
3. Eta maraditzionerik ez-tate haboro; bena Jinkoaren eta Axuriaren jargiak han dirate, eta haren zerbüttxariek zerbüttxatüren die.
4. Eta ikhusiren die haren begithartia, eta haren izena haien borontetan dateke.
5. Eta gayik gehiago ez-tate; eta ez-tükeie khandera argi beharrik, ez ekhiaren argi beharrik, zeren Jinko Jaunak argitüren beütütü, eta errege dirate menten mentetan.
6. Eta erran zeitan: Hitz horik osoki sinhexgarri dira, eta egiazko. Eta Jaunak, profeten izpiritien Jinkoak, igorri dü bere aingüria erakustera bere zerbüttxarier zer heltü behar den llabürski.
7. Eta huna jiten niz laster. Dohaxü librü huntako aitzinerranaren hitzak begiratzen düttiana.
8. Eta ni niz Johane, hoiën entzülia eta ikhuslia. Eta entzün eta ikhusi ondoan, lüherrastü nintzan adoratzeko, horik erakuxi zeitzan aingüriaren hoñetan.
9. Eta erran zeitan: Begireizü, ez egin, ezi zure zerbüttxari lagüna nüzü, eta zure anaie profetena, eta librü huntako aitzinerranaren hitzak begiratzen dütienena; Jinkoa adora ezazü.
10. Eta erran zeitan: Ez zerra librü huntako aitzinerranaren hitzak, ezi hüllan da denbora.
11. Gaizki egiten dianak, gaizki egin beza orano; eta likhizkerietan dena, likhix bedi orano; eta xüxen dena, xüxent dadila orano; eta xahü dena, xaha dadila orano.
12. Ezi jiten niz llabürski, eta ene saria eneki da, emaiteko batbederari bere lanheginen arau.
13. Ni niz alfa eta omega, lehena eta azkena, haxarria eta ürhentzia.
14. Dohaxü bere soñekoak Axuriaren odolian xahatzen düttienak, züzen ükhen dezen bizizko zühañian, eta borthetarik sar ditian hirian.
15. Kanporat horak, eta phozoazaliak, eta likhixak, eta gizon erhaiak, eta Jinko falxien adorazaliak, eta gezürra maite eta egiten dienak oro.
16. Nik, Jesüsek, igorri düt ene aingüria hoietzaz zier jakilegoa ekhar-tera elizetan. Ni niz Dabiten herroa, eta adaka, izar argia eta goiz-izarra.

17. Eta espiritiak eta espusak dioie: Tziauri. Eta entzütten dianak, erran dezala: Tziauri. Eta egarri dena, jin bedi; eta nahi dianak, har beza bizizko huretik, dohañ.

18. Jakinxützen düütü librü huntako aitzinerranaren hitzen entzüliak oro: Ihurk emendatzen badütü horik, Jinkoak igorriko deitzo gaña librü huntan izkiribatürük diren üzürri güziak.

19. Eta ihurk elkhiten badü librü huntako aitzinerranaren hitzetarik, Jinkoak hura elkhiren dü bizizko Librütik, eta hiri saintütik, eta librü huntan izkiribatürük direnetarik.

20. Dio jakilegoa hoietzaz ekhartzen dianak: Bai, jiten niz laster. Hala-biz. Tziauri, Jesüs Jauna.

21. Jesü-Krist gure Jaunaren grazia zieki ororeki. Halabiz.

APOKALIPSAREN ÜLHÜNTARZÜN ZUNBAITEN ARGITZEKO NABARIGARRIAK

Apokalipsa erran nahi da gaiza gorden agertzia.

C.1.V.1. *Laster* hasi behar zien gaizak dira, bena mündiaren ürhen-zialano irañen dienak.

V.3. *Profezia* erran nahi da aitzinerrana, gero heltü behar dienen aitzinetik erakastia.

V.5. *Jakile leiala*, egia mündiari erakaxi diana.

V.8. *Alfa* eta *Omega* dira alfabet grekaren lehen eta azken hitzak; ondoko hitzek argitzen dütie horik.

V.9. *Lagüna eskernioan*: Domizianek olio herakian sarerezi zianian Lagüna *erresuman*, eta *igurtian* Jesü-Kristetan; zeren oro Jesü-Kristen *erresuman* eta khürütxian pharte hartzera deithürük beikira.

V.20. Aphezküpiak Elizen Aingüriak deithürük dira, Jinkoaz *igorririk* beittira gizonen lagüntzera salbamentüko bidian; eta behar beittie saintü izan eta erne *aingüriek* bezala.

Cap.II.V.5. *Elkhiko diala khandelera bere lekhütik*; erran nahi dü, beste aphezküpürük emanen diala Elizari.

V.6. Nikolaitak ziren heretiko likhix tzar batzü.

V.7. Bizizko zühañetik jatia da, jagoiti hil gabe Jinkoaren gozatzia zelian.

V.17. *Manna gordia*, zelüko dohaxütarzüna gozo güziak dadüzkana. *Harri xuria* da graziazko estatia, zoñi eretxekirik beita *Jinkoaren Seme* gize-lako izena.



V.24. Egiaren exai haiek deitzen zütien bere erakaspenak Ebanjelioaren *barnatarzūnak*.

V.26, 27, 28. Jesū-Kristek erakusten deikū hitz horiez, pharte emanen diala bere haitatier, ez bakhoizki bere glorian, bena orano bere photerian.

V.28. *Goiz izarra* Jesū-Kristen beraren gloria.

III.Kap.4.V. *Sunekoak theütü ez-tütienak* erran nahi dü batheüko xahütarzūna begiratü dienak.

8.V. *Bortha idekirik*, sinhestegaben sarerazteko Jesū-Kristen Elizan.

12.V. Zelüko egongia Aingüriez eta saintiez eginik date, harri bizi batzüz bezala; eta orok ekharriko die *Jinkoaren Seme izena*.

18.V. *Süian garbitü ürhia* da karitatia.

20.V. Mintzo da arimaren *borthaz* non sarthü nahi belizate, hari gozerazteko bere adiskidegoaren eztitartzūna mündü huntan, eta bethiereko gloria zelian.

IV.K.4.V. Hoge eta laur zahar horik, doloren ustez, dira lege zaharreko eta berriko hoge eta laur saintü handienak.

6,7.VV. Laur abere horik dira, edo laur Ebanjelisten edo laur Profeta handien ütxürak.

8.V. *Sei hegal*. Isaia mintzo da sei hegal hoietzaz; *bigz begithartia gordatzen zien*, Jinkoarentako zien errespetia horrek erakusten deikü; *bigz zankhoak gordatzen zütien*, horrek ezagüterazten deikü haien aphaltentia eta obedientzia; *bigz hegaltatzen* ziren, horrek erazagützen beiteikü, Jinkoaren manien egiteko haien zalhetarzūna.

Begiek markatzen dütie haien argiak misterioen ezagützeko.

V.Kap.5.V. Jüdaren gizeliko lehoa, eta Dabiten zana, Jesū-Krist da.

6.V. Axuria da Jinko Seme gizon egina, khürütxen gañen hil dena eta arraphiztü bere heriotzeko herexeki. *Adarrek* erakusten die haren Espiritiaren indarra, *begiek*, argitarzūna.

VI.K.2.V. Elizako Erakaslek ikhusten die Jesús, zamari xurian jarri rik denian.

6.V. Ordüko dinerak oraiko hamar sos balia zian.

14.V. Lehenagoko libriak edo güthünak biribilkatürük begiratü ohi ziren.

VII.K.2.V. Jinko biziaren zeñharia da khürütxia edo khiristi marka.

3.-8.V. Heben Jinkoak erakusten dü, mündiaren ürhentzia heltü gabe, egiazko sinhestiala deithüren dütiaia jüdioak.

15.16.17.V. Bersetek zelüko dohaxien izatia erakusten die.

VIII. eta IX.K. Ez-ta lan huni emanik erakustia zer denbora, zoiñ gizon, eta zoiñ üzürri diren bi kapitülü hoietan aiphatzen direnak. Elizako Erakaslek hor ikhusten die, batek lehen khiristian persekütionen denbora, bestek Elizaren adin güzietako güdükak, borogiak eta gaitzak.

X.K.2.b. Güthün txipi hura Jinkoaren azken arrestaren libria da.

9.b. *Irex ezazü*, erran nahi da, barna gogoan ezar etzatzü Jinkoaren erranak.

10.b. Lehenik axegin da ikhustia Jinkoaren jüstiziarri eta gloriari zützen egiten; bena gero hainbeste gizonen galtzen ikhustiak kharasten dü bihotza.

XI.K.1,2.b. Tenploak zeñharatzen dü Jesū-Kristen Eliza; hartaz eta haren hurrez khuntü har dezan Jinkoak manhatzen dü aingüria; *heipia*, Elizatik kanpo den phartia: erran nahi da, sinhestegabe diren gizonak.

3.b. Bi jakiliak, Henok eta Elia, dira mündiaren ürhentzian jin behar dienak.

7.b. Lezetik igaiten den saia, Antekrist da, debrien gaistokeriaz eta ahalaz armatürük.

19.b. Jinkoaren patoko arka, Jesū-Krist bera da, hartan da Jinkoaren legia eta zelüko mana; saintien hazkürria eta siraxa.

XII.K.1.b. Emazte horrek üdüritzen dü Eliza Jesū-Kristen argiaz üngüratürük; hoin petan etxekitzen dü argizagia; erran nahi da gizonen arrazuaren argi flakia, khanbiakorra eta jesana; hamabi Apostoliak haren büriaren khoroa dira.

3. Heben markatürük dira Lüziferren eta haren lagün zelütik erorien errabia, bekhaitzteria eta güdükak Jinkoaren Elizaren kontre.

4. Seme sorthü dian hori Jesū-Krist da.

7. Güdüka hori mündiaren hastian izan da; berriz Jesū-Kristen Elizaren haxarrian; eta izanen da ere mündiaren ürhentzian.

6. eta 14. Elizaren haurrak perseküzione handien denboran ihesi doatza eta gordatzen dira basabazterretan.

15. Ühaitz hori da gaitz eta eskernio mota güzien üharria.

16. Lürak lagüntü dü Eliza; lürreko Printziak kunbertitü direnian eta Jesū-Kristen eta haren Elizaren aldia hartü dienian.

XIII.K.1. Sai hau Antekrist da: elkhiten da itxasotik, erran nahi da, mündü huntako ühain gaitzen artetik.

Zazpi büri, hamar adar eta khoroek erakusten die haren photeriaren hedadüra handia lürrian.



11. Bigerren sai hunek Axuriak bezalako bi adar bazütian, erran nahi da, erakспенaren edertarüzinaz eta miraküllü falxüz Elizaren kontre güdükatüren dela, eta gizonak inganaturüren dütiäla.

XIV.K.1. Sioneko mendiaren izenaz deithürük da ardüra Librü Sain-tietan Zelia, bai etare Jesü-Kristen Eliza.

8. Babilone izenian mintzo da Antekristen hiriaz. Erroma zen, Eli-zaren haxarrian Jesü-Kristen exaien hiria; han ziren Enperadore khiristien eskerniazale eta hilerazliak. Zoiñ izanen da azken denboretako Babilone handia, Antekristen hiria? Jinkoak daki. Eta heben emanik diren araeuz bere denboran gizonak ezagüt dezakeie.

18. Mahax molkho heien üdürüpenian gaistoak dira erakusten.

19. Jinkoaren khexüzko zügan handia ifernia da.

20. *Hiritik kanpo* iruxkirik da zügana, erran nahi da, zelüko Jerüsalemetik kanpo, ifernian.

Errumako estadak 185 kilometra igaranttorik dü. 1600 estadak egi-ten die 300 kilometraren üngürünia edo hirurhogei lekua.

XVI.21. Erraiten dü Jaundone Johaneke harri txitxer bakhhoitzak phezü ziala talentü bat. Hebrüen talentiak phezü zian laur hogeie eta zon-bait libera, gure kintaliaren hüllan; hartakoz, eta talentia ez-telakoz ezagütürük Üskal Herrian, ezari dügü *kintalia talentiaren* ordari.

XVII.1. Phüta handiaren izenian erazagützen da Paganoen Erroma, likhizkeria güzietan nahasia, Jinko falxü güzien adorazalia, Egiazko Jinko-aren exaia eta khiristien eskerniazalia eta erhailia. Babilone ere deithürük da, bere sinhestegabiaz, nahaskeriez eta Jinkoaren popüliaren kontre dian aiherküntiaz, üdüri beitü bestordüzko Babilone hiria, eta harek bezala izan behar beitü Jinkoaren jüstiziaz eta koleraz joik.

3. Sai gorri burhauzko izenez betherik den hori da Erromako bürü-zagigoaren hedadüra. Gorri da khiristien odolaz gorritü beita; burhauzko izenez betherik da, ihortaki-zonbat Jinko falxü ezagützen beitütü. Haren zazpi büriak dira zazpi Enperadore khiristien eskerniazale handienak. Hamar adarrak dira hamar popülü zoiñ nausitüren beitira Errumako erre-sumaz; Axuriak goithüren düti bere legiaren eta sinhestiaren haier besar-keraztez. Haiek erauziko eta erreraziko die Erruma paganoa.

XIX.7. Axuriaren ezteiak dira zelüko bethiereko dohaxütarzüna. Axuriaren ezkuntgeia da Eliza, arima jüsto güzien saldoa.

20. Sai hau eta basaprofeta dira Antekrist eta haren lagün belhagilia.

XX.3. *Mila urthe* heben erranik da urthe hanitxen erraiteko. Kons-tantien denboratik Antekristen denboralako tregoa hortan markatürük da.

4. Heben ere *mila urthez* markatürük da Antekristen jin aitzineko den-bora.

14. Bigerren heriotzia da, bethiko damnazionia; ezin hil eta ezin bizizko izate lazgarri hura.

XXI. Jerüsaleme berriaren izenian eta hiri baten arauian kapitülü huntan emaiten da dohaxien egongiaren üdürüpen bat.

XXII.1. Ühaitz horrek üdürützen düti sirax hunezko üharriak, Jin-koaganik dohaxietara zelian turrustatüko direnak.

2. Bizizko zühaña da Jesü-Krist; haren frütek, erran-nahi da merezi-mentiek, emaiten deiküie bethi bizitzeko indarra zelüko glorian. Haren erraner behatüz eta haren manien egitez hara hel gitiala. Halabiz.



ERAKASPEN KHIRISTIA I ATHARRATZEKO

**Aita Gaspar Astete Jesuitak erdaraz izkiribatia,
Inxauspe Kalunjiak Züberuko üskaralat ütülirik
Khiristi fidelen jakintsützekotan**

Bekhatore guzientako aholku huna

Utz ezazü bekhatoria
bekhatia bertarik;
Hürrün zite okasionetik
zuñtan beitzaude sarthurik.

Izan ditake gaurko gaien
Zure ohian hiltzia;
Baita bihar beno lehen
ifernietan sartzia.

Ütz ditzagün bizio hoik
zuñtan beikaude galdürrik;
Eta galtha pharkamentia
Jinkuari bihotzetik.

Libürü huntan erraiten dena
Sinhets eta egizü;
Zelüko glorian bethikoz
izan zitian dohatsü.

Khürütxe Sainiaren siñaliaz gure etsaietarik begira gitzatzü gure
Jaun eta Jinkua.

Aitaren eta Semiaren eta Espiritu Sainiaren izenian. Halabiz.

Pater noster

Gure Aita Zelieta zirena, erabil bedi Saintüki zure izena; jin bekigü
zure erresuma; egin bedi zure boronthatia zelian bezala lürrian ere; igüzü
egün gure egüneko ogia; eta pharka itzagützü gure zorrak, gük guri zordü-
ner pharkatzen deitzegun bezala; eta ezkitatzula utz tentazionetan eror-
tera; bena begira gitzatzu gaitzetik. Halabiz.

Salütätzen zütüt, Maria, graziaz bethia; Jauna zureki düzü; benedi-
katü zira emazte güzien artian; eta benedikatü düzü zure sabeleko frutia,
Jesus. Maria Santa, Jinkuaren Ama, zük othoi egizü gü bekhatorengatik
orai eta gure hiltzeko orenian. Halabiz.

Credoa

Sinhesten dut Jinko Aita orophoteretsian, Zeliaren eta lürraren
Kreazalian; eta Jesü-Khrist haren Seme bakhoitz gure Jaunian: zuñ kun-
zebitü beitzen Espiritü Sainiaren, sorthü Maria Birjinaganik; sofritü zian
Ponzio Pilatüsen pian; kruzifikatü zien, hil zen, ehortzi zien; jaitsi zen
ifernietara, hirurgerren egünian hiletarik phiztü zen; igañ zen Zeliatarat,
han dago jarririk Jinko Aita orophoteretsiaren alde esküñian; hantik jinen
da bizien eta hilen jujatzera. Sinhesten dü Espiritü Sainian, Eliza Santa
Katolika, Sainien phartelantarzüna, bekhatien pharkamentia, aragiaren
phiztia, bethi irañen dian bizitzia. Halabiz.

Salvea

Salütätzen zütügü, Erregiña, miseriardiaren Ama, gure bizia, ezti-
tarzüna eta esperantza, salütätzen zütügü. Zuri oihüz gaudetzü Ebaren
haur desterratiak; zureganat hasperenez gaudetzu, auhen eta nigarretan,
nigarrezko ibar huntan. Eia arren, gure arartekaria, zure begi miseriordi-
diazko horik gureganat ütül etzatzü. Eta Jesús zure sabeleko frütü bene-
dikatia erakuts ezagüzü desterrü huntarik elkhi giratekienian. O bihotz
bera! O urrikalsia! O ezti, Birjina Maria! Othoi egizu guregatik Jinkuaren
Ama Santa; diño izan gitian Jesü-Khristek hitzemanen ardiesteko. Halabiz.



Kofesatzen niz Jinko orophoteretsiari, Maria bethi Birjina dohatsiari, Migel Arkanjelu dohatsiari, Johane Batista dohatsiari, Phetiri eta Phaule Apostolü dohatsier, Saintü güzier, eta zuri ene aita, egin beitüt sobera bekhatü gogoz, hitzez eta obraz; ene faltaz, ene faltaz, ene falta handiaz. Hartakoz othoitzen düt Maria bethi Birjina dohatsia, Migel Arkanjelu dohatsia, Johane Batista dohatsia, Phetiri eta Phaule Apostolü dohatsiak, Saintü güziak eta zü ene Aita, othoi dezazien enegatik gure Jinko Jauna.

Kontrizionezko aktia

Jesü-Khrist ene Jauna, Jinko eta gizun egiazkua, ene Kreazalia eta Arreroslia, zu zirena zirelakoz eta maite beitzütü gaiza güzien gañetik, dolü dizüt, Jauna, ene bihotz oroz zü ofensatüz; hartzen dit xede zin bat ez haboro bekhatürük egiteko, kofesatzeko, emanen zaitan penitentiaren kunplitzeko eta hürrüntzeko bekhatü egiteko okasione güzietarik. Eskentzen deitzüt ene bizia, ene obra eta nekiak ene bekhatien satisfazionetako; esperantza dizüt zure huntarzün eta miserikordia mügagabian pharkatuko deiztatzüla, zure odol baliusaren, pasioniaren eta heriotziaren merezimentengatik; eta emanen deitazüla grazia hobeki bizitzeko eta iraiteko zure zerbützü saintian, hiltzeko orenialano. Halabiz.

Kontrizionezko aktia Frantziako gisan

Ene Jinko maitia, pharkamentü eskatzen nitaizau umilki ene bekhatü güziez; dolü eta bihozmin dizüt zure amurekatik zeren oro hun zirelarik ofensatü zütüdan, eta hartzen dizüt xede zin bat ez haboro bekhatürük egiteko zure graziareki batian; egin dütüdan ez osoki kofesatzeko eta emanen zaitan penitentiaren kunplitzeko.

Hamar maniak

Jinkuaren legero maniak dira hamar: Lehen hirurak Jinkuaren uhuriari dauzkonak, eta beste zazpiak hürko lagunaren ekhoizpenari.

Lehena: Jinkuaren maithatzia gaiza güzien gañetik.

Bigerrena: Haren izen Saintiaren ez jüratzia auherki.

Hirurgerrena: Iganten eta Besten Santifikatzia.

Laurgerrena: Aita eta Amen uhurtzia.

Bostgerrena: Ihuren ez ehaitia.

Seigerrena: Lohikeriarik ez egitia.

Zazpigerrena: Ez ebastia.

Zortzigerrena: Jakilegoa falsürük ez eraikitia eta gezürrik ez erraitia.

Bederatzigerrena: Besteren emazterik ez güdiziatzia.

Hamargerrena: Besterenik gaizki beretü ez nahi ükheitia.

Ber maniak Frantziako gisan

1. Jinko bakhoitz bat adora ezazü, eta maitha orotangainti.
2. Jinkuaz zinik eginen eztüzü ez beste gaizaz auherki.
3. Igantiak begira etzatzü Jinkua zerbützatüz debotki.
4. Aita eta Ama uhura etzatzü bizi zitian lüzazki.
5. Ihur obraz ehoren eztüzü ez nahikuntez gaistoki.
6. Lohikeriarik eginen eztüzü obraz ez gogoz likhiski.
7. Besterena ebatsiko eztüzü ez edükiko injüstoki.
8. Etzira izanen jakile falsü, ez behinere gezürti.
9. Emazte atzerik eztüzü güdiziatüko lizunki.
10. Besteren huna eztüzü zuretu nahiko gaizki.

Hamar manü hoik zerratzen dira bitan: Jinkuaren zerbütatzian eta maithatzian gaiza güzien gañetik, eta hürko lagunaren maithatzian gihaur bezala.



Fedezko artiküliak

Fedezko artiküliak hamalaur dira: Lehen zazpiak Jinkotarzünari dauzkonak; eta beste zazpiak Jesü-Khrist gure Jaun, Jinko eta Gizun egiazkuaren Gizuntarzün Sainiari dauzkonak.

Jinkotarzünari dauzkonak dira hoik:

Lehena: Sinhestia Jinko orophoteretsü bakhoitz batian.

Bigerrena: Sinhestia Aita dela.

Hirurgerrera: Sinhestia Seme dela.

Laurgerrena: Sinhestia Espiritu-Saintu dela.

Bostgerrena: Sinhestia Kreazale dela.

Seigerrena: Sinhestia Salbazale dela.

Zazpigerrena: Sinhestia Glorifikazale dela.

Gizuntarzün Sainiari dauzkonak dira hoik:

Lehena: Sinhestia Jesü-Khrist gure Jauna gizun bezala kunzebitürik izan zela Espiritü Sainiaren obraz.

Bigerrena: Sinhestia sorthü zela Maria Birjina Sainiaganik, hau Birjina zagolarik erdi aitzinian, erditzian eta erdi unduan.

Hirurgerrera: Sinhestia hartü zütiala Heriotzia eta Pasionia gü behatoren salbatziagatik.

Laurgerrena: <Sinhestia> jaitsi zela ifernietara, eta haren heltze Sainiaren haidürü ziren arima justuak elkhi zütiala.

Bostgerrena: Sinhestia phiztü zela hiletarik hirurgerren egünian.

Seigerrena: Sinhestia igañ zela Zelietarat eta jarririk dagola Jinko Aita orophoterexiaren esküñian.

Zazpigerrena: Sinhestia jinen dela bizien eta hilen jujatzera: huner gloriaren emaiteko, begiratu dütükielakoz haren manü Sainiak; eta gais-tuer bethiereko phenaren, eztütükielakoz begiratü.

Erakaspen Khiristia

**Jakitate Khiristiaren esplikazionia
galthoz eta ihardestez**

GALTHUA. Khiristi zireia?

I HARDESTIA. Bai, Jinkuaren graziaz.

G. Nurganik ükhen düzü Khiristi izen Saintü hori?

I. Jesü-Khrist gure Jaunaganik.

G. Zer erran nahi da Khiristia?

I. Khristen gizuna.

G. Zer gogoratzen düzü Khristen gizunaz?

I. Jesu-Khristen fedia diana Batheyian errezebitürik eta obligatürik dena haren zerbützü Sainiiala.

G. Zuñ da Khiristiaren siñalia?

I. Khürütze Sainia.

G. Zergatik?

I. Zeren den Khirst kruzifikatiaren üdüria, baita Khürützian arrero-si beiküntian.

G. Zunbat gisatara Khiristiak egiten dü señale hori?

I. Bitara, Jauna.

G. Zuñ dira?

I. Khürützatzia eta Zeñhatzia.

G. Zer da Khürützatzia?

I. Esküñeko eskiaren erhi behatzaz hirur khürützeren egitia: lehena belarrian, bigerrena ahuan, hirurgerrena bulharrian, mintzo girelarik gure Jinko Jaunari.

G. Erakuts ezazü nula?

I. Khürütze Sainiaren Siñaliaz, gure etsaietarik begira gitzatzü gure Jauna eta Jinkua.

G. Zertako Khürützatzen düzü belarra?

I. Jinkuak begira gitzan gogokunde gaistuatarik.

G. Zertako ahua?

I. Jinkuak begira gitzan elhe gaistuatarik.

G. Zertako bulharra?

I. Jinkuak begira gitzan egitate eta nahikunte gaistuatarik.

G. Zer da zeñhatzia?

I. Esküñeko bi erhiez khürütze baten egitia, borontetik bulharriala, eta eiskerreko suñetik esküñekuala, mintzatzen girelarik Trinitate ezinago Sainiari.

G. Eia nola?

I. Aitaren eta Semiaren eta Espiritü-Sainiaren izenian. Halabiz.

G. Nuiz egin behar düzie Khürütziaren siñale hori?

I. Zunbat obra hunen egitera guatzanian, edo gerthatzen girenian beharrune, tentamentu edo langer zunbaitetan; berheziki ohetik jaiki-tzian, etxetik elkhitzian, Elizan sartzian, jaterakuan eta etzaterakuan.



- G. Zertako hainbeste aldiz?
 I. Zeren lekhü eta ordü güzietan gure etsaiak oldartzen eta jarraiki-
 ten beitzazkü.
 G. Zuñ etsai dira hurak?
 I. Mundia, debria eta aragia.
 G. Arren Khürütziak badizü berthüte etsai horien kuntre?
 I. Bai, Jauna.
 G. Nuntik dü berthute hori?
 I. Jesü-Khristek Khürützian bere hiltziaz garhaitü düتيالakoz.
 G. Khürützia adoratzan düzünian zer erraiten düzü?
 I. Adoratzan zütügu, Jesüs, eta benedikatzan, zeren zure Khürütze
 Siantiaz arrososi beittüzü mundia

Jakitate Khiristiaren zathibederak

Ikhusi dizügü Khiristi zirela Khiristiaren izenetik eta señaletik, erran
 izadazü orai:

- G. Zunbat gaizaren jakitera obligatü da Khiristia ezagützetara hel-
 denian?
 I. Laur gaizaren.
 G. Zuñ dira?
 I. Zer behar dian sinhetsi, zer galthatü, zer egin eta zer hartü.
 G. Nula jakinen dü zer sinhetsi behar dian?
 I. Credoaren eta fedezko artikülien ikhastez.
 G. Nula jakinen dü zer behar dian galthatü?
 I. Gure Aitaren eta Elizaren beste othoitzan ikhastez.
 G. Nula jakinen dü zer behar dian egin?
 I. Jakitez zuñ diren Jinkuaren maniak, Eliza Ama Siantarenak eta
 miserikordiazko obrak.
 G. Nula jakinen dü zer behar dian hartü?
 I. Eliza Ama Siantaren Sakramentia ezagütüz.

Jakitate Khiristiaren lehen phartia, zuñtan eraksten beittira Kredoa eta Fedezko artikuliak

- G. Errazü: Nurk egin dü Kredoa?
 I. Apostoliek.
 G. Zertako?
 I. Guri Fede Siantüko gaizen erakasteko.
 G. Eta zük zertako erraiten düzü?
 I. Khiristiek dügün fede haren aithortzeko.

- G. Zer da fedia?
 I. Ikhusi eztügünaren sinhestia.
 G. Ikhusi düzia Jesu-Khrist sortzen?
 I. Ez, Jauna.
 G. Ikhusi düzia hiltzen edo Zeliatarat igaiten?
 I. Ez, Jauna.
 G. Eta horik sinhesten düttüzü?
 I. Bai, Jauna, sinhesten ditit.
 G. Zergatik?
 I. Zeren Jinkuak Eliza Ama Siantari ezagüterazi beittütü eta honek
 eraksten beiteizkü.
 G. Zuñ gaiza dira Khiristi bezala edükitzen eta sinhesten düttüzünak?
 I. Errumako Eliza Ama Siantak edükitzen eta sinhesten düttianak.
 G. Zuñ gaiza dira harek eta zük edükitzen eta sinhesten düttüzienak?
 I. Fedezko artiküliak, berheziki Credoan direnak.
 G. Zer dira Fedezko artiküliak?
 I. Hurak dira fediatan misterietarik gehienak.
 G. Zertako dira Fedezko artiküliak?
 I. Jinko gure Jaunaren et Jesü-Krist gure Arrosoliaren ezagützeko.
 G. Zer da Jinkua?
 I. Jinkua da, erran eta phensa daitekian beno hobiago eta amiraga-
 rriago den bat; ezinago hun, photeretsü, jakintsü eta justo den Jaun bat,
 gaiza guzien hatsarria eta helbüria.
 G. Zer da Trinitate Siantia?
 I. Hura da Jinkua bera: Aita, Semia eta Espiritü Siantia, hirur persü-
 na berhezi eta Jinko egiazko bakhoitz bat.
 G. Aita Jinko da?
 I. Bai, Jauna.
 G. Semia Jinko deia?
 I. Bai, Jauna.
 G. Espiritü-Siantia Jinko da?
 I. Bai, Jauna.
 G. Hirur Jinko direia?
 I. Ez, Jauna; ezta Jinko egiazko bakhoitz bat baizik.
 G. Aita Semia da?
 I. Ez, Jauna.
 G. Espiritü Siantia Aita da edo Semia?
 I. Ez, Jauna.
 G. Zergatik?



- I. Zeren persunak berhezi beitira, Jinko egiazko bakhoitz bat delarik.
 G. Nulaz da Jinkua orophoteretsü?
 I. Zeren bere photeriareki egiten beitü nahi dian güzia.
 G. Nulaz da Kreazale?
 I. Zeren ezdeusetarik egin beitütü gaiza güziak.
 G. Nulaz da Salbazale?
 I. Zeren emaiten beitü grazia eta pharkatzen beitütü bekhatiak.
 G. Nula da Glorifikazale?
 I. Zeren haren grazian iraiten dianari emaiten beitü gloria.
 G. Jinkuak badia gük bezala khorphitz ütürarik?
 I. Jinko bezala ez, Izpiritü huts delakoz; bena bai Gizun bezala.
 G. Trinitate Sainduko persunetarik zuñ Gizun egin da?
 I. Bigerrena, zuñ beita Semia.
 G. Aita Gizun egin da?
 I. Ez, Jauna.
 G. Espiritü Saindua Gizun egin da?
 I. Ez, Jauna.
 G. Zuñ arren?
 I. Semia bera, zuñ Gizun eginik deitzen beita Jesü-Krist.
 G. Holatan nur da Jesü-Krist?
 I. Jesü-Krist da Jinko biziaren Semia, guri bizitzen erakastiagatik eta gure arerostiagatik gizun egin dena.
 G. Zer erran nahi da Jesüs?
 I. Salbazale.
 G. Zertarik Salbatü gütü?
 I. Gure bekhatütik eta debriaren menpetik.
 G. Zer erran nahi da Krist?
 I. Untatia.
 G. Zertaz izan da untaturik?
 I. Espiritü Saindiaren dohañez eta graziez.
 G. Jesü-Krist gure Jauna nula konzebitü zen eta sorthü Maria Birjigananik?
 I. Jinkuaren miraküllüzko eta senthagallazko egitatiaz.
 G. Nula egin zen mirakulluzko (sic) obra hura?
 I. Espiritü Saindiak Ama Birjinaren erraietako odol garbienaz muldatü zian khorphitz bat; ezdeusetarik kreatü zian arima bat; arima eta khorphitz hurak, algarrekin batürrik, jüntatu zütüzün Trinitateko bigerren persunari; eta ordartio Jinko baizik etzena Jinko eta Gizun baratü züzün.
 G. Jesu-Kristen Ama bethi egon da Birjina?

- I. Bai, Jauna, egon düzü bethi Birjina.
 G. Zergatik Jesu-Krist hil nahi izan da Khürütixian?
 I. Bekhatütik eta heriotzetik gure libratziagatik.
 G. Zer gogoratzen düzü Jesü-Krist hil unduan jaitsi zen Iferniaz?
 I. Eztizüt gogoratzen damnatien egon-lekhia, bena bai linbua, justuen egongia, zuñ orano deitzen beita Abrahamen kholkua.
 G. Nula jaitsi zen?
 I. Arima Jinkotarzünari jüntatürrik.
 G. Eta haren khorphitza nula baratu zen?
 I. Hura ere ber Jinkotarzünari jüntatürrik.
 G. Nula phiztü zen hirurgerren egünian?
 I. Haren Khorphitza eta Arima gloriiaz betherik algarreki jüntatzen zirelarik gehiago ez hiltzeko.
 G. Nula igañ zen Zelietarat?
 I. Bere ahalaz.
 G. Zer erran nahi da «Han dagola jarririk Aita Eternalaren eskünian?»
 I. Jinko bezala badiala Aitak bezañbat gloria; eta gizun bezala beste güziek beno haboro.
 G. Nuiz jinen da biziaren eta hilen jujatzera?
 I. Mündiaren ürhentzian.
 G. Eta ordian behar dieia hil güziek arraphiztü?
 I. Bai, Jauna, leheneko khorphitz eta arima bereki.
 G. Zer sinhesten düzü erraiten düzünian «Sinhesten düüt saintien phartelantarzüna?»
 I. Khiristi fidel güziek badiela pharte besten huntarzüin izpiritüal-tan, khorphitz batén beraren menbro bezala, zuñ beita Eliza.
 G. Zer da Eliza?
 I. Eliza düzü Khiristi fidel guzien bilzarria, zuñen büria Aita Saindua beita.
 G. Nur da Aita Saindua?
 I. Errumako Aphez Nausia, Jesu-Kristen ordaria lurrian, zuñi oro obligaturik beikira obeditzera.
 G. Kredotik eta Artikülietarik gañeran, sinhesten düzia beste zunbait gaiza?
 I. Bai, Jauna, Eskritura Saindian den guzia, eta Jinkuak Elizari ezagüterazi deitzonak oro.
 G. Zuñ dira gaiza hurak?



I. Hori ez eni galtha, zeren ni inorant beiniz. Eliza Ama Sainiaki badutu dotorrak, ihardesten dakikeienak.

N. Untsa diozu dotorrer dagela eta ez zuri Fedezko gaiza güziez khuntü emaitia, aski düzü zuretako Kredoa diren artiküliez khuntü eman dezazun.

**Jakitate Khiristiaren bigerren zathia
zuñtan erakasten beitura galthatü behar diren
gaizak eta Eliza Ama Sainiaren othoitziak**

Ikhusi dizügü nula dakitzün sinhetsi behar dütüzünak, hori beita lehen gaiza; guatzan bigerreniala zuñ beita galthatü behar dütügünen jakitia.

G. Errazu: Nurk erran zian Gure Aita?

I. Jesü-Kristek, Jauna.

G. Zertako?

I. Guri othoitzen erakasteko.

G. Zer da othoitzia?

I. Jinkuaganat bihotzaren altxatzia, eta haren hunkien galthatzia.

G. Gure Aita erraitian nureki mintzo zira?

I. Gure Jinko Jaunareki.

G. Nun da Gure Jinko Jauna?

I. Lekhü orotan, berheziki Zelian eta althareko Sakramentü Sainiaren.

G. Zuñ da othoitzerik hobena?

I. Gure Aita, Jauna.

G. Zergatik?

I. Zeren Jesu-Kristek berak erran beitzian Apostoliek galthatürük.

G. Zergatik orano?

I. Zeren beitadüzka zazpi galtho Karitate osuan fundatürük direnak.

G. Zuñ dira?

I. Lehena: Erabil bedi Sainiari zure izena.

G. Zer galthatzen düzü othoi hortan?

I. Jinkuaren Izena izan dadin ezagutürük eta uhuratürük mundü orotan.

G. Zuñ da bigerrena?

I. Zure erresuma jin bekigü.

G. Zer galthatzen düzü othoi hortan?

I. Jinkua jabe, errege izan dadin heben lurrian gure arimetan bere graziaz; eta gero eman dizagün bere gloria.

G. Zuñ da hirurgerrena?

I. Egin bedi zure boronthatia Zelian bezala lurrian ere.

G. Zer galthatzen düzü othoi hortan?

I. Jinkuaren boronthatia egin dezagün lurrian gaudenek, Zelian dohatsiek egiten dien bezala.

G. Zuñ da laugerrena?

I. Igüzü egün gure egüneko ogia.

G. Zer galthatzen düzü othoi hortan?

I. Jinkua eman dizagün khorpitzeko hazkürri behar dügüna, eta ari-arentako graziazko eta Sakramentietako janhari izpiritüala.

G. Zuñ da bostgerrena?

I. Pharka itzagützü gure ogenak, guk guri ogen egiler pharkatzen dügün bezala.

G. Zer galthatzen düzü othoi hortan?

I. Jinkuak pharka ditzagün gure bekhatiak hala nula güik pharkatzen beitätü guri gaizki egiler.

G. Zuñ da seigerrena?

I. Ezkitatzüla utz tentazionetan erortera.

G. Zer galthatzen düzü othoi hortan?

I. Jinkuak ezkitzan utz erortera, ez eta konsentitzera demoniuk bekhatiala eroreraztiagatik igorten deizkün gogokunde eta tentazione gaistoetan.

G. Zuñ da zazpigerrena?

I. Bena begira gitzatzü gaitzetik.

G. Zer galthatzen düzü othoi hortan?

I. Jinkuak begira gitzan arimako eta khorpitzeko langer eta gaitz güziatarik.

G. Zertako erraiten düzü lehenik: Gure Aita Zelieta zirena?

I. Jinkuaganat bihotzaren altxatzeko eta haren othoitzeke umilitate eta kunfidantzareki.

G. Zer erran nahi da Amen, ürhentzian erraiten düzün hitz hori?

I. Hala biz, edo hala izan dadila.

G. Zuñ dira Ama Birjinari berheziki egiten dütüzün othoitziak?

I. Salutatzen zütüt eta Salve.

G. Nurk erran zian: Salutatzen zütüt?

I. Sen Gabriel Aingüriak, jin zenian Ama Birjinaren salutatzer.

G. Nurk erran zian Salve?

I. Eliza Ama Sainiak hartü dü.

G. Zertako?



- I. Ama Birjinari haren hunkien galthatzeko.
 G. Salutatzen zütüt edo Salve erraiten düzünian nureki mintzo zira?
 I. Birjina Maria dohatsiareki.
 G. Nur da Birjina Maria?
 I. Andere bat da berthütez bethia, Jinkuaren ama dena eta Zelian

dagona.

- G. Eta zer da Altharian dena?
 I. Zelian denaren ütürä edo üdüripen bat.
 G. Zertako da altharian?

I. Haren ikhustiak orhiteraz dizagün Zelian dena; eta haren ütürä eta üdürä delakoz uhura dezagün.

- N. Ber gaiza egin behar da beste Saintien imajiner eta erlekier.
 G. Behar dütügia othoitu Ainguriak eta Saintiak?
 I. Bai, Jauna, gure arartekuak bezala.
 G. Zer dira Aingüriak?

- I. Aingüriak dira izpiritü dohatsü eli bat Jinkua Zelian gozaten dianak.
 G. Zertako Jinkuak kreatü zütian?
 I. Eternitate güzian bere laidatzeko eta benedikatzeko.
 G. Zertako orano?

I. Haren ministro bezala Elizaren gobernatzeko eta gizunen begiratzeko.

- G. Zük arren badüzü Aingürü begirari bat?
 I. Bai, Jauna, eta bakhotxak badü beria.

Gomendia. Ukhazü arren debozione handi bat harentako, eta gomenda zakitzo egün oroz.

Jakitate Khiristiaren hirurgerren zathia zuñtan erakasten beita zer egin behar den

Ikhusi dizügü zer behar düzün sinhetsi eta galthatü; ikhus dezagün orai zer egin behar düzün.

- G. Errazü: Zuñ da Jinkuaren legeko lehen mania?
 I. Jinko bakhoitz bat adora ezazü, eta maitha osoki.
 G. Nurk maithatzen dü Jinkua osoki?
 I. Haren maniak begiratzen dütianak.
 G. Zer da Jinkuaren osoki maithatzia?
 I. Nahiago ukheitia gaiza guziak galdü eziez Jinkua ofensatu.
 G. Zertara orano obligatzen gütü manü hunek?

I. Haren beraren adoratzera khorpitzeko eta arimako errespetü handienareki, hartan zinez sinhetsiz eta esperantza hartüz.

- G. Nurk bekhatü egiten du manü hunen kuntre?
 I. Jinko faltsietan sinheste hartzen dianak eta hurak adoratzen.
 G. Nurk orano?

I. Superstizioe edo aztikerietan sinheste hartzen dianak, eta haier hersatzen denak.

- G. Zuñ da bigerren mania?
 I. Eztezala jüramentürük ez zinik egin auherki.
 G. Nurk egiten du jüramentü auherki?
 I. Jüratzen dianak egiazen edo justiziaren kuntre, eta beharrik gabe.
 G. Eta bekhatü deia kreatüre jüratzia?
 I. Bai, Jauna, zeren haietan Kreazaliaz jüratzen beita.
 G. Zer erremedio da jüramentü auherrik ez egiteko?
 I. Kostümatzia erraitera ez edo bai, Jesü-Khristek erakasten deikün

bezala.

- G. Zuñ da hirurgerrena?
 I. Igantiak begira etzatzü, Jinkua zerbütatzüz debotki.
 G. Nurk begiratzen dütü igantiak eta bestak?
 I. Meza osua entzüten dianak eta beharrik gabe traballatzen eztenak.
 G. Zuñ da laugerren mania?
 I. Aita eta Ama uhura etzatzü bizi zitian lüzazki.
 G. Nurk uhuratzen dütü Aita eta Ama?
 I. Obeditzen, sokhorritzen eta errespetatzen dütianak.
 G. Besterik nur sartzen düzü Aita eta Amaren izenian?
 I. Adinez, handigoaz eta bürüzagiguaz gure gañeko direnak.
 G. Zuñ da bostgerrena?

- I. Ihur obraz ehoren eztüzü ez nahikuntez gaistoki.
 G. Zer manhatzen deikü manü horrek?
 I. Ihuri gaizkirik ez egitia, ez hitzez, ez obraz, ez desirez.
 G. Zuñ da seigerren mania?
 I. Lohikeriarik eginen eztüzü obraz ez gogoz likhiski.
 G. Zer manhatzen da manü huntan?
 I. Izan gitian garbi eta xahü hitzez, obraz eta gogokuntez.
 G. Zuñ da zazpigerren mania?
 I. Besterena ebatsiko eztüzü ez edükiko injüstoki.
 G. Zer manhatzen da manü huntan?

I. Ez hartzia, ez edükizia ez eta ere nahi ükheitia besteren gaiza, jabiaren nahiaren kuntre.



G. Zuñ da zortzigerren mania?

I. Etzira izanen jakile faltsü ez behinere gezürti.

G. Zer manhatzen da manü huntan?

I. Egiaren kuntre ez mintzatzia; protsimu lagünaz ez arhinki gaizki jüjatzia, edo erraitia, eta gaizki mintzazaler ez behatzia.

G. Nurk bekhatü egiten dü manü hunen kuntre?

I. Arhinki, aski arrazu gabe gaizki jüjatzen dianak, fama khentzen, segretia agertzen, eta gezür erraiten.

G. Zer debetatzen da bederatzü eta hamargerren manietan?

I. Aragiaren plazeren eta besteren huntarzünen nahikunte gaistuak.

Eliza Ama Saintaren maniak dira bost

Lehena: Igante eta bestetan Meza osuaren entzütia.

Bigerrena: urthian behin berere kofesatzia, edo lehenago hiltzeko lanjerian gerhatzen bada, edo komüniatü behar bada.

Hirurgerrera: Bazko garezumakueta Komüniatzia.

Laugerrena: Eliza Ama Saintak manhatzen dianian barurtzia.

Bostgerrena: Dextimen eta Primizien Jinkuaren Elizari phakatzia.

Ber maniak Franziako gisa

1. Meza Saintia entzün ezazü

Besta Igantetan debotki.

2. Bekhatiak kofesa itzatzü

urthian behin osoki.

3. Khorpitz Saintia errezebi ezazü

Bazkoz berere ümilki.

4. Laur thenporak, bijiliak barur itzatzu

eta Garezuma osoki.

5. Dextimak eta Primiziak phaka itzatzü Elizari xüxenki.

G. Zertako dira manü hoik?

I. Jinkuaren manien hobeki begiratzeko.

Obra miserikordiazkuak dirade hamalaur.

Zazpi izpiritüalak edo arimari dauzkonak;

eta beste zazpi korporalak edo khorpitzari dauzkonak

Zazpi izpiritüalak dira hoik:

Lehena: Eztakianari erakastia.

Bigerrena: Behar dianari kunsellu hun emaitia.

Hirurgerrera: Gaizki dabilanaren korrejitzia.

Laugerrena: Goitzarrenen pharkatzia.

Bostgerrena: Afligitien konsolatzia.

Seigerrena: Protsimu lagünaren hütsen eta flakezien pazentziareki egartia.

Zazpigerrena: Hilan eta bizientako Jinkuaren othoitzia.

Zazpi korporalak dira hoik:

Lehena: erien bisitatzia.

Bigerrena: gose denari jatera emaitia.

Hirurgerrera: egarri denari edatera emaitia.

Laugerrena: katibuen erostia.

Bostgerrena: bilaizien bezititza.

Seigerrena: Prauben eta pelegrien ostatatzia.

Zazpigerrena: hilen ehorztia.

G. Zergatik deitzen dira obra miserikordiazkuak?

I. Zer ezpeitira zor züzenez edo justiziaz.

G. Nuiz obligatzen ahal die bekhatiaren pian?

I. Gizun jakintsien arabera, beharrünia handi denian.

Jakitate Khiristiaren laugerren phartia

züñtan erakasten beütira

errezebitu behar diren Sakramentiak

Ikhusi dizugu zer behar düzün sinhetsi, galthatü eta egin; ikhus dezagün orai zer behar düzün errezebitü.

G. Erratzü Sakramentiak?

I. Eliza Ama Saintaren Sakramentiak dütüzü zazpi: lehen bostak dütüzü beharrezkuak, errezebitü behar direnak obraz edo desirez berere; zuñ gabe gizuna ezpeitaite salba, uzten badütü ezaxolkeriaz. Beste biak nahiarazkuak dira.

Lehena: Batheyia.

Bigerrena: Kunfirmazionia.

Hirurgerrera: Penitentzia.

Laugerrena: Khorpitz Saintia.

Bostgerrena: Oliadura.

Seigerrena: Ordena.

Zazpigerrena: Ezkuntzia.

G. Zer dira Sakramentiak?



I. Siñale ageri eli bat Jesü-Krist gure Jaunak establitürrik, haiez bere grazien eta berthüten guri emaiteko.

G. Zer da grazia?

I. Izate dibino bat zuñek egiten beitü gizuna Jinkuaren seme eta Zeluko primü.

G. Zuñ berthüte emaiten dütie Sakramentiek?

I. Berheziki hirur berthüte Theologalak.

G. Zuñ dira?

I. Fedia, Esperantza eta Karitatia.

G. Zer da Fedia?

I. Ikhusi eztügünaren sinhestia, Jinkuak hala erakatsi dialakoz.

G. Nurk bekhatü egiten dü Fediaren kuntre?

I. Gure Erlegioneko egia güziak sinhesten eztutianak, haietzaz düda dianak, eta bere faltaz ikhasten eztütianak.

G. Zer da Esperantza?

I. Zeluko gloriaren egurukitzia, Jinkuaren graziaren eta gure obra hunen medioz.

G. Nurk bekhatü egiten dü Esperantzaren kuntre?

I. Jinkuatan Esperantza galtzen dianak; Zeliaren irabaztera iseiätzen eztenak; eta Jinkua miserikordius delakoz bekhatü egiten dianak.

G. Zer da Karitatia?

I. Jinkuaren maithatzia gaiza güzien gañetik; eta protsimu lagüna gihaur bezala, hari eginez guri egin lizagün nahi günikiana.

G. Zertako da Batheyia?

I. Bekhatü orijinalaren khentzeko, bai eta batheiatzen denian aurkhi-tzen diren beste bekhatü güzien.

G. Zer da Bekhatü orijinala?

I. Hura da Adam gure Aitaganik eta Eba gure Amaganik sortzez ekhartan dügün bekhatü bat.

G. Nurk nahi batheia dezakia behar ordian?

I. Bai, Jauna.

G. Zer egin behar da untsa Batheiatzeko?

I. Behar da ixuri hur natürala batheiatürrik izan behar dianaren bürüngaña, erraiten delarik ber denboran: Nik batheiatzen zütüt Aitaren eta Semiaren eta Espiritü Sainiaren izenian.

G. Zertako da Konfirmazioneko Sakramentia?

I. Gure zintzeko eta azkartzeko Batheyian errezebitü dügün fedian.

G. Zertako da Penitentziako Sakramentia?

I. Batheiatüz geroz egin bekhatien pharkatzeko.

G. Zer bekhatü dira hurak?

I. Bekhatü murtalak eta benialak.

G. Zer da bekhatü murtala?

I. Hura da zerbaiten erraitia, egitia, phensatzia edo desiratzia Jinkuaren legiaren kuntre gaiza handitan.

G. Zertako deitzen da murtala edo hilkarria?

I. Zeren hilerazten beitü egiliaren arima.

G. Zunbat pharte dütü Penitentziako Sakramentiak bekhatü murta-laren khentzeko?

I. Hirur, Jauna.

G. Zuñ dira?

I. Bihotzeko dolümena, ahozko Kofesonia, eta obrazko sastifatzionia.

G. Bekhatü murtalian erorten den aldi oroz kofesatü behar deia ber-hala, bekhatiaren pharkamentiaren ükheiteko?

I. Hun lizate, bena ezta nesario.

G. Zer arren egin behar da?

I. Ükhen behar da bere bekhatiez egiazko dolümen bat, hobeki bizi-zeko xediareki eta kofesatzeko Elizak manhatzen dian denboran.

G. Zer da bekhatü beniala?

I. Hura da erraitia, egitia, phensatzia edo desiratzia Jinkuaren legia-ren kuntre gaiza txipitan.

G. Zergatik deitzen da beniala?

I. Zeren hartara gizuna aisa erorten beita eta hartakoz ehiki pharka-tzen beitzao.

G. Zunbat gisaz pharkatzen zaio?

I. Bederatzü gisaz, Jauna.

G. Zuñ dira?

I. Lehena: Mezaren entzütia.
Bigerrena: Komüniatzia.
Hirurgerrena: Kofesatzen niz erraitia.
Laurgerrena: Aphezküpiaren beneditzionia.
Bostgerrena: Hur benedikatia.
Seigerrena: Ogi benedikatia.
Zazpigerrena: Gure Aita erratia.
Zortzigerrena: Pheredikari behatzia.
Bederatzügerrena: Bulharrak joz pharkamentü galthatzia.

G. Zertako da Komünioneko Sakramentia?

I. Errezebitzen delarik behar bezala, arimaren hazkarritako eta gra-ziaren emendatzeko.



G. Zer errezebitzen düzü Komünioneko Sakramentü Saintian?
I. Jesü-Krist Jinko eta Gizun egjazkua, althareko Sakramentü Sain-
tian errealki dagona.

G. Zertako da Oliadürako Sakramentia?

I. Hirur gaizatako.

G. Zuñ dira?

I. Lehena: Bekhatiaren herexa eta undarren khentzeko.

Bigerrena: Arimari indar emaiteko etsaiaren tentazionen kuntre.

Hirurgerrrena: Khorpitzari osagarriaren emaiteko, arimarentako sori
bada.

G. Zertako da Ordenako Sakramentia?

I. Elizako ministruen egiteko eta kusekratzeko, halanula beitura
aphezak, diakriak eta sudiakriak.

G. Zertako da Ezkuntzeko Sakramentia?

I. Ezkuntzeko, eta ezkuntier behar diren grazien emaiteko bakian
algarreki bizi ditian eta haurrak Zelialatko haz ditzen.

Bekhatu kapitalak dira zazpi

Lehena: Urgullia.

Bigerrena: Abarizia.

Hirurgerrrena: Lohikeria.

Laurgerrena: Kolera.

Bostgerrena: Gormandiza.

Seigerrena: Bekhaizteria.

Zazpigerrena: Herabia.

G. Zergatik deitzen dutüzu Kapitalak? Gehienian zazpi murtalak
erraiten zaienak?

I. Deitzen dira kapitalak, direlakoz hoietarik sortzen diren bizio
hanitxen büriak, üthürriak eta herruak bezala; eta eztauke untsa murtalak
deitzia, hanitx aldiz benial baizik ezpeitira.

G. Nuiz dira murtal?

I. Direnian osoki Jinkuaren eta protsimu-lagunaren karitatiaren kuntre.

G. Nuiz dira osoki karitatiaren kuntre?

I. Hausten denian Jinkuaren edo Elizaren manü bat gaiza handitan.

G. Zer da Urgüllia?

I. Bestiak beno haboro izateko nahikunte desordenatü bat.

G. Zer da Abarizia?

I. Huntarzüentako amurio desordenatü bat.

G. Zer da Lohikeria?

I. Aragiazko plazer zikhiñen amurio desordenatü bat.

G. Zer da Kolera?

I. Mendekatzeko amurio desordenatu bat.

G. Zer da Gormandiza?

I. Jateko eta edateko amurio desordenatü bat.

G. Zer Bekhaizteria?

I. Besteren hunaren gaitzestia.

G. Zer da Herabia?

I. Untsaren egiteko gogo eskaza.

Zazpi bizio hoien kuntre badira zazpi berthute

Urgullia kuntre umiltarzüna.

Abariziaren kuntre nasaitarzüna.

Lohikeriaren kuntre xahütarzüna.

Koleraren kuntre Pazentzia.

Gormandizaren kuntre doitarzüna.

Bekhaizteriaren kuntre karitatia.

Herabiaren kuntre Agüdogua.

Arimaren etsaiak, zuñi ihesi egin behar beitätü hirur dira

Lehena, Mundia.

Bigerrena, Debria.

Hirurgerrrena, Aragia.

G. Nula ihesi egiten da mundiari?

I. Haren handikeriak eta banokeriak gütietsiz.

G. Nula ihesi egiten dügü debriari?

I. Othoitziaz eta humiltarzunaz.

G. Nula goithuren dügü aragia?

I. Baruraz eta khorpitz matatzez; hau da etsayik handiena, zeren
ezpeitiokegü gütarik khen aragia, bai aldiz mundia eta debria.

Berthüte teologalak dira hirur

Lehena, Fedia.

Bigerrena, Esperantza.

Hirurgerrrena Karitatia.

Berthüthe kardinalak edo moralak dira laur

Lehena, zühürtarzüna.

Bigerrena, xüentarzüna.



Hirurgerrena, indarra.
Laurgerrena, doitarzüna.

Khorpitzeko sendimentiak dira bost

Lehena, begiez ikhustia.
Bigerrena, beharriez entzütia.
Hirurgerrena, ahuaz txestatzia.
Laurgerrena, sudurraz urristatzia.
Bostgerrena, eskuz hunkitzia.

G. Zertako eman deizkü Jinkuak sendimentiak eta beste gañerako menbruk?

I. Orotzaz orotan zerbütxa dezagün.

Arimaren ahalak hirur dira

Lehena, orhitzapena.
Bigerrena, enthelegia.
Hirurgerrena, boronthatia.

G. Zertako Jinkuak eman deikü orhitzapena?

I. Hartzaz eta haren hunkiez orhitzeko.

G. Zertako eman deikü enthelegia?

I. Haren ezagutzeko eta hartzaz gogozkatzeko.

G. Zertako eman deikü boronthatia?

I. Jinkuaren maithatzeko gaiza güzien gañetik, eta protsimu lagüna-haren amorekatik.

Espiritü Sainiaren dohañak zazpi dira

Lehena, jakitatiaren dohaña.
Bigerrena, enthelegiaren dohaña.
Hirurgerrena, aholkiaren dohaña.
Laurgerrena, zühürtziaren dohaña.
Bostgerrena, indarraren dohaña.
Seigerrena, debozioniaren dohaña.
Zazpigerrena, Jinkuaren beldürraren dohaña.

Espiritü Sainiaren ekhoizpenak hamabi dira

Lehena, karitatia.
Bigerrena, bakia.
Hirurgerrena, gogohanditarzuna.
Laurgerrena, bihozberatarzuna.

Bostgerrena, fedia.
Seigerrena, bere nausigoa.
Zazpigerrena, boztario izpirituala.
Zortzigerrena, pazentzia.
Bederatzügerrena, huntarzüna.
Hamargerrena, ezititarzüna.
Hamekagerrena, modestia.
Hamabigerrena, xahütärzüna.

Dohatsütarzunak dira zortzi

1. Dohatsü dira gogoz praube direnak, haiena beita Zelietao erresuma.

2. Dohatsü dira eztiak, lurraren jabe izanen beitera.

3. Dohatsü dira nigarrez daudenak, hurak izanen beitera kunsolatürik.

4. Dohatsü dira untsaren gose eta egarri direnak, hurak aserik izanen beitera.

5. Dohatsü dira miserikordiusak, miserikordia eginik izanen beitaie.

6. Dohatsü dira bihotz xahiak, haiek Jinkua ikhusiren beitie.

7. Dohatsü dira baketiarrak, hurak izanen beitera deithürik Jinkuaren haurrak.

8. Dohatsü dira untsagatik goitzarren igurzten dienak, haiena beita Zelietao erresuma.

G. Orai zer erran dügü?

I. Zazpi dohatsütarzünak.

G. Zer dira horik?

I. Spiritü Sainiaren dohañen eta berthuten ekhoizpen hobenak.

G. Nur dira gogoz praube direnak?

I. Uhure ez aberastarzun handi ez txipirik desiratzen eztienuk.

G. Nur dira eztiak?

I. Khexüeriarik, ez eta haren igidüarak eztienuk.

G. Nula dira lurraren jabe?

I. Bere bürien nausi direlakoz.

G. Nur dira nigarrez daudenak?

I. Gozuer ukho egiten dienak, txipier ere.

G. Nur dira untsaren gose eta egarri direnak?

I. Bere eginbide güziak arraheinki egiten dutienak.

G. Nur dira miserikordiusak?



I. Bihozberatarzünenez betherik direnak arrotzeki ere.

G. Nur dira bihotz xahiak?

I. Bere pasionetan osoki mortifikatu direnak.

G. Nur dira baketiarrak?

I. Beren eta besten artian bakiaren edükizaliak.

G. Nur dira untsagatik goitzarren igurzten dienak?

I. Untsan zinki egoiten direnak, eskerniatürrik izanik ere.

G. Zergatik deitzen dira dohatsütarzünak?

I. Zeren horietan beitago mündü huntako irusitatia eta besteko esperantza.

Gizunaren laur azken ürhentbüriak

G. Zuñ dira gizunaren laur urhentbüriak?

I. Heriotzia, Jujamentia, Pharadusia eta Ifernia.

G. Zer da Heriotzia?

I. Arimaren khorpitzetik berhezta.

G. Zer da Jujamentia?

I. Jujamentia da Jinkuaren aitzinian agertzia egin den untsarentzat sariaren eta gaizkiarentzat gaztigiaren ükheiteko.

G. Nurat juaen da arima jüjaturik izan unduan?

I. Juaen da bethikoz edo pharadusialat edo ifernalat; edo denbora batentako purgatoriualat gero pharadüsan sartzeko.

G. Eta khorpitz zer eginen da?

I. Khorpitz egonen da lürrian mündiaren ürhentzialano; bena ordian jüntatüren da leheneko ber arimareki, haren bere zorthiaren ükheiteko.

G. Zer da pharadüsia?

I. Pharadüsia da Aingürientzat eta Jinkuaren grazian hil diren gizunentzat detsetürrik den dohatsütarzünenezko lekhü bat.

G. Zer da ifernia?

I. Ifernia da Debrientako eta bekhatü murtalezko estatian hil diren gizunentako detsetürrik den dohakabezko lekhü bat.

G. Zer da Purgatoriua?

I. Purgatoriua da graziazko estatian hil diren arimak duatzan lekhü bat, nun mündü huntako ordari eginen beitie bere bekhatiez satisfatzione osua.

G. Egin dezakegia gük satisfatzionerik Purgatoriuetan dauden arimen phenen llabürtzeko?

I. Bai, Jauna: Arima jüsto haien phenak llabür detzakegu, bai eta ere ürhent, gure othoitzez, barurez, amuinez; induljentziez eta berheziki Mezako Sakrifizio Saintiaz.

Induljentziez

G. Zer da Induljentzia?

I. Mündü huntan edo Pürgatoriuaren bekhatiengatik Jinkuari penitentiaz eman behar zaion satisfatzioniaren pharkamentia.

G. Nula irabazten da induljentzia?

I. Hunen irabazteko manhatzen diren gaizak eginez graziazko estatian.

G. Nula pharkatzen dütü Elizak bekhatari zor zaitzon phena tenporalak?

I. Guri eretxekiz Jesü-Kristen eta Saintien merezimentü soberanozkuak.

Inkarnazioneko misteriuaz

G. Zer da Inkarnazioneko misteriuaz?

I. Trinitate Saintüko bigarren Persunaren (zuñ beita Jinko Semia) gizun egitia, Maria Birjinaren sabelian, Espiritü Saintiaren obraz eta berthütez, Maria egon delarik Birjina erdi aitzinian, erditzian eta erdi unduan.

G. Zunbat natüra dütü Jesü Kristek?

I. Badütü bi natura, Jinkoarena eta gizunarena; badütü ere bi enthelegü eta bi boronthate; Persuna bat Jinko bezala, ezpeita Jesü-Kristetan persuna gizonezkorik; memoria bat gizun bezala, Jinko bezala gaiza güziak baitadüzka goguan; Aita baizik eztü Jinko bezala, hura da Aita eternala; Ama baizik eztü gizun bezala, zuñ beita Andere Dona Maria; eztü amarik Jinko bezala, ez aitarik gizun bezala.

G. Nun da Jesü-Krist?

I. Jinko bezala lekhü eta gaiza güzietan eta gizun bezala bakharrik Zelian eta Althareko Sakramentü Saintian.

G. Zuñ egüenez egin dira Jesü Kristen misterio gehienak?

I. Martxuaren hogeitau bostian kunzebitü zen Maria Birjinaren sabelian; sorthu zen eguberri gayian; hil zen ostirale saintuz; phiztü zen Bazko egünian; eta igorri zian Espiritü Saintia Apostolier Phentekoste egünian.

Kofesioniaz edo Kofesiuaz

G. Zunbat gaiza behar dira Kofesione hun baten egiteko?



I. Bost, Jauna.

G. Zuñ dira?

Lehena, Kuntzentziaren ikhertzia.

Bigerrena, Bekhatiez dolü eta bihozmin sürnatural baten phiztia.

Hirurgerrera, Haboro bekhatürük ez egiteko xede zin baten hartzia.

Laurgerrena, Bekhatü guzien, diren bezala, kofesatzia.

Bostgerrena, Penitentziaren egitia.

G. Zer da kuntzentziaren ikhertzia?

I. Azken kofesione hunaz geroz egin bekhatiez orhitzia.

G. Zertarik ikhertzen edo etsaminatzen da kuntzentzia?

I. Jinkuaren legeko hamar manietarik, Eliza Ama Sainiaren seietarik, miserikordiazko obretarik, bekhatü kapitaletarik eta nurk bere estatüko eginbidetarik.

G. Nula behar da ikhertü edo etsaminatu kuntzentzia?

I. Jinkuari graziak galthegin unduan, orhitü behar da nun eta nureki ebili den eta zer okasionetan ediren den; zer hüts egin dian manü bakhoxian eta bere estatüko eginbidetan.

G. Zunbat denbora behar da kuntzentziaren ikhertzeko?

I. Ezta denbora mügatürük; batbederak hartü behar dü aurkhitzen den kasien araura, egiteko inportanta delakoz hau.

G. Zer da ürriki edo dolumena?

I. Ürriki da bihozmin natürüz goragoko bat Jinkua ofensatüz.

G. Zunbat gisatako ürriki da?

I. Bi gisatako, Jauna.

G. Zuñ dira?

I. Kuntrizionia eta Atrizionia.

G. Zer da Kuntrizionia?

I. Kuntrizionia da dolü eta bihozmin natürüz gañeko bat, Jinkua ofensatüz, delakoz ezinago hun eta maithagarri; kofesatzeko eta haboro bekhatürük ez egiteko xede zin bateki.

G. Zer da Atrizionia?

I. Atrizionia da dolü eta bihozmin natürüz gañeko bat Jinkua ofensatüz, bekhatiaren itxustarzünagatik, Zelia galerazten eta ifernia merizitzen deikülakoz; kofesatzeko eta haboro bekhatürük ez egiteko xede zin bateki.

G. Zuñ da bi dolore hoietarik hobena?

I. Kuntrizionia, Jauna.

G. Zergatik?

I. Zeren Kuntrizioniak ardiesten beitiü bekhatien pharkamentia kofesatü beno lehen, Atrizioniak aldiz ez kofesatüz baizik.

G. Zer da Xede zina?

I. Gehiago bekhatürük ez egiteko gogo azkar bat.

G. Zer da Kofesua?

I. Kofesua da Apez kofesorari erraitia bekhatü murtal güzien, kuntzentzian aurkhitzen diren bezala, batere gorde gabe.

G. Nula behar dira bekhatiak kofesatü?

I. Behar dira garbiki aithortu manu bakhoxian egin bekhatu murtal guziak, gogoz, hitzez, egitatez, bai eta ere zirkunstanzia bekhatia handitzen dienak, edo haren suertia khanbiatzen.

G. Kuntzentzia behar bezala ikhertü faltaz, edo ahalkez, beldürrez edo gaiztokeriaz uzten bada bekhatu murtal bat kofesatzeko, kofesua hun datekia?

I. Ez, Jauna: Leheneko bekhatien gaña egiten da sakrilejio bat eta kofesio hura ere behar düke arraberritü.

G. Kofesua hun datekia, nahi gabe nurbati ahazten bazaio bekhatu murtal bat erraiteko?

I. Bai, Jauna: bena orhitzen balin bada, lehen kofesuan erran behar düke nula aitzinian ahazerik ützi zian bekhatü hura.

G. Bekhatü murtal bat kofesatzen bada düdazko bezala, eta gero orhitzen bada segürki egin zela; behar deia berriz kofesatü ber bekhatia segür bezala?

I. Bai, Jauna, zeren bekhatiek, orhitüz geroz, behar beitie erran diren bezala, eta segur ogendün denak aithortü behar beitu segur ogendün izan dela, pharkatürük izatekoz.

G. Bekhatü benialak kofesatü behar direia?

I. Hun da kofesa ditian, bena ezta nesasari.

G. Zer da satisfazionia?

I. Apez kofesorak emaiten dian penitentziaren egitia.

G. Nuiz behar da kunplitü penitentzia?

I. Kofesorak mügatzen badü ephia, ephe hartan; ezpadü mügatzen, ahal bezain laster.

G. Zer bekhatü egiten da penitentziaren ez kunplitzez?

I. Penitentzia handi bada eta üzten pharte handi bat bekhatia murtal dateke; penitentzia txipi bada, edo penitentzia handitik üzten pharte txipi bat, bekhatia benial dateke.

G. Nuiz dateke penitentzia handi?



I. Emaiten denian bekhatu murtalentako, edo bekhatü murtaleko bidetik hürrüntziagatik.

N. Kofesio hunaren egiteko kundzioner falta egiten bada jakinez, kofesioa gaisto eta sakrilejio dateke; eta salbatzekoz behar dirate kofesio gaisto guziak arraberritü kofesio jeneral batez.

Kofesatzeko muldiaz (Españako gisa)

G. Nula behar da kofesatü?

I. Kofesoraren huñetara beno lehen, belhaikatürük eginen da khürü-txiaren zeinharia, eta ahozpez jarririk erranen da «ni bekhortoria edo kofesatzan niz». Hau ürhentü unduan jeiki eta heltzen delarik kofesoraren huñetara erraiten da: Laidatü dela eta benedikatü althareko Sakramentu Saintia; edo Aita benedikata nezazü zeren egin beität bekhatü.

G. Zer egin behar da gero?

I. Erran unduan zunbat dian azkenik kofesatü dela eta absolüzionia ükhen, aithortüren dira bekhatü güziak ümilitate handireki.

G. Zer erran behar da bekhatiak agertü unduan?

I. Bekhatiak bederazka agertü unduan, erranen da: Gisa berian aküsatzan niz egündano egin dütdan bekhatü güziez; galtho egiten deiot Jinkuari pharkamentü, eta zuri, ene Aita izpiritüala, penitentzia eta absolüzione, sori bazait.

G. Penitentak ezpadü bekhatü murtalik aküsatzeko, zer egin behar dü?

I. Lehenago egin eta kofesatü dian bekhatü murtal bat aküsatüko dü; eta ezpadü, bekhatü benial phena gehienik egiten deion bat.

G. Zer egin behar da gero?

I. Ümilitate eta errespetüreki entzün unduan kofesoraren abisak eta penitentzia errezebitü, erraiten da ahozpetürük Kuntrizioezko aktia.

G. Zer egin behar da kofesatü unduan?

I. Ardüra goguan erabili kofesoraren erranak; gehiago bekhatürük ez egiteko xedia berritü; penitentzia hitzeman bezala kunplütü, eta Jinkuari eskerrak ützüli.

Komunioniaz

G. Zer da Ostian?

I. Aphezak kusekrazioneko hitzak erran artio ogia; Aphezak kusekrazioneko hitzak erran unduan Jesu-Kristen Khorpitz Dibinua hañ egiazki eta errealki nula Zelian.

G. Zer da Kalitzan?

I. Aphezak kusekrazioneko hitzak erran artio ardua hur txorta bateki; Aphezak kusekrazioneko hitzak erran unduan Jesu-Kristen odol baliusa.

G. Ostia Kusekratian edireiten da Jesu Kristen khorpitz bezala odola ere; eta Kalitzan odola bezala khorpitz ere?

I. Bai, Jauna, batian eta bestian edireiten dira Jesu-Kristen khorpitz, odola, arima eta Jinkotarzüna.

G. Ogitik eta arduetik ezteia deus baratzen kusekrazionaren unduan?

I. Ez, ezta deus baratzen ogiaren eta arduaren ütürak edo üdüriak baizik, nula beitera, muldia, koloria, urrina eta gozua.

G. Aphezak ogi edo ardu kusekratien üdüriak berhezten dütianian, hausten dia edo berhezten Jesu-Kristen khorpitz edo odola?

I. Ez, Jesu-Krist aurkhitzen da güzia berhezi den zathi bakhotxian; eta holatan Ostia zathi bat baizik errezebitzen eztiarak errezebitzen dü Jesu-Krist osorik, Ostia osoa hartzen dianak bezala; baita bardin Ostia eta arduaren üdürria hartzen dianak bezala.

Komunioneko dispozizioez

G. Zunbat gaiza behar dira Komunionen hun baten egiteko?

I. Hirur, Jauna.

G. Züñ dira?

I. Lehena: jakitia zer errezebitü behar den.

Bigerrena: osoki barur juaitia.

Hirurgerrena: graziako estatian izatia.

G. Zer errezebitzen du komüniatzen dianak?

I. Jesu-Krist gure Jauna, Jinko eta Gizun egiazkoa, Zelian dagona eta Althareko Sakramentü Saintian.

G. Zer enthelegatzen düzü barur juaitiaz?

I. Izan behar dela gaierdiz geroz jan eta edan gabe, nun ezten komüniatzen hiltzerako bezala.

G. Zer enthelegatzen düzü graziako estatian izatiaz?

I. Eztela behar izan bekhatü murtalezko eztiarian; eta hortakoz kuntzentzia untsa ikhertü unduan, ihurk aurkhitzen badü bere büria estatü triste hartan behar dü kofesio on batez xahatü.

G. Bekhatü murtalezko estatian komüniatzen dienek errezebitzen dieia Jesu Krist?

I. Bai, bena bere kundenazionetako, zeren egiten beitie sakrilejiozko bekhatü izigarri bat.



G. Nula hüllantü behar da Komüniatzera?

I. Uneski eta garbiki beztitürük, ümilitatereki, errespetüeki eta egiazko debozione bateki.

Komünioneko mementuaz

G. Zer erran behar da Aphezak Ostia Saintia eskian hartzen dianian?

I. Jauna, enüzu diño zure errezebitzeko, bena errazü hitz bat bera eta ene arima izanen düzü sendotürük.

G. Zunbat aldiz erran behar da?

I. Hirur aldiz, Jauna.

G. Eta gero zer erraiten da?

I. Jauna, zure eskietan ezarten düten ene arima.

G. Nula egon behar da Komüniatzeko mementuan?

I. Belhaikatürük eta begiak aphaltürük, bena Ostia Saintialat ützüürük, eta mihia peko ezpañen gaña elkhirik.

G. Zer egin behar da Ostia Saintia errezebitü unduan?

I. Aphezak eskia gibeltü dianian ahua zerratü behar da eta Ostia Saintia iretsi busti denian.

ERAKASPEN KHIRISTIA II

BAROXEKO

Aita Gaspar Astete Jesuitak

erdaraz izkiribatia,

Inxauspe Kalunjik

Barkoxe Züberuko üskaralat ützüürük

Khiristi fidelen jakintsützeko

Bekhatore güzientako aholkü huna

Utz ezazu bekhatoria
bekhatia bertarik,
Hurrun zite okasionetik
züñtan beitzaude sarthürük.

Izan ditake gaur gayin
zure ohin hiltzia,
Baita bihar beno lehen
Ifernitan sartzia.

Utz ditzagun bizio hoik
züñtan beikaude sarthürük
eta galtha pharkamentia
Jinkuri bihotzetik.

Liburu huntan erraiten dena
sinhets eta egizu
Zeluko glorian bethikoz
izan zitin dohatsü.

Khurutxe Saintiren + siñaliz gure + etsaietarik begira gitzatzü gure
+ Jauna eta Jinkua. Aitaren eta Semiren eta Espiritü Saintiren izenin.
Halabiz.



Pater Noster

Gure Aita Zelietan zirena erabil bedi saintüki zure izena; jin bekigü zure erresuma; egin bedi zure boronthatia Zelin bezala lurrin ere; iguzu egun gure eguneko ogia; eta pharka itzagutzu gure zorrak, guk guri zorduner pharkatzen deiegun bezala; eta ezkitatzüla utz tentazionetan erortera; bena begira gitzatzu gaitzetik. Halabiz.

Salütatzen zütüt, Maria, graziaz bethia, benedikatu zira emazte guzien artin eta benedikatu duzu zure sabeleko frutia Jesus. Maria Santa Jinkuren ama, zuk othoi egizu gu bekhatorengatik orai eta gure hiltzeko orenin. Halabiz.

Credoa

Sinhesten dut Jinko Aita orophoteretsin Zeliren eta lurraren kreazalin, eta Jesu-Krist haren Seme bakhotx gure Jaunin; zuñ kunzebitü beitzen Espiritü Saintiz, sorthü zen Maria Birjinaganik; sofritü zin Puntzio Pilatüsen pin, kruzifikatü zien; hil zen; ehortzi zien; jaitsi zen ifernietara; hirurgerren egünin hiletarik phiztü zen; igañ zen Zelietarat; han dago jarririk Aita orophoteretsiren alde eskuñin; hantik jinen da bizien eta hilen jüjatzera. Sinhesten <dut> Espiritü Saintin; Eliza Santa Katolika; Saintien phartelantarzüna, bekhatien pharkamentia, aragiren phiztia, bethi irañen din bizitzia. Halabiz.

Salvea

Salütatzen zütügü, Erregiña, miseriordiaren Ama, gure bizia, ezitartzüna eta esperantza, salütatzen zütügü. Zuri oihüz gautzü Ebaren deserratik; zureganat hasperenez gautzu auhen eta nigarretan, nigarrezko ibar huntan. Eia arren, gure arartekaria zure begi miseriordiazko horik zureganat ützü itzatzü. Eta Jesús zure sabeleko frütü benedikatia erakuts ezagüzü desterrü huntarik elkhi giratekienin. O bihotzbera! O urrikalsia! O ezta, Birjina Maria! Othoi egizü gügatik Jinkuren Ama Santa; diño izan gitin Jesu-Kristek hitzemanén ardiesteko. Halabiz.

Kofesatzen nüzü Jinko orophoteretsiri, Maria bethi Birjina dohatsiri, Phetiri eta Phaule Apostolü dohatsier, Saintü güzier eta zuri, ene Aita, egin beittüt bekhatü gogoz, hitzez eta obraz; ene faltaz, ene faltaz, ene falta handiz; hartakoz othoitzen dit Maria bethi Birjina dohatsia, Migel arkanjelü dohatsia, Jundane Juhane Batista, Phetiri eta Phaule Apostolü Saintik, Saintu güzik eta zü, ene Aita, othoi dezazien enegatik gure Jinko Jauna.

Kuntrizionezko Aktia

Jesü-Krist, ene Jauna, Jinko eta Gizun egiazkua, ene Kreazalia eta Arreroslia, zü zirena zirelakoz eta maite beitzütüt gaiza güzien gañetik, dolü dizüt, Jauna, ene bihotz oroz zü ofensatüz, hartzen dit xede zin bat ez haboro bekhatürik egiteko; kofesatzeko, emanen zaitan penitentiaren kunplitzeko, eta hürüntzeko bekhatü egiteko okasione güzietarik. Eskentzen deitzut ene bizia, ene obra eta nekik ene bekhatien satisfazionetako. Esperantza dit zure huntarzün eta miseriordia mugagabin pharkatüko deitzatzula, zure odol baliusaren, pasioniren eta heriotziren mereximientiengatik, eta emanen deitzüla grazia hobeki bizitzeko, eta iraiteko zure zerbützü Saintin, hiltzeko orenilano. Halabiz.

Kuntrizioneko aktia Frantziako gisa

Ene Jinko maitia pharkamentüskatzen nitaizü ümilki ene bekhatü güziez, dolü eta bihozmin dit zure amurekatik, zeren oro hun zirelarik ofensatü zütüdan, eta hartzen dit xede zin bat ez haboro bekhatürik egiteko zure graziareki batin; egin dütdanez osoki kofesatzeko eta emanen zaitan penitentiaren kunplitzeko.

Hamar manik

Jinkuren manik dira hamar. Lehen hirurak Jinkuren uhuriri dauzkonak eta beste zazpik protsimu lagünaren ekhoizpenari.
Lehena: Jinkuren maithatzia gaiza güzien gañetik.



Bigerrena: haren izen Saintiren ez juratzia auherki.
 Hirurgerrena: iganten eta bestén santifikatzia.
 Laurgerrena: aita eta amen uhurtzia.
 Bostgerrena: ihuren ez ehaitia.
 Seigerrena: lohikeriarik ez egitia.
 Zazpigerrena: ez ebastia.
 Zortzigerrena: jakilegoa falsurik ez eraikitia eta gezurririk ez erraitia.
 Bederatzerrena: besteren emazterik ez desiratua.
 Hamargerrena: Besterenik gaizki beretü ez nahi ükheitia.

Ber manik Frantziako mudan

1. Jinko baxhotx bat adora ezazü
Eta maitha orotangainti.
2. Jinkuz zinik eginen eztüzü
ez beste gaizaz auherki.
3. Igantik begira etzatzü
Jinkua zerbützatuz debotki.
4. Aita eta ama uhura etzatzü
bizi zitin luzazki.
5. Ihur obraz ehoren eztüzü
ez nahikuntez gaistoki.
6. Lohikeririk eginen eztuzu
obraz ez gogoz likhiski.
7. Besterena ebatsiko eztüzü
ez edükiko injüstoki.
8. Etzira izanen jakile faltsu
ez behinere gezürti.
9. Emazte atzerik eztüzü
desiratüko lizunki.
10. Besteren huna eztüzü
zuretü nahiko gaizki.

Hamar manü hoik zerratzen dira bitan: Jinkuren zerbützatzen eta maithatzen gaiza guzien gañetik, eta protsimu lagunaren maithatzen gihaur bezala.

Fedezko Artikülük

Fedezko Artikülük hamalaur dira: Lehen zazpik Jinkotarzünari dauzkonak; eta beste zazpik Jesü-Krist Gure Jaun, Jinko eta gizun egiazkuren Gizuntarzün Saintiri dauzkonak.

Jinkotarzünari dauzkonak dira hoik:
 Lehena: sinhestia Jinko orophoteretsu batin.
 Bigerrena: sinhestia Aita dela.
 Hirurgerrena: sinhestia Seme dela.
 Laurgerrena: sinhestia Espiritü Saintü dela.
 Bostgerrena: sinhestia Kreazale dela.
 Seigerrena: sinhestia Salbazale dela.
 Zazpigerrena: sinhestia Glorifikazale dela.

Gizuntarzün Saintiri dauzkonak hoik dira:
 Lehena: Jesü-Krist gure Jauna, gizun bezala kunzebitürük izan zela Espiritu Saintiren obraz.
 Bigerrena: sorthu zela Maria Birjina Saintaganik hau Birjina zagolarik, erdi aitzinin, erditzin eta erdi undun.
 Hirurgerrena: sinhestia hartu zutula heriotzia eta pasionia gu bekhatoren salbatzigatik.
 Laurgerrena: jaitsi zela Ifernitara, eta haren heltze saintiren haiduru ziren arima justuk elkhi zutula.
 Bostgerrena: sinhestia phiztü zela hiletarik hirurgerren egunin.
 Seigerrena: sinhestia igañ zela Zeliatarat eta jarririk dagola Jinko Aita orophoteretsiren eskuñin.
 Zazpigerrena: sinhestia jinen dela bizien eta hilen jüjatzera, huner gloriaren emateko begiratü dütükielakoz haren manu saintik; eta gaistuer bethiereko phenaren eztütükielakoz begiratü.

Erakaspen Khiristia

Jakitate Khiristiren esplikazionia galthoz eta ihardestez

GALTHUA. Khiristi zireia?

I HARDESTIA. Bai, Jinkuren graziaz.

G. Nurganik ükhen düzü Khiristi izen Saintü hori?



- I. Jesü-Krist gure Jaunaganik.
 G. Zer erran nahi da Khiristia?
 I. Kristen gizuna.
 G. Zer gogoratzen düzü Kristen gizunaz?
 I. Jesü-Kristen fedia dina Batheyin errezebitürük, eta obligatürük dena haren zerbützü saintila.
 G. Zuñ da Khiristiren Siñalia?
 I. Khürütxe Saintia.
 G. Zergatik?
 I. Zeren den Krist kruzifikatiren üdüria, baita khürütxin arrerosi beikuntin.
 G. Zunbat gisatara Khiristik egiten dü siñale hori?
 I. Bitara, Jauna.
 G. Zuñ dira?
 I. Khürütxatzia eta zeñhatzia.
 G. Zer da Khürütxatzia?
 I. Esküneko eskiren erhi behatzaz hirur Khürütxeren egitia, lehena belarrin, bigerrena ahun, hirurgerrena bulharrin, mintzo girelarik gure Jaunari.
 G. Erakuts ezazü nula?
 I. Khürütxe Saintiren + Siñaliz, gure etsaietarik + begira gitzatzü gure + Jauna eta Jinkua.
 G. Zertako Khürütxatzen düzü belarra?
 I. Jinkuk begira gitza gogokunde gaistuatarik.
 G. Zertako bulharra?
 I. Jinkuk begira gitza egitate eta nahikunte gaistuatarik.
 G. Zer da zeñhatzia?
 I. Eskü esküneko bi erhiez Khürütxe baten egitia borontetik bulharila eta eiskerreko suñetik eskünekula, mintzatzen girelarik Trinitate ezinago saintiri.
 G. Eia nula?
 I. Aitaren eta Semiren eta Espiritu-Saintiren izenin. Halabiz.
 G. Nuiz egin behar düzie khurutxiren siñale hori?
 I. Zunbait obra hunen egitera gutzanin, edo gerthatzen girenin behar-rune, tentamentu edo lanjer zunbaitetan; berheziki ohetik jaikitzin, etxetik elkhitzin, elizan sartzin, jaterakun eta etzaterakun.
 G. Zertako hainbeste aldiz?
 I. Zeren eta lekhü eta ordü güzietan gure etsaiak oldartzen eta jarraitzen beitzazkü.

- G. Zuñ etsai dira hurák?
 I. Mundia, Debria eta Aragia.
 G. Arren khürützik badizu berthute etsai horien kunte?
 I. Bai, Jauna.
 G. Nuntik du Berthute hori?
 I. Jesü-Kristek khurutxin bere hiltziz garhaitü dutilakoz.
 G. Khürütxia adoratzen düzünin zer erraiten düzü?
 I. Adoratzen zütügü Jesüs eta benedikatzen, zeren zure Khürütxe Saintiz arrerosi beitzü mundia.

Jakitate Khiristiren zathik edo phartik

Ikhusi dizügü Khiristi zirela Khiristiren izenetik eta señaletik, erran izadazu orai:

- G. Zunbat gaizaren jakitera obligatü da Khiristia ezagutzetara heltzen denin?
 I. Laur gaizaren.
 G. Zuñ dira?
 I. Zer behar din sinhetsi, zer galthatü, zer egin eta zer hartü.
 G. Nula jakinen du zer sinhetsi behar din?
 I. Kreduaren eta fedezko artikülien ikhastez.
 G. Nula jakinen du zer behar din galthatü?
 I. Gure Aitaren eta Elizaren beste othoitzen ikhastez.
 G. Nula jakinen du zer behar din egin?
 I. Jakitez, zuñ diren Jinkuren manik, Eliza Ama Saintarenak eta miserikordiazko obrak.
 G. Nula jakinen du zer behar din hartü?
 I. Eliza Ama Saintaren Sakramentik ezagütüz.

Jakitate Khiristiren lehen phartia

zuñtan erakasten beitera Kredua eta Fedezko Artikülik

- G. Errazü: Nurk egin du Kredua?
 I. Apostoliek.
 G. Zertako?
 I. Guri Fede Saintüko gaizen erakasteko.
 G. Eta zük zertako erraiten düzü?
 I. Khiristiek dügin fede haren aithortzeko.
 G. Zer da fedia?



- I. Ikhusi eztügünaren sinhestia.
 G. Ikhusi düzia Jesü Krist sortzen?
 I. Ez, Jauna.
 G. Ikhusi duzia hiltzen edo zeliatarat igaiten?
 I. Ez, jauna.
 G. Eta horik sinhesten dütüzü?
 I. Bai, Jauna, sinhesten ditit.
 G. Zergatik?
 I. Zeren Jinkuk Eliza Ama Saintari ezagüterazi beitütü eta hunek erakasten beiteizkü.
 G. Zuñ gaiza dira Khristi bezala edukitzen eta sinhesten dütüzinak?
 I. Errumako Eliza Ama Saintak edukitzen eta sinhesten dutinak.
 G. Zuñ gaiza dira harek eta zük edukitzen eta sinhesten dütüzienak?
 I. Fedezko artikulik, berheziki Kredun direnak.
 G. Zertako dira Fedezko artikulik?
 I. Jinko gure Jaunaren eta Jesu-Krist gure arrosoliren ezagützeko.
 G. Zer dira Fedezko Artikulik?
 I. Hurak dira Fediren misteriuatarik gehienak.
 G. Zer da Jinkua?
 I. Jinkua da erran eta phensa ditakin beno hobigo eta amiragarrigo den bat; ezinago hun, photeretsü, jakintsü eta jüsto den Jaun bat, gaiza güzien hatsarria eta ürhentburia.
 G. Zer da Trinitate Saintia?
 I. Hura da Jinkua bera; Aita, Semia eta Espiritü Saintia; hirur persuna berhezi eta Jinko egiazko bakhotx bat.
 G. Aita Jinko dá?
 I. Bai, Jauna.
 G. Semia Jinko deia?
 I. Bai, Jauna.
 G. Espiritü Saintia Jinko deia?
 I. Bai, Jauna.
 G. Hirur Jinko direia?
 I. Ez, Jauna, ezta Jinko egiazko bakhotx bat baizik.
 G. Aitá Semia deia?
 I. Ez, Jauna.
 G. Espiritü Saintia, Aitá da edo Semia?
 I. Ez, Jauna.
 G. Zergatik?
 I. Zeren persunak berhezi beitira, Jinko egiazkoa bat delarik.

- G. Nulaz da jinkua orophoteretsü?
 I. Zeren bere photerireki egiten beitu nahi din güzia.
 G. Nulaz da Krezale?
 I. Zeren ezdeusetarik egin beitütü gaiza güzik.
 G. Nulaz da Salbazale?
 I. Zeren emaiten beitu grazia, eta pharkatzen beitütü bekhatik.
 G. Nula da Glorifikazale?
 I. Zeren haren grazian iraiten dinari emaiten beitu gloria.
 G. Jinkuk badia guk bezala khorpitz ageririk?
 I. Jinko bezala ez, Izpiritü xahü delakoz, bena bai gizun bezala.
 G. Trinitate Saintüko persunatarik zuñ gizun egin da?
 I. Bigerrena, zuñ beita Semia.
 G. Aitá gizun egin deia?
 I. Ez, Jauna.
 G. Zuñ arren?
 I. Semia bera, zuñ gizun eginik deitzen beita Jesü-Krist.
 G. Holatan nur da Jesu-Krist?
 I. Jesü-Krist da Jinko biziaren Semia, guri bizitzen erakastigatik eta gure arrostigatik gizun egin dena.
 G. Zer erran nahi da Jesus?
 I. Salbazale.
 G. Zertarik salbatu gütü?
 I. Gure bekhatütik eta debriren esklabajetik.
 G. Zer erran nahi da Krist?
 I. Untatia.
 G. Zertaz izan da untatürik?
 I. Espiritü Saintiren dohañez eta graziez.
 G. Jesü-Krist gure Jauna nula kunzebitü zen, eta sorthü Maria Birjigananik?
 I. Jinkuren mirakülluzko egitatiz.
 G. Nula egin zen mirakülluzko obra hori?
 I. Espiritü Saintik Ama Birjinaren erraietako odol garbienaz muldatü zizün khorpitz bat; ezdeusetarik kreatü zizün arima bat; arima eta khorpitz hurak algarreki jüntaturik Trinitate Saintuko bigerren persunari batü zütüzun, eta ordartio Jinko baizik etzena Jinko eta gizun baratü zuzun.
 G. Jesü-Kristen Ama bethi egon deia Birjina?
 I. Bai, Jauna, bethi egon düzü Birjina.
 G. Zergatik Jesü-Krist hil nahi izan da khürütxin?
 I. Bekhatütik eta heriotzetik gure libratzigatik.



G. Zer enthelegatzen düzü Jesü-Krist hil undun jaitsi zen Iferniz?
I. Eztat enthelegatzen damnatien egonlekhia, bena bai linbua jüstuen egongia, zuñ orano deitzen beita Abrahamen kholkua.

G. Nula jaitsi zen?

I. Arima Jinkotarzünari jüntatürük.

G. Eta haren khorpitz nula baratü zen?

I. Hura ere ber Jinkotarzünari jüntatürük.

G. Nula phiztü zen hirurgerren egünin?

I. Haren khorpitz eta arima gloriáz betherik algarreki jüntatzen zire-larik gehiago ez hiltzeko.

G. Nula igañ zen Zelietarat?

I. Bere ahalaz.

G. Zer erran nahi da han dagola jarririk Aita Eternalaren eskuñin?

I. Jinko bezala badila Aitak bezañ bat gloria, eta gizun bezala beste diren güziek beno haboro.

G. Nuiz jinen da bizien eta hilen jüjatzera?

I. Mündiren ürhentzin.

G. Eta ordin behar dieia hil güziek arraphiztu?

I. Bai, Jauna, leheneko khorpitz eta arima bereki.

G. Zer sinhesten düzü erraiten düzünin: «Sinhesten düüt Saintien phartelantarzuna?»

I. Khiristi fidel güziek badiela pharte bestén huntarzün izpiritüale-tan, khorpitz baten beraren membro bezala zuñ beita Eliza.

G. Zer da Eliza?

I. Eliza düzü fidel güzien bilzarria, zuñen büria Aita Saintia beita.

G. Nur da Aita Saintia?

I. Errumako Aphez nausia, Jesü Kristen ordaria lürrin, zuñi oro obli-gatürük beikira obeditzera.

G. Kredotik eta artikulietarik gañeran sinhesten düzia beste zunbait gaiza?

I. Bai, Jauna, Eskritüra Saintin den güzia, eta Jinkuk Elizari ezagute-razi ditzonak oro.

G. Zuñ dira gaiza hurak?

I. Hori eni ez galtha, ni iñorant beniz. Eliza Ama Saintak baditizü dotorrak ihardesten dakikeienak.

N. Untsa diozü dotorrer dagela, ez zuri fedezko gaiza güziez khuntü emaitia; aski düzü zuretako Kredun diren Artiküliez khuntü eman dezazün.

Erakaspen Khiristiren bigerren phartia zuñtan ikhasten beitura galthatu behar diren gaizak eta Eliza Ama Saintaren othoitzik

Ikhusi dizügü nula dakitzün sinhetsi behar düütüzünak, hori beita lehen gaiza; gutzan bigerrenila, zuñ beita galthatü behar düütügünen jakitia.

G. Errazu: nurk erran zin Gure Aita?

I. Jesü-Kristek, Jauna.

G. Zertako?

I. Guri othoitzen erakasteko.

G. Zer da othoitzia?

I. Jinkuren ganat bihotzaren altxatzia eta haren hunkien galthatzia.

G. Gure Aita erraitin nureki mintzo zira?

I. Gure Jinko Jaunareki.

G. Nun da gure Jinko Jauna?

I. Lekhü orotan, berheziki Zelin eta Althareko Sakramentü Saintin.

G. Zuñ da othoitzerik hobena?

I. Gure Aita, Jauna.

G. Zergatik?

I. Zeren Jesü-Kristek berak erran beitzin Apostoliek galthatürük.

G. Zergatik orano?

I. Zeren edükiten beitu zazpi galtho, Karitate osun fundatürük dire-nak.

G. Zuñ dira?

I. Lehena, erabil bedi Saintüki zure izena.

G. Zer galthatzen duzu othoitze hortan?

I. Jinkuren izena izan dadin ezaguturik eta uhuratürük mündü orotan.

G. Zuñ da bigerrena?

I. Zure erresuma jin bekigü.

G. Zer galthatzen düzü othoi hortan?

I. Jinkua jabe eta errege izan dadin heben lürrin bere graziaz gure ari-metan, eta gero eman dizagin bere gloria.

G. Zuñ da hirurgerrena?

I. Egin bedi zure boronthatia Zelin bezala lurrin ere.

G. Zer galthatzen düzü othoi hortan?

I. Jinkuren boronthatia egin dezagin lürrin gaudenek Zelin doha-siek egiten dien bezala.

G. Zuñ da laurgerrena?



- I. Igüzü egün gure egüneko ogia.
 G. Zer galthatzen düzü othoi hortan?
 I. Jinkuk eman dizagün khorpitzarentako behar dügün hazkürria, eta arimarentako graziako eta Sakramentietako janhari izpiritüala.
 G. Zuñ da bostgerrena?
 I. Pharka itzagützü gure ogenak gük guri ogenegiler pharkatzen dügün bezala.
 G. Zer galthatzen düzü othoi hortan?
 I. Jinkuk pharka ditzagün gure bekhatik halanula gük pharkatzen beitügü guri gaizki egiler.
 G. Zuñ da Seigerrena?
 I. Ezkizatzüla ütztentazionetan erortera.
 G. Zer galthatzen düzü othoi hortan?
 I. Jinkuk ezkitzan ütztentazionetan erortera ez eta kunsentitzera demuniuk bekhatila eroreraztigatik igorten deizkün phensamentü eta tentazione gaistotetan.
 G. Zuñ da zazpigerrena?
 I. Bena begira gitzatzü gaitzetik.
 G. Zer galthatzen düzü othoi hortan?
 I. Jinkuk begira gitzan arimako eta khorpitzeko langer eta gaitz güzietarik.
 G. Zertako erraiten düzü lehenik: Gure Aita zelietan zirena?
 I. Jinkuganat bihotzaren altxatzeko eta haren othoitzeko umilidade eta kunfidantza handireki.
 G. Zer erran nahi da Amen, urhentzin erraiten düzün hitz hori?
 I. Halabiz edo hala izan dadila.
 G. Zuñ dira Ama Birjinari berheziki egiten dütüzün othoitzik?
 I. Salutatzen zütüt eta Salve.
 G. Nurk erran zin Salutatzen zütüt?
 I. Sen Gabriel Aingürük, jin zenin Ama Birjinaren salutatzeraz.
 G. Nurk erran zin Salve?
 I. Eliza Ama Saintak hartü dü.
 G. Zertako?
 I. Ama Birjinari haren hunkien galthatzeko.
 G. Salutatzen zütüt edo Salve erraiten düzünin nureki mintzo zira?
 I. Birjina Maria dohatsireki.
 G. Nur da Birjina Maria?
 I. Andere bat berthutez bethia, bekhatu gabe kunzebiturik izan dena, Jinkuren Ama dena eta Zelin dagona.

- G. Eta zer da Altharin dena?
 I. Zelin denaren ütixüra edo üdüripen bat.
 G. Zertako da Altharin?
 I. Haren ikhustik orhiteraz dizagün Zelin dena; eta haren ütixüra edo üdürria delakoz uhura dezagün.
 N. Ber gaiza egin behar da beste Saintien imajiner edo erlekier.
 G. Behar dütügia othoitu aingürük eta Saintik?
 I. Bai, Jauna, gure arartekuk bezala.
 G. Zer dira Aingürük?
 I. Aingürük dira Izpiritü dohatsu batzü, Jinkua Zelin gozatzen dienak.
 G. Zertako Jinkuk kreatu zütin?
 I. Eternitate güzin bere gozatzeko, laidatzeko eta benedikatzeko.
 G. Zertako orano?
 I. Haren ministro bezala Elizaren gobernatzeko eta gizunen begiratzeko.
 G. Zuk arren badüzü Aingürü begirari bat?
 I. Bai, Jauna, eta badü bakhotxak beria.
 Gomendia -Ükhazü arren debozione handi bat harentako eta gomenda zakitzo egün oroz.

Jakitate khiristiren hirurgerren phartia zuñtan erakasten beita zer egin behar den

- Ikhusi düzü zer behar düzün sinhetsi eta galthatü; ikhus dezagün orai zer egin behar düzün.
 G. Errazü: zuñ da Jinkuren legeko lehen mania?
 I. Jinko bakhotx bat adora ezazü eta maitha osoki.
 G. Nurk maithatzen dü Jinkua osoki?
 I. Haren manik begiratzen dutinak.
 G. Zer da Jinkuren osoki maithatzia?
 I. Nahigo ükheitia gaiza guzik galdü eziez Jinkua ofensatü.
 G. Zertara orano obligatzen gütü manü hunek?
 I. Haren beraren adoratzera khorpitzeko eta arimako errespetü handienareki, hartan zinez sinhetsiz eta esperantza hartüz.
 G. Nurk bekhatü egiten du manü hunen kuntre?
 I. Jinko falsietan sinheste hartzen dinak eta hurak adoratzen.



G. Nurk orano?

I. Süperstizioe edo aztikerietan sinheste hartzen dinak eta haier her-satzen denak.

G. Zuñ da bigerren mania?

I. Eztezala jüramentürik egin ez zinik auherki.

G. Nurk egiten dü jüramentü auherki?

I. Jüratzen dinak egiaren edo justiziaren kuntre eta beharrik gabe.

G. Eta bekhatü deia kreatürez jüratzia?

I. Bai, Jauna, zeren haietan kreazaliz jüratzen beita.

G. Zer erremedio da jüramentü auherrik ez egiteko?

I. Kostümatzia erraitera ez edo bai, Jesü-Kristek erakasten deikün bezala.

G. Zuñ da hirurgerrera?

I. Igantik begira etzatzü Jinkua zerbützatüz debotki.

G. Nurk begiratzen dütü Igantik eta bestak?

I. Meza osoa entzützen dinak eta beharrik gabe traballatzen eztenak.

G. Zuñ da laurgerren mania?

I. Aita eta Ama uhura etzatzü bizi zitin lüzazki.

G. Nurk uhuratzen dütü Aita eta Ama?

I. Obeditzen, sokhorritzen eta errespetatzen dutinak.

G. Besterik nur sartzen düzü Aita eta Amaren izenin?

I. Adinez, goraguaz eta büüzagiguaz gure gañeko direnak.

G. Zuñ da bostgerrena?

I. Ihur obraz ehoren eztüzü ez nahikuntez gaistoki.

G. Zer manhatzen deikü manü horrek?

I. Ihuri gaizkirik ez egitia, ez hitzez, ez obraz, ez desirez.

G. Zuñ da Seigerrena?

I. Lohikeriaren eginen eztüzü obraz ez gogoz likhiski.

G. Zer manhatzen da manü huntan?

I. Izan gitin garbi eta xahü, hitzez, obraz eta gogokuntez.

G. Zuñ da zazpigerren mania?

I. Besterena ebatsiko eztüzü ez edükiko injüstoki.

G. Zer manhatzen da manu huntan?

I. Ez hartzia, ez edükitia ez eta ere nahi ükheitia besteren gaiza, jabi-
ren nahiren kuntre.

G. Zuñ da zortzigerren mania?

I. Etzira izanen jakile falsü ez behinere gezürti.

G. Zer manhatzen da manü huntan?

I. Egjaren kuntre ez mintzatzia; protsimu lagünaz ez arhinki gaizki
jüjatzia edo erraitia, eta gaizki mintzazaler ez behatzia.

G. Nurk bekhatü egiten dü manü hunen kuntre?

I. Arhinki, aski arrazu gabe gaizki jüjatzien dinak, fama khentzen,
segretia agertzen eta gezür erraiten.

G. Zer debetetzen da bederatzü eta hamargerren manietan?

I. Aragiren plazeren eta besteren huntarzunén nahikunte gaistuk.

Eliza Ama Saintaren manik dira bost:

Lehena: Igante eta bestetan meza osuren entzütia.

Bigerrena: urthin behin berere kofesatzia, edo lehenago hiltzeko lan-
jerin gerthutzen bada, edo komüniatü behar bada.

Hirurgerrera: Bazko garezumakuetan komüniatzia.

Laurgerrena: Eliza Ama Saintak manhatzen dinin barurtzia.

Bostgerrena: detximak eta primiziak Jinkuren Elizari phakatzia.

Ber manik Franziaiko gisa

1. Meza Saintia entzün ezazü

Besta Igantetan debotki.

2. Bekhatik kofesa itzatzü

urthin behin osoki.

3. Khorpitz Saintia errezebi ezazü

Bazkoz berere ümilki.

4. Laur thenporak, Bijiliak barur itzatzü

eta Garezuma osoki.

5. Detximak eta primiziak phaka itzatzü

Elizari xüxenki.

G. Zertako dira manü hoik?

I. Jinkuren manien hobeki begiratzeko.

Obra miseriakordiazkuk dira hamalaur:

Zazpi izpiritüalak edo arimari dauzkonak, eta beste zazpi korporalak
edo khorpitzari dauzkonak.

Zazpi izpiritüalak dira hoik:

Lehena: eztakinari erakastia.

Bigerrena: behar dinari kunsellü hun emaitia.

Hirurgerrera: gaizki dabilanaren korrejitzia.

Laurgerrena: goitzarrenen pharkatzia.

Bostgerrena: afljitiien kunsolatzia.



Seigerrena: protsimu lagünaren hütšen pazentziareki egartia.
Zazpigerrena: hilen eta bizientako Jinkuren othoitzia.

Zazpi korporalak dira hoik:

Lehena: erien bisitatzia.

Bigerrena: gose denari jatera emaitia.

Hirurgerrena: egarri denari edatera emaitia.

Laugerrena: katibuen erostia.

Bostgerrena: bilaizien beztitzia.

Seigerrena: prauben eta pelegrien ostatatzia.

Zazpigerrena: hilen ehortzia.

G. Zergatik deitzen dira obra miserikordiazkuk?

I. Zeren ezpeitira zor züzenez edo jüstiziaz

G. Nuiz obligatzen ahal die bekhatiren pin?

I. Gizun jakintsien arabera beharrünia handi denin.

Jakitate Khiristiren laurgerren phartia zuñtan erakasten beütira errezebitü behar diren Sakramentik

Ikhusi dizügü zer behar düzün sinhetsi, galthatü eta egin; ikhus dezagün orai zer behar düzün errezebitü.

G. Erratzü Sakramentik?

I. Eliza Ama Saintaren Sakramentik dütüzü zazpi: Lehen bostak dütüzü beharrezkuk, errezebitü behar direnak obraz edo desirez berere zuñ gabe gizuna ezpeitaite salba, ützen badütü ezaxolkeriaz; beste biak nahiarazkuk dütüzü.

Lehena: Batheyia.

Bigerrena: Kunfirmazionia.

Hirurgerrena: Penitentzia.

Laugerrena: Khorpitz Saintia.

Bostgerrena: Oliadüra.

Seigerrena: Ordena.

Zazpigerrena: Ezkuntzia.

G. Zer dira Sakramentik?

I. Siñale ageri eli bat, Jesü-Krist gure Jaunak establütürik, haiez bere grazien eta berthütän guri emaiteko.

G. Zer da Grazia?

I. Izate dibino bat zunek egiten beütü gizuna Jinkuren Seme eta Zelüko primü.

G. Zuñ berthüte emaiten dütie Sakramentiek?

I. Berheziki hirur Berthüte Theologalak.

G. Zuñ dira?

I. Fedia, esperantza eta karitatia.

G. Zer da Fedia?

I. Ikhusi eztugunaren sinhestia Jinkuk hula erakatsi dilakoz.

G. Nurk bekhatu egiten du Fediren kuntre?

I. Gure Erlejoneko egia güzik sinhesten eztutinak, haietzaz düda dinak; eta bere faltaz ikhasten eztutinak.

G. Zer da Esperantza?

I. Zelüko gloriaren egurukitzia, Jinkuren graziaren eta gure obra hunen medioz.

G. Nurk bekhatü egiten esperantzaren kuntre?

I. Jinkutan esperantza galtzen dinak, Zeliren irabaztera iseiätzen eztenak; eta Jinkua miserikordius delakoz bekhatü egiten dinak.

G. Zer da Karitatia?

I. Jinkuren maithatzia gaiza güzien gañetik, eta protsimu lagüna gihaur bezala, hari eginez guri egin lizagün nahi gunükina.

G. Zertako da Batheyia?

I. Bekhatü originalaren khentzeko, bai eta batheyatzen denin aurkhitzen diren beste bekhatü güzien ere.

G. Zer da bekhatü originala?

I. Hura Adam gure Aitaganik eta Eba gure Amaganik sortzez ekhar-ten dügün bekhatia.

G. Nurknahi batheia dezakia behar ordin?

I. Bai, Jauna.

G. Zer egin behar da untsa Batheiatzeko?

I. Behar da ixuri hur natürala batheiatürik izan behar dinaren бүрүн-гаña erraiten delarik ber denboran: Nik batheiatzen zütüt Aitaren eta Semiren eta Espiritü Saintiren izenin. Halabiz.

G. Zertako da Kunfirmazioneko Sakramentia?

I. Gure zintzeko eta azkartzeko batheyin errezebitu dügün fedin.

G. Zertako da Penitentziatzko Sakramentia?

I. Batheiatüz geroz egin bekhatien pharkatzeko.

G. Zer bekhatü dira hurak?

I. Bekhatu murtalak eta benialak.

G. Zer da Bekhatü murtala?



I. Hura da zer baiten erraitia, egitia, phensatzia edo desiratzia Jinkuren legiren kuntre gaiza handitan.

G. Zertako deitzen da murtala edo hilkarria?

I. Zeren hilerazten beitu egiliren arima.

G. Zunbat pharte dütü Penitentziatzko Sakramentik bekhatü murta-laren khentzeko?

I. Hirur, Jauna, Bihotzeko dolumena, ahozko kofesioa, eta obrazko Sastifatzioa.

G. Bekhatü murtalin erorten den aldi oroz kofesatu behar deia berhala bekhatiren pharkamentiren ükheiteko?

I. Hun lizate bena ezta nesario.

G. Zer arren egin behar da?

I. Ukhen behar da bekhatiez egiazko dolümen bat, hobeki bizitzeko xedireki eta kofesatzeko Elizak manhatzen din denboran.

G. Zer da bekhatü beniala?

I. Hura da erraitia, egitia, phensatzia edo desiratzia Jinkuren legiren kuntre gaiza txipitan.

G. Zergatik deitzen da beniala edo pharkagarria?

I. Zeren hartara gizuna aisa erorten beita; eta hartakoz eiki pharkatzen beitzia.

G. Zunbat gisaz pharkatzen zaio?

I. Bederatzü gisaz, Jauna.

G. Zuñ dira?

I. Lehena: Mezaren entzütia.

Bigerrena: Komüniatzia.

Hirurgerrena: Kofesatzen niz erraitia.

Laugerrena: Aphezküpiren beneditzioa.

Bostgerrena: Hur benedikatia.

Seigerrena: Ogi benedikatia.

Zazpigerrena: Pheredikiri behatzia.

Zortzigerrena: Gure Aita erraitia.

Bederatzügerrena: bulharrak joz pharkamentü galthatzia.

G. Zertako da Komünioneko Sakramentia?

I. Errezebitzen delarik behar bezala, arimaren hazgarritako eta graziaren emendatzeko.

G. Zer errezebitzen düzü Komünioneko Sakramentü Sainthin?

I. Jesü Krist Jinko eta gizun egiazkua, Althareko Sakramentü Sainthin egiazki dagona.

G. Zertako da Oliadürako Sakramentia?

I. Hirur gaizatako.

G. Zuñ dira?

I. Lehena: bekhatiren herexa eta undarren khentzeko.

Bigerrena: arimari indar emaiteko etsaiaren tentazionen kuntre.

Hirurgerrena: khorpitzari osagarriaren emaiteko arimarentzat sori bada.

G. Zertako da Ordenako Sakramentia?

I. Elizako ministruren egiteko eta kusekratzeko halanula beitura Aphezak, Diakrik eta Soudiakrik.

G. Zertako da Ezkuntzeko Sakramentia?

I. Lejitimoki ezkuntzeko, eta ezkuntier behar diren grazien emaiteko bakin algarreki bizi ditin eta haurrak Zelialatko haz ditzen.

Bekhatü kapitalak dira zazpi:

Lehena: Ürgüllia.

Bigerrena: Abarizia.

Hirurgerrena: Lohikeria.

Laugerrena: Kolera.

Bostgerrena: Gormandiza.

Seigerrena: Bekhaizteria.

Zazpigerrena: Herabia.

G. Zergatik deitzen dutuzu kapitalak?

I. Deitzen dira kapitalak direlako hoietarik sortzen diren bizio hani-txen burik, uthurrik eta herruk bezala; eta eztauke untsa murtalak deitzia, hanitx aldiz benial baizik ezpeitira.

G. Nuiz dira murtal?

I. Direnin osoki Jinkuren eta protsimu lagünaren karitatiren kuntre.

G. Nuiz dira osoki karitatiren kuntre?

I. Hausten denin Jinkuren eta Elizaren manu bat gaiza handitan.

G. Zer da Ürgüllia?

I. Bestik beno haboro izateko nahikunte desordenatü bat.

G. Zer da Abarizia?

I. Huntarzünentako amurio desordenatü bat.

G. Zer da Lohikeria?

I. Aragizko plazer zikhiñen amurio desordenatü bat.

G. Zer da Kolera?

I. Mendekatzeko amurio desordenatü bat.

G. Zer da Gormandiza?

I. Jateko eta edateko amurio desordenatü bat.



G. Zer da Bekhaizteria?

I. Besteren hunaren gaitzestia.

G. Zer da Herabia?

I. Untsaren egiteko gogo eskaza.

Zazpi bizio hoien kuntre badira zazpi berthüte:

Urgülliren kuntre ümiltarzuna.

Abariziaren kuntre nasaitarzuna.

Lohikeriaren kuntre xahütarzuna.

Koleraren kuntre pazentzia.

Gormandizaren kuntre doitarzuna.

Bekhaizteriaren kuntre karitatia.

Herabiren kuntre agüdogua.

Arimaren etsaiak zuñi ihesi egin behar beitügü hirur dira:

Lehena: mundia.

Bigerrena: debria.

Hirurgerrera: aragia.

G. Nula ihesi egiten da mündiri?

I. Haren handikeriak eta banokeriak gutietsiz.

G. Nula ihesi egiten dugu debriri?

I. Othoitziz eta ümiltarzünaz.

G. Nula goithüren dügü Aragia?

I. Baruraz eta khorpitzaren matatzez; hau da etsaiik handiena zeren ezpeitiokegü gütarik khen aragia, bai aldiz mündia eta debria.

Berthute teologalak dira hirur:

Lehena: Fedia.

Bigerrena: Esperantza.

Hirurgerrera: Karitatia.

Berthute kardinalak edo moralak dira laur:

Lehena: Zühürtarzuna.

Bigerrena: Xüxentarzuna.

Hirurgerrera: Indarra.

Laugerrena: Doitarzuna.

Khorpitzeko sendimentik dira bost:

Lehena: begiez ikhustia.

Bigerrena: beharriez entzütia.

Hirurgerrera: ahuaz txestatzia edo gozatzia.

Laugerrena: südürraz ürristatzia.

Bostgerrena: esküz hunkitzia.

G. Zertako Jinkuk eman deizkü sendimentik eta beste gañerako menbrik?

I. Orotaz orotan zerbütxa dezagün.

Arimaren ahalak hirur dira:

Lehena: orhitzapena.

Bigerrena: enthelegia.

Hirurgerrera: boronthatia.

G. Zertako Jinkuk eman deikü orhitzapena?

I. Hartzaz eta haren hunkiez orhitzeko.

G. Zertako eman deikü enthelegia?

I. Haren ezagützeko eta hartzaz gogozkatzeko.

G. Zertako eman deikü boronthatia?

I. Jinkuren maithatzeko gaiza güzien gañetik, eta protsimu lagünaren haren amurekatik.

Espiritü Saintiren dohañak zazpi dira:

Lehena: Jakitatiren dohaña.

Bigerrena: Enthelegiren dohaña.

Hirurgerrera: Aholkiren dohaña.

Laugerrena: Zühürtziren dohaña.

Bostgerrena: Indarraren dohaña.

Seigerrena: Debozioniren dohaña.

Zazpigerrena: Jinkuren beldürraren dohaña.

Espiritü Saintiren Ekhoizpenak edo Frütik dira hamabi:

Lehena: Karitatia.

Bigerrena: Bakia.

Hirurgerrera: Gogohanditarzuna.

Laugerrena: bihozberatarzuna.

Bostgerrena: fedia.

Seigerrena: berenausigoa.

Zazpigerrena: boztario izpiritüala.

Zortzigerrena: pazentzia.

Bederatzügerrena: Huntarzuna.

Hamargerrena: ezütitarzuna.



Hamekagerrena: modestia.
Hamabigerrena: xahütarzuna.

Dohatsütarzünak dira zortzi:

1. Dohatsü dira gogoz praube direnak, haiena beita Zelietako erresuma.
2. Dohatsü dira Eztik lurraren jabe izanenbeitira.
3. Dohatsü dira nigarrez daudenak, hurak izanenbeitira kunsolatürük.
4. Dohatsü dira untsaren gose eta egarri direnak, hurak aserik izanenbeitira.
5. Dohatsü dira miserikordiusak, miserikordia ükhenenbeitie.
6. Dohatsü dira bihotz xahik, haiek Jinkua ikhusirenbeitie.
7. Dohatsü dira baketiarrak, hurak izanenbeitira deithürük Jinkuren haurrak.
8. Dohatsü dira untsagatik goitzarren egarten dienak haiena beita Zelietako erresuma.
 - G. Orai zer erran dügü?
 - I. Zazpi dohatsütarzünak.
 - G. Zer dira horik?
 - I. Espiritü Saintiren dohañen eta berthüten ekhoizpen hobenak.
 - G. Nur dira gogoz praube direnak?
 - I. Uhure ez aberastarzün handi ez txipirik desiratzzen eztienak.
 - G. Nur dira Eztik?
 - I. Khexüeriarik ez eta haren igidürarik eztienak.
 - G. Nula dira lurraren jabe?
 - I. Bere bürien nausi direlakoz.
 - G. Nur dira nigarrez daudenak?
 - I. Gozo orori, txipier ere ukho egiten dienak.
 - G. Nur dira untsaren gose eta egarri direnak?
 - I. Bere eginbide güzik arrahenki egiten dütienak.
 - G. Nur dira miserikordiusak?
 - I. Bihozberatarzünéz betherik direnak arrotzeki ere.
 - G. Nur dira bihotz xahik?
 - I. Bere pasionetan osoki mortifikatü direnak.
 - G. Nur dira baketiarrak?
 - I. Beren eta besten artin bakiren edükizalik.
 - G. Nur dira untsagatik goitzarren egarten dienak?
 - I. Untsan zinki egoiten direnak eskerniatürük izanik ere.
 - G. Zergatik deitzen dira dohatsütarzünak?

I. Zeren horietan beitago mündü huntako irusitatia eta besteko esperantza.

Gizunaren laur Azken ürhenbürik

- G. Zuñ dira Gizunaren laur Azken ürhenbürik?
- I. Heriotzia, jüjamentia, pharadüsia eta ifernia.
- G. Zer da Heriotzia?
- I. Arimaren khorpizetik berhezta.
- G. Zer da Jüjamentia?
- I. Jüjamentia da Jinkuren aitzinila agertzia egin den untsarentzat sari-eren eta gaizkirentzat gaztigiren ükheiteko.
- G. Nurat junen da arima jüjatürük izan undun?
- I. Junen da bethikoz edo pharadüsilat edo ifernilat; edo denbora batentako pürgatoriulat gero pharadüsin sartzeko.
- G. Eta khorpizta zer eginen da?
- I. Khorpizta egonen da lürin mündiren ürhentzilano, bena ordin jüntatüren da leheneko ber arimareki, haren ber zorthiren ükheiteko.
- G. Zer da Pharadüsia?
- I. Pharadüsia da Aingürientzat eta Jinkuren grazian hil diren gizunentzat detsetürük den dohatsütarzünézko lekhü bat.
- G. Zer da Ifernia?
- I. Ifernia da Debrientako eta bekhatü murtalezko estatin hil diren gizunentako detsetürük den dohakabezko lekhü bat.
- G. Zer da Pürgatoriua?
- I. Pürgatoriua da graziazko estatin hil diren arimak dutzan lekhü bat nun mündü huntako ordari egiñenbeitie bere bekhatiez satisfzazione osua.
- G. Egin dezakegia gük satisfzationerik Pürgatoriuetan dauden arimen phenen llabürtzeko?
- I. Bai, Jauna: Arima justo haien phenak llabür detzakegü bai eta ere ürhent gure othoitzez, barurez, amuinez, indüljenziez eta berheziki Mezako Sakrifizio Saintiz.
- G. Zer da indüljenzia?
- I. Mündü huntan edo Pürgatoriun bekhatiengatik Jinkuri Penitentiaz eman behar zaion satisfzationiren pharkamentia.
- G. Nula irabazten da indüljenzia?
- I. Hunen irabazteko manhatzen diren gaizak eginez graziazko estatin.
- G. Nula pharkatzen dütü Elizak bekhatiri zor zaitzon phena thenporalak?



I. Guri eretxekiz Jesü-Kristen eta Saintien mereximentü soberanozkuk.

Inkarnazioneko misteriuaz

G. Zer da Inkarnazioneko misteriaua?

I. Trinitate Saintuko bigarren Persunaren, (zuñ beita Jinko Semia) gizun egitia Maria Birjinaren Sabelin, Espiritü Saintiren obraz eta berthütetz, Maria egon delarik Birjina erdi aitzinin, erditzin eta erdi ündün.

G. Zumbat natüra dütü Jesu-Kristek?

I. Badütü bi natüra, Jinkurena eta gizunarena; badütü ere bi enthelegü eta bi boronthate; persuna bat Jinko bezala, ezpeita Jesü-Kristetan persuna gizunekorik; memoria bat gizun bezala, Jinko bezala gaiza güzik edükiten beitätü gogun; Aita baizik eztü Jinko bezala, hura da Aita Eternala; Ama baizik eztü gizun bezala zuñ beita Andere dona Maria: eztü amarik Jinko bezala ez aitarik gizun bezala.

G. Nun da Jesü-Krist?

I. Jinko bezala lekhü eta gaiza güzietan, eta gizun bezala bakharrik Zelin eta Althareko Sakramentü Saintin.

G. Zuñ egünez egin dira Jesü-Kristen misterio gehienak?

I. Martxuren hogeï eta bostin kunzebitü zen Maria Birjinaren Sabelin; sorthü zen Egüberri gayin; hil zen Ostirale Sainduz; phiztü zen Bazko egunin; eta igorri zin Espiritu Saintia Apostolier Phintekoste egünin.

Kofesiuaz edo Kofesioniz

G. Zumbat gaiza behar dira kofesio hun baten egiteko?

I. Bost, Jauna.

G. Zuñ dira?

I. Lehena: kuntzentziaren ikhertzia.

Bigerrena: bekhatiez dolü eta bihozmin sürnatural baten phiztia.

Hirurgerrena: haboro bekhatürik ez egiteko xede zin baten hartzia.

Laugerrena: Bekhatien orenen diren bezala kofesatzia.

Bostgerrena: Penitentziaren egitia.

G. Zer da kuntzentziaren ikhertzia?

I. Azken kofesione hunaz geroz egin bekhatiez orhitzia.

G. Zertarik ikhertzen edo etsaminatzen da kuntzentzia?

I. Jinkuren legeko hamar manietarik, Eliza Ama Saintaren seietarik, miserikordiazko obretarik, bekhatü kapitaletarik eta nurk bere estatüko eginbidetarik.

G. Nula behar da ikhertü kuntzentzia?

I. Jinkuri graziak galthatü undun orhitü behar da nun eta nureki ebili den, zer okasionetan ediren den, zer hüts egin din manü bakhotxin eta bere estatüko eginbidetan.

G. Zumbat denbora behar da kuntzentziaren ikhertzeko?

I. Ezta mügatzen ahal denbora; batbederak hartü behar du edireiten den kasien arabera, egiteko inportanta delakoz hau.

G. Zer da dolümena?

I. Bihozmin natüraz goragoko bat Jinkua ofensatüz.

G. Zumbat gisatako dolümen da?

I. Bi gisatako, Jauna.

G. Zuñ dira?

I. Kuntrizionia eta Atrizionia.

G. Zer da Kuntrizionia?

I. Kuntrizionia da dolü eta bihozmin natüraz gañeko bat Jinkua ofensatüz, delakoz ezinago hun eta maithagarri; kofesatzeko eta haboro bekhatürik ez egiteko xede zin bateki.

G. Zer da Atrizionia?

I. Atrizionia da dolü eta bihozmin naturaz gañeko bat Jinkua ofensatuz, bekhatien itxustarzunagatik Zelia galerazten eta ifernia merexitzen deikülakoz; kofesatzeko eta haboro bekhatürik ez egiteko xede zin bateki.

G. Zuñ da bi dolore hoietarik hobena?

I. Kuntrizionia, Jauna.

G. Zergatik?

I. Zeren Kuntrizionik ardiesten beitätü bekhatien pharkamentia kofesatu beno lehen, Atrizionik aldiz ez, kofesatuz baizik.

G. Zer da xede zina?

I. Gehiago bekhatürik ez egiteko gogo azkar bat.

G. Zer da Kofesiaua?

I. Kofesiaua da Aphez Kofesorari erraitia bekhatü murtal güzien, kuntzentzian aurkhitzen diren bezala, batere gorde gabe.

G. Nula behar dira bekhatik kofesatü?

I. Behar dira garbiki aithortü manü bakhotxin egin bekhatü murtal oro, gogoz, hitzez, obraz; bai etare zirkunstantzia bekhatia handitzen dienak, edo haren suertia khanbiatzen.

G. Kuntzentzia behar bezala ikhertü faltaz, edo ahalkez, beldürrez edo gaistokeriz üzten bada bekhatü murtal bat kofesatzeko, kofesiaua hun datekia?

I. Ez, Jauna; leheneko bekhatien gaña egiten da sakrilejio bat, eta kofesio hura ere behar duke arraberritü.



G. Kofesiua hun datekia, nahi gabe nurbaiti ahazten bazaio bekhatü murtal bat erraiteko?

I. Bai, Jauna; bena orhitzen balin bada lehen kofesiun erran behar düke nula aitzinin ahatzerik ützi zin bekhatü hura.

G. Bekhatü murtal bat aküsätzen bada düdazko bezala, eta gero orhitzten bada segurki egin zela, behar deia berriz kofesatü ber bekhatia segur bezala?

I. Bai, Jauna, zeren bekhatiek orhituz geroz behar beitie erran diren bezala; eta segur ogendün izatia bestelako beita zuña düdan ogendün izatia.

G. Bekhatü benialak kofesatü behar dirá?

I. Hun da kofesa ditin bena ezta nesasari.

G. Zer da Satisfazionia?

I. Apez Kofesorak emaiten din Penitentiaren egitia.

G. Nuiz behar da kunplitü penitentzia?

I. Kofesorak mügatzen badu ephia, ephe hartan; ezpadü mügatzen, ahal bezain sarri.

G. Zer bekhatü egiten da Penitentiaren ez egitea?

I. Penitentzia handi bada, eta ützen pharte handi bat, bekhatia murtal dateke; penitentzia txipi bada edo penitentzia handitik ützen pharte txipi bat bekhatia benial dateke.

G. Nuiz dateke Penitentzia handi?

I. Emaiten denin bekhatü murtalentako edo bekhatü murtaleko bidetik hürrüntzigatik.

N. Kofesio hunaren egiteko kundizioner falta egiten bada jakinez, kofesiua gaisto eta sakrilejio izanen da; eta salbatzekoz behar dirate kofesio gaisto güzik arraberritü kofesio jeneral batez.

Kofesatzeko muldiz (Españako gisa)

G. Nula behar da kofesatü?

I. Kofesoraren huñetara beno lehen belhaikatürik eginen da Khuruxiren zeinharia, eta ahozpez jarririk erranen da (ni bekhatia edo kofesätzen niz). Hau ürhentü unduan jeiki eta heltzen delarik Kofesoraren huñetara erraiten da: Laidatu dela eta benedikatu Althareko Sakramentu Sautia; edo Aita benedika nezazü zeren egin beität bekhatü.

G. Zer egin behar da gero?

I. Erran undun zunbat din azkenik kofesatu dela eta absoluzionia ukhen, aithorturen dira bekhatü güzik ümilitate handireki.

G. Zer erran behar da bekhatik agertu undun?

I. Bekhatik bederazka agertü undun erranen da: Gisa berin aküsätzen nüzü egündano egin dütüdan bekhatü güziez, galthatzen deiot pharkamentü Jinkuri, eta zuri, ene Aita izpiritüala penitentzia, eta absoluzionen sori bazait.

G. Penitentak ezpadü bekhatü murtalik aküsatzeko zer egin behar dü?

I. Lehenago egin eta kofesatü din bekhatü murtal bat akusatüko dü; eta ezpadü, bekhatu benial phena gehienik egiten deion bat.

G. Zer egin behar da gero?

I. Ümilitate eta erresetüreki entzün undun kofesoraren abisak eta Penitentzia errezebitü, erraiten da ahozpetürik kuntrizionezko aktia.

G. Zer egin behar da kofesatü unduan?

I. Ardura gogun erabili kofesoraren erranak; haboro bekhatürik ez egiteko xedia berritü; penitentzia hitzeman bezala kunplitü, eta Jinkuri eskerrak ützüli.

Komünioniz

G. Zer da Ostian?

I. Apezak kusekrazioneko hitzak erran artio ogia; apezak kusekrazioneko hitzak erran undun Jesü-Kristen Khorpitz dibinua hañ egiazki eta errealki nula Zelin.

G. Zer da Kalitzan?

I. Apezak kusekrazioneko hitzak erran artio ardua hur txorta bateki; apezak kusekrazioneko hitzak erran undun Jesü-Kristen odol baliusa.

G. Ostia kusekratien edireiten da Jesü-Kristen khorpitz bezala odola ere, eta Kalitzan odola bezala khorpitz ere?

I. Bai, Jauna, batin eta bestin edireiten dira Jesu-Kristen khorpitz, odola, arima eta Jinkotarzuna.

G. Ogitik eta arduetik ezteia deus baratzen kusekrazionen undun?

I. Ez, ezta deus baratzen ogiren eta arduren ütürak edo üdürük baik, nula beitära muldia, koloria, urrina eta gozua.

G. Apezak ogi eta ardu kusekratien üdurik berhezten dutinin, hausten dia edo berhezten Jesü-Kristen khorpitz edo odola?

I. Ez, Jesü-Krist edireiten da osorik berhezi den pharte bakhotxin; eta holatan Ostia zathi bakhotx bat baik errezebitzen eztinak errezebitzen du Jesü-Krist oro, Ostia osoa hartzen dinak bezala; baita Ostia eta arduren üdürüa algarreki hartzen dinak bezala.



Komunioneko dispozizioez

G. Zunbat gaiza behar dira Komunionen baten egiteko?

I. Hirur, Jauna.

G. Zuiñ dira?

I. Lehena: jakitia zer errezebitu behar den.

Bigerrena: osoki barur juitia.

Hirurgerrena: graziazko estatin izatia.

G. Zer errezebitzen du Komunionen dinak?

I. Jesu-Krist gure Jauna, Jinko eta gizun egiazkua, Zelin dagona eta Althareko Sakramentu Saintin.

G. Zer enthelegatzen dizu barur juitiz?

I. Izan behar dela gaierez geroz jan eta edan gabe, nun ezten komunionen hiltzerako bezala.

G. Zer enthelegatzen dizu graziazko estatin izatiz?

I. Eztela behar izan bekhatu murtalezko estatin, eta hortakoz kuntzentzia untsa ikhertu undun, ihurk edireiten badu bere buria estatu triste hartan, behar du kofesio hun batez xahatu.

G. Bekhatu murtalezko estatin komunionen dienak errezebitzen dieia Jesu-Krist?

I. Bai, bena bere kundenazionetako, zeren egiten beitie sakrilejiozko bekhatu izigarri bat.

G. Nula hullantü behar da Komunionetara?

I. Uneski eta xahuki bezitürik umilitatereki, errespetueki eta egiazko debozione bateki.

Komunioneko mementuz

G. Zer erran behar da Aphezak Ostia Saintia eskin hartzen dinin?

I. Jauna, enüzü diño zure errezebitzeko bena errazü hitz bat bera eta ene arima izanen dizu sendotürik.

G. Zunbat aldiz erran behar da?

I. Hirur aldiz, Jauna.

G. Eta gero zer erraiten da?

I. Jauna, zure eskietan ezarten düt ene arima.

G. Nula egon behar da komunionetako mementun?

I. Belhaikatürik eta begik aphaltürik, bena Ostia Saintilat ütülirik eta mihia peko españen gaña elkhirik.

G. Zer egin behar da Ostia Saintia errezebitu undun?

I. Aphezak eskia gibelü dinin ahua zerratü behar da eta Ostia Saintia iretsi busti denin.

INEFFABILIS BULA

Gure Jaun Pio, Jinkoaren helturaz izen hortako

IX Aita Saintuaren Guthun Apostolikoa

sinhesi behar diren egietan ezarteko

Birjina Jinkoaren Amaren Konzebizioe Thonagabea.

Ezinaiphatu Jinkoak, zuiñen bideak baitira urrikaltarazuna eta egia, zuiñen nahia ahalosoa, eta zuiñen zuhurtarazuna hedatzen baita bazterretik baztertera borthizki, oro dutialarik adelatzen ezteki; nula bethidanik aitzinikhusi baitzian gizonkente guziaren erorte hanitz deithoregarria Adamen gaintiegitetik heltu behar ziana, eta misterio mentez gordean hitzartu baitzian bere huntarazunezko lehen egintzaren, Berboaren gizonegiteaz, era estaliago batez osotzea, amorekatik, bere xede urrikalkorraren kuntre gizona, debru gaistoaren aitzipeaz hutsetara egotxirik, gal eledin, eta lehen Adamian eroriko zena, bigerrenian dohatsukiago eraikirik izan ledin; hastetik eta menten aitzinetik bere Seme Bakhoitzari haitatu eta adelatu zian Ama bat, zuiñtarik aragistaturik sorthuren baitzen orduen bethadura dohatsuan; eta hain zian orotan gainti maithatu, nun hartan batian ororen gozokienik haren gogoa phausatu baitzen. Hartakoz hura hanitzez Ainguru guziak eta Saintuak oro beno betheago zian bere Jinkotarazunaren tresoretik elkhi zutian dohain guzien gaintiduraz, hala nun bekhatuaren thona orotarik bethi zelarik osoki xahu, eta oro eder eta narriogabe, halako xahutarazunezko eta saintutarazunezko bethadura berekin ekhar lezan, nun handiagorik Jinkoaz kanpo ihula asma ez baitaite, eta hartara Jinkoaz besterik ihor gogoaz hel ez baitadi. Eta eskierki sori zen ezinago saintutarzun osoenaren leiñhuruez bethi argiturik ager ledin, eta sortzapeneko hutsaren thonatik arras xahu begiraturik garhaite osoena suge zaharraren gañen ukhen lezan Ama dohagarri harek, zuiñi Jinko Aitak eman nahi ukhen baiteio bere Seme bakhoitza, bere baithan bere bardin sorthua bera bezala maite duana, izateko hura berbera batetan Jinko Aitaren eta Birjinaren Seme; eta zuiñ semeak berak haitatu baitu bere Ama egiazkotzat; eta zuiñtarik Espiritu Saintuak nahi ukhen baitu, konzebiturik izan ledin eta sor ledin Berboa zuiñtarik bera jalkhitzen baita.

Birjina Aiphagarriaren sorzarozko xahutarzun hori, haren Saintutarzun miragarriarekin eta Jinko-Amaren goratarzun handiarekin osoki her-



tsirik, Eliza Katolikoak, zuñ Espiritu Saintuaz bethi erakatsirik, egiaren habea baita eta zinkaia, Jinkoaganik ukhen jakitate bat bezala eta zelutiko erakaspenean artean khuntaturik bezala, hanitz eta hanitz bidez eta egitate ikhugarrienez bethi egunetik egunera hobeki agertzen, erakusten eta hazten ari izan da. Ezi erakaspene hori lehenlehen denboretarik etxekia, eta sinhestedunen bihotzetan barna lanthatua, eta Aphezukupu Sakratuen harduraz eta artaz mundu katolikoan miragarriki hedatua, Elizak berak ezinago ageriki ezagutzera eman du, nuiz ere Birjina haren konzebizioa sinhesteduner publikoki aihortzera eta ohoratzena dudatu gabe eskentu baitu. Egitate nabarigarri horrez Birjina haren konzebizioa berhezi, miragarri, eta beste gizonen hastapenatarik guziz bestelako, eta osoki xahu eta ohoragarri dela erakutsi du, ez tianaz geroz Elizak saintuentako baizik bestarik egiten. Hartakoz ere hasterik ukhen ezian zuhurtarzunaz mintzatzeko eta haren bethiereko sorzarorearen erakusteko Guthun Sain-tuek zehatzen dutien berber hitzak, hartzen ohi dutu Elizak bere ofizioe-tan eta zeremonia saintuetan, eta eretxekitzen dutu Birjinaren hatsarrer, zuñ izan baitira detse batetan eta berian jinko-zuhurtarzunaren gizonegi-tearekin zerraturik.

Nahi-bada horik oro sinhestedunetz orotan unharturik diren, eta era-kusten dien zer suhalamarekin Birjinaren konzebizioa thonagabe horren erakasteari jarraiki izan den Erromako Eliza bera, zuñ baita Eliza guzien Ama eta buruzagisa; haregatik Eliza haren egitate ederrek merezi die ber-heziki aiphaturik izatea, zeren den haren gehientarzun eta nausigoa hañ handia, delakoz ere egia eta batarzun katolikoaren bilgunea, hartan baita bakharririk orbaingabe begiratu egiazko Errelijioa, eta hartarik fedearen erakaspenean beste Eliza guziek hartu behar baitutue. Holatan Erromako Elizak deus ez tu bihotzianago ukhen, zuña helpide gogagarrienez Birji-naren Konzebizioa thonagabearen, eta haren ohoratzearen eta erakas-tearen ibenitzea, gerizatzea eta nausieraztea. Hori ageriki eta goratik ait-hortzen eta erakusten die gure Aitzineko Erromako Aphezukupu gehienen hainbeste egitate handiek; haier Apostolien gehienaren presunan, Jesu-Krist gure jaunak bere Jinkotarzunaren meneaz, eman ukhen baitu gain-gaineko arta eta photerea, axurien eta ardien bazkatzeko, anaien azkar-tzeko, eta Eliza guziaren zaintzeko eta gobernatzeko.

Ainik ere gure Aitzinekoek boztario handiekin, bere mene Aposto-likoaz, Konzebizioearen bestá Erromako Elizan ezari die, eta goratu, eta dohaintu die ofizio berhezi batez eta meza berhezi batez, zuñetan segu-ratua baita ezinago garbiki haren sorzarozko thonatik begiraturik izateko dohain berhezia; eta ohoratze hori ibeni ondoan ahal oroz handitu eta

hedatu die, bada induljentzia emaitetz, bada haizutetz hirier, herrier eta erresumer Jinko-Amaren patrutako hartzea, Konzebizioa Thonagabea-ren izenian; bada ere laidorio eginez komentu, ospitale, althare eta Eliza eraiki diener Konzebizioa Thonagabearen izenian, edo zinaren pean hitzeman diener Jinko-Amaren hozitze xahua bere indar oroz gerizatuko diela. Geroago zinez boztu dira manhatetz Birjinaren Konzebizioearen besta Eliza guziak etxekiko diala, haren sortzeko bestaren ber heñian; eta Konzebizioearen besta hori zortzierrenarekin eginen diala Eliza guziak, eta guziek besta manhatu bezala edukiko diela, eta ofizio Pontifikal izan-en dela urthe oroz Birjinaren Konzebizioa egunian, gure Eliza Liberia-no Patriarkalian. Eta gudiziatzen baitzien fededunen gogoetan bethi barnago sartzea Jinko-Amaren Konzebizioa Xahuaren sinheste horren, eta haien debozioearen azkartzea Birjinaren ohoratzeko bekhatu gabe konzebiturik bezala, atsehartu die gogotik baimenaren emaitetz, Lauretako letanietan, baita Mezako Prefazioan ere, ospa ledin Mariaren Konzebi-zioa Thonagabea, eta holatan sinhesteko legea, othoitzeke legeak ezar lezan. Guk arren gure Aitzineko handien urhatser jarraitzen girelarik, lehenik haiek hain debotki eta zuhurki egin dutienak unhesten eta hartzen dutugu; bena haboro, Sixte IV Konstituzioa eztugularik ahazten, ofizio berhezi bati Konzebizioa Thonagabearentako gure menearen indarra eman deiogu, eta haren egartea Eliza guziari ezinago gogo hunez haizu egin dugu.

Bena othian, Elizak egiten dutian ohoreak eretxekitzen baitira ezi-nago hersiki bere xedeari eta ez paitauzke indardun eta zin, xede hura dudazko bada, hartakoz Gure Aitzineko Erromako Aphezukupu handiek bere ahal oroz Konzebizioearen ohorea hedatu nahiz, bai gaizaren eta bai haren Arpheztearen erakasten eta sarerazten arduraki ari izan dira. Ezik ere klarki eta ageriki erakaxi die Birjinaren Konzebizioearen besta dela egiten; eta gezurti bezala eta Elizaren gogoaren kontreko bezala iraxi die zunbaiten ustekeria, zuñek asmatu eta erran baitie, ez tela Konzebi-zioa bera ohoratzen bena bai xahatzea edo santifikatzea. Eta ez tie uste ukhen eztikiago ari behar ziela beste batzuekin, zuñek, Birjinaren Konze-bizioa Thonagabearen erakaspenean khordokerazteko, asmatu arte bat konzebitzearen lehen eta ondoko menian, erraiten baitzien egiaz Konzebizioearen besta egiten zela, bena ez lehenlehen menekoa eta ordukoa. Ainik ere gure Aitzineko haiek bere eginbide bezala hartu die sustengatzea eta etxekitea Birjina guziz dohatsuaren Konzebizioearen besta eta Konzebizioa bera lehenlehen meneko dela ohoratzen. Hortik Alexandre VII gure Aitzinetikoaren hitz osoki erabakigarriak, zuñtzaz



Elizaren egiazko gogo agertu baitu, erraitez: «Egjazki zaharra da Khiristien artean Ama Birjina Maria guziz dohatsuaren eretzeko ustekeria debota: haren arima, egin den eta Khorphitzialat ixuririk izan den lehen ordutik, izan dela, Jinkoaren grazia eta dohain berhezi batez, Jesu-Krist haren seme gizonen Arreroslearen merezimentengatik, sorzarozko bekhatuaren thonatik xahu begiraturik, zaharra da ustekeria horren arauetz ospe handiekin haren Konzebizioaren bestaren edukitea eta jeitzea».

Ainik ere orotan gainti zinez etxei izan dira gure Aitzintarrak, arta, su eta ernerura handienarekin, Jinko-Amaren Konzebizioaren erakaspeta xahu eta oso begira ledin. Hartakoz zerezik ezten igurtzi erakaspeta hori ihula ere eledin izan ihurtzaz, ez gaizki aiphaturik ez nausaturik; aitzinago joanik, hitz garbinez eta hanitz aldiz erran die, Birjinaren Konzebizioa thonagabe delako dugun sinhestea, Elizaren gogoaren arauko dela eta hartako eduki behar diela, zahar dela, orotan gutizbait hedatua dela; hori Eliza Erromanoak etxei eta gerizatu nahi ukhen diala, eta baitexi diela izan ledin ofizio saintuetan, eta biltzarretako othoizetan gorai-phaturik. Eta horik ez askiexirik, Birjinaren konzebizioa thonagabearen erakaspeta xahu egon ledin nahiz, erakaspeta horren kuntreko ustekeria- ren, agerian edo gordean etxekitzea garrakzi debekatu die, eta borthizki ere hanitzetan jo nahi ukhen die. Ardura egin aiphamen garbi horik ez litan indar gabe egon eman zein zinkarria. Horik oro gure aiphatu Aitzintar Alexandre VII hirtz (sic) hiretan zerratu dutu:

«Gogomanik, Eliza Santa Erromanoak Maria bethi Birjina xahu xahuaren Konzebizioeko besta osperekin bethi jeitzen diala, eta aspal-dian ofizio berhezi eta berebereko bat adelatu diala, Sixto IV gure Aitzintarrak orduan eman zian manu debot eta aiphagarriaren arauera; eta nahiz indar eman debozione onhexgarri horri, eta Eliza Erromanoan ezariz geroz nehoiz aldatu ezten bestari eta ohoriari; Erromako Aphezcupu gure Aitzintarrek bezala, nahiz eduki eta hazi, Birjina guziz dohatsuaren, Espiritu Saintuaren grazia lehenturik, sorzarozko bekhaturik begiratuaren ohoratzea, eta Jesu-Khristen arthaldean gogoaren batarzuna bakearekin begiratu beharrez, aiherkunte eta aharrak ithorik eta gaitzibideak bazter-turik izentatu Aphezcupuek bere Elizetako kapituluekin, eta Filippe Erre-giak bere Erresumekin egin deikuien errekeritze eta othoiengatik; Erro-mako Aphez-Gehien Gure Aitzintarrek, eta berheziki Sixto IV, Paule V, eta Gregori XV, eman dutien Konstituzione eta dekretak, gogokunde hunen althe, Maria Birjinaren Arima, dentu denetik eta khorphitzari ixuri, Espiritu Saintuaren graziaz dohainturik izan dela, eta sorzarozko bekha-tutik begiraturik; eta ber Birjina Jinko-Amaren Konzebizioaren ohora-

tzeko, ustekeria debot horren arauera, ezaririk izan diren besta eta gurt-heraren althe emanak, arraberritzen dutugu, eta Konstituzione haietan ekharririk diren eskumeku eta phenen pean begira ditian manhatzen dugu».

«Eta gehiago, nurk ere aiphatu Konstituzione eta dekretak argudia-tu nahi bailutuke, ustekeria horren eta horren arauera ezari den bestaren eta gurtheraren galeraztekotan; edo sinheste, besta eta ohore horik, berriz debadiotara ekharten badutu; edo hoiien kuntre xuxenka edo zeiharka, edo zernahi estakuruz, bada fedezko egietan ezar datekianez ikhusteko, bada Guthun Saintuen edo Elizako Aita Saintuen eta Erakasten ikhertze-kotan eta argudiatzekotan, eta beste zer-nahi estakuruz edo gerthuz, izki-ribuz edo mihiz erraitera, pheredikatzer, hizkatzer, gudukatzer atrebi ditian, haien kuntre zerbait aiphatur edo baituz, edo haien kuntre argidu-ri ekharriz eta hurak iraxi gabe utziz, edo zer-nahi den araz mintzatez; Sixto IV garrenaren Konstituzionetan diren phenak eta eskumukuak dau-dela, zuñen pean izan ditian nahi beituugu eta gure guthun hunez ezarten baitutugu; eta haboro, pheredikatzer, bilkhuretari irakurtera, edo erakas-tera eta argudiatzer haizu izatetik; bai eta haitu egitetan botz emaitetik eta ukheitetik nahi dugu gabetuak izan ditian bere eginaz, beste erraiterik gabe; eta ere pheredikatzer, bilkhuretari irakurteko, erakasteo eta argu-diatzer, bethikoz gaitarzun gabe izan ditian nahi dugu, bere eginaz eta beste erraiterik gabe; eta phena hoietarik gutzaz eta gure ondoko Erro-mako Aphez handiez baizik nahi dugu eztitian izan ahal soltaturik edo egaririk; eta ere gure eta gure ondoko Erromako Aphez-handien olez ekharririk izanen diren beste phenen pean izan ditian nahi dugu, eta ezar-ten dutugu guthun hoietzaz, berritzen dutugularik Paule V eta Gregori XV gorago aiphatu Konstituzione edo dekretak».

«Eta Guthunak, zuñtan erran den sinhestia, haren arauko besta eta gurthera khordokatzen baitira; edo zuñtan haien kuntre, zernahi antzora, erran dugun bezala, zerbait izkiribatzen baita edo irakurten; edo haien kuntreko hitz, pherediku, elheka edo debadio baitauke: diren Paule V lehen aiphatuaren dekretaren ondotik eginak, edo gero zernahi antzora eginen, debekatzen dutugu, liburu debekatuen erakaspeta ekharririk diren phena eta eskumakuen pean; eta den-denaz beste erraiterik gabe osoki debekatsat (sic) harturik izan ditian nahi dugu eta manhatzen dugu».

Orok badakie zer su handirekin, Birjina Jinko-Amaren Konzebizio- ne Thonagabearen erakaspeta hau, Erreligioneko Ordre handienaz, theo-lojiako eskola omentsuenez, eta jinkozko gaizetan Dotor jakintsuenez, izan den erakatsirik, zinturik eta gudukatirik. Guziek bardin, badakie



zunbat antsiatu izan diren Aphezkupu Saintuak Elizagizonen Bilkhuretan beretan goratik eta ageriz aihortzera, Birjina Maria Jinkoaren Ama Sain-ta, Jesu-Krist Arreroslearen merezimentu aitzinikhusien indarrez, ez-tela behinere sorzarozko bekhatuaren pean izan, bena osoki begiraturik izan dela sorzarozko thonatik, eta holatan arrerosirik izan dela handizkiagora. Gogomen hoier juntatzen da han orotako sendorrena eta handiena, Tri-denteko Konzilioak, zuñek Guthun Sakratuen, Aita Saintuen eta konzilio edo biltzarre unhexienen erranen arau arpeztu eta erabaki baitu, gizon guziak sortzen direla sorzarozko hutsaz khosaturik, hargatik goratik oi-hutu du ez zela haren xedean, erabakite hartan eta erraite haren hedadura orotarazkoan, zerratzea Birjina Maria Jinkoaren Ama dohatsua eta tho-nagabea. Baita erraite hortzaz, Tridenteko Aitek, Birjina guziz dohatsu hura sorzarozko thonatik xahu izan dela, orduko gora beherez eta den-borez so eginik, aski ezagutzera emaiten zien; eta ageriki erakusten zien etzaitiekiala, ez Guthun Sakratuetarik, ez zaharren erranetarik, ez Aiten izkiribuetarik deus athera Birjinaren dohain handi eta berhezi hau ihula gezurta ahal dezakenik.

Ainik ere Birjina guziz dohatsuaren thonagabezko Konzebizioe-n erakaspén hau, bethi gehiago Elizaren sinheste errespetagarriaz, haren erranez, arduraz, jakiteriaz eta zuhurgoaz hain ageriki xurituá, bai-tua eta zintua eta mundu khiristi orotako populu eta herri guzietara heda-tua, izan dela bethiz geroz Elizan zaharretarik ukhenik bezala, eta Jinko-ak erakatsia delako signaleaz markaturik, jakile dira eta azkarki aihortzen die ekhijalkialdeko, eta itzalaldeko Elizarren orhitzarre zahar eta omenez-koek. Ezi Jesu-Kristen Elizak, hari gomendatu egien begirari eta mende-kari erneak, haietan behinere ez tu deus aldatzen, deus gutitzen, deus emendatzen; bena albiriste handirekin, zaharren erranak fidelki eta zuhur-ki ikhertzen dutialarik, aurkhitzen badu erakaspén zunbait lehen tipiltze-ko egonak eta Aiten sinhestiak ereiñak, hurak tipiltzen dutu eta leintzen, Zelutik jauxi egia zahar hek har dezen itxura, argia eta berheztaruna, bena begiratzen dielarik bere osodura, bethedura, beregoa, handi dítian xoilki bere kentean, erran nahi beita ber egia aihoan, ber oldean, ber erra-nian.

Bada Aita Saintuek eta Elizako Izkiribazalek, Zelutikako hitzez argi-turik, deusetzaz ez tie lehendanik artha haboro hartu, Guthun Saintuen tipiltzeko, egien etxekitzeko eta fededunen argitzeko egin dutien liburue-tan, zuña Birjinaren gaingaineko saintutarzunaren, handigoaren, eta bek-hatuzko thona orotarik haren xahutarzun osoaren, baita gizonkentearen etsai beltzetik haren garhaitze loriosaren ederki eta hanitz gizaz erakasteaz

eta goraiphatzeaz. Hortakoz erantzuten dutienian hitzak zuñtzaz Jinkoak agintuz munduaren hastetik bere hontarzunean gizonkentearen adelatu sendogarriak, zapatu baitzian suge inganazalearen goigura, eta miragarri-ki gure esperantza eraiki, erran zianian: «Etsaigoak ezariko dítian hire eta emaztearen artean, hire kastaren eta haren kastaren artean», erakaxi die Jinkoaren aiphamen hortzaz klarki eta ageriki aitzinerakutsirik izan dela gizonkentearen arrerosle urrikalsua, zuñ baita Jesu-Krist, Jinkoaren Seme bakhoitza, eta erhikaturik Maria Birjina haren ama guziz dohatsua, eta ber denboran debruaren kontreko haien bien exaigoak izan direla klarki mar-katurik. Arren halanula, Jesu Kristek Jinkoaren eta gizonen arartekariak, gizontaruna harturik, ezestatu baitu gure kuntre ekharririk zen erabakia, eta Khurutxean trionfanki itzatu; ber gisan Birjina guziz Saintak, lotkarri hersienaz eta ezinsoltatuaz harekin bat eginik, eta hartzaz bethiereko guduka suge phozoatiari etxekiten deiolarik eta osoki goitzen dialarik, buria bere huñ thonagabeaz zaphatzen deio.

Birjinaren garhaite handi eta berhezi hori, eta haren gaingaineko inozentzia, xahutarzuna eta saintutarzuna; bekhatuzko thona orotarik haren garbitarzuna; zelutik ukhen dutian grazia, berthute eta dohain ber-hezi ororen bethedura eta handitarzun ezinaiphatua ber Aitek ikhushi die bada Noeren Arka hartan, zuñ Jinkoaren manuz eginik, mundu guziaren hondatze generalian, bera oso eta gaitzgabe egon baitzen; bada zurubu hartan, zuñ ikhushi baitzian Jakobek lurretik zelura heltzen, zuñen maille-tan Jinkoaren Ainguriak igaiten eta jausten baitziren, eta zuñen thiniari baitzagokan Jaun-goikoa; bada khaparondo hartan, zuñ gune saintu batian Moesak ikhushi baitzian ald'orotarik erratzen eta su-gar karrasken artean batere ez histen eta ez den damu txipierna hartzen, bena ikhusga-rriki ostotzen eta lilitzen; bada etsaiez ezingoithu torre hartan, zuñ ungu-raturik baita mila barandaz eta azkarren armadura guziak; bada baratze zerratu hartan, zuñ ezin baitaite ideki, eta ez irabaz etsaien inganio aitzipetsuez; bada Jinkoaren tenplo amiragarri hartan, zuñ zeluko argiez izar-niaturik, betherik baita Jinkoaren loriaz; eta beste holako hanitz uduritar-zunetan zuñtzaz Jinko-Amaren dongoa gora, haren xahutarzun thonaga-bea, eta itzalik behinere ukhen ez-tian saintutarzuna, ageriki erakutsirik izan direla baitioie Elizako Aitek.

Zeluko dohainen hunantza horren eta Jesusez amatu den Birjinaren sorzarozko xahutarzunaren arphezteko, ber Aitek, Profeten hitzak hartu-rik, ospatzen die Birjina aiphagarri hura deitzen dielarik: urzo xuria, Jeru-saleme Saintua, Jinkoaren Jargia gora, saintutarzunaren arkha eta etxea zuhutarzun (sic) bethierekoak eraiki diana; Erregiña siratsez unguratua



eta bere Maitearen gainen bermatua, Jaun-goikoaren ahotik osoki perfeit jalkhi dena; ederra eta Jinkoak guziz maithatua, eta behinere thona baten herexaz theiuturik izan eztena. Baita ber Aitek eta Elizako Izkiribazalek, gogoan igaraiten zienian, Birjina guziz dohaxua, Ainguru Gabrielelek Jinkoaren Amagoako donkide ezinago goraz argudiatu zianian, Jinkoaren beraren izenian eta haren manuz Graziaz bethea deithu ziala; erakatsi die gurthera berhezi eta ospetsu jagoiti entzun etzen horrez erazagutzen diala, Jinkoaren Ama izan dela grazia guzien jargia eta Espiritu Saintuaren dohain guziez aphaintua; ezta aski, dohain haien bilduma baztergabe bat dela eta osin ezin huts ditaken bat; eta holatan, maraditzionearen pean sekula ez izanik eta bere semearekin batian bethi beneditzionez unguraturik, merezitu diala erran lizon Elisabethek Espiritu Saintuaz argiturik: Benedikatua zira emazten artean eta benedikatua duzu zure Sabeleko ekhoizpena.

Hortik ber Erakaslen ospetsu bezain orobatezko ustea, Birjina guziz loriosa zuñi gaiza handiak egin baiteitzo Ahalorotakoak, halako Zeluko dohainen hunantzaz, halako grazien bethaduraz eta halako xahutarzunaz izan dela dohainturik, nun izan baita Jinkoaren ezinaiphatuzko mirakullua, baita mirakullu guzien thinia, Jinkoaren Ama behar-bezalakoa, khreaturá egin daitekian bezain Jinkoaganik huillantzen dena, eta bai gizonen bai Aingurien laidorioak beno goragoa. Hortakoz ere, hatsarreko Jinko-Amaren xahutarzunaren eta garbitarzunaren goraiaphatzeko, ez askiz Eba-ekin haren batuntzeaz, Eba orano birjina, orano xahu, orano thonagabe, orano suge aitzipetsuaren inganioez atzamanik etzen denboran; haren gainetik ezari die erraiteko eta mintzatzeko mota miragarrienez -Ezik-ere Ebak, damuki sugiari behaturik, galdu zian hatsarreko xahutarzuna, eta haren aurpeko bilhatu zen; aldiz Birjina guziz dohatsuak, sorzaroko dohaina bethi emendatu du, eta zer-ezik ezten sugiari behatu, haren indarra eta photerea Jinkoaganik ukhen dian berthuteaz osoki zaphatu dutu.

Hartakoz ere bethiz geroz Jinkoaren Ama deithurik izan da; elhorrrien arteko azuzen lilia; lur osoki berria eta birjina, lur xahua, thonagabea, bethi benedikatua, sorzarozko khozu orotarik garbi begiratua, zuñtarik Adam berria eginik izan baita; edo inozentziatzko, hileziatzko eta siratsezko pharadusu erraiteko gabea, ezinago argia eta onesgarria, Jinkoak berak adelatua, eta suge phozoatuaren galbide orotarik begiratua; edo zur ustelezina zuñtan bekhatuaren harra ez baita sekula sarthu; uthurri bethi argia da Espiritu Saintuaren berthuteaz zeññhatua; Jinkoaren tenploa, hileziatzko tresorra; ez heriotzearen bena biziaren alhaba bakhar eta bakhoitza; ez kolerazko bena bai graziazko berjaioa, zuñ bethi berde ondo ustel

eta khozututik, Jinkoaren benia berheziaz, lege eta ohidura guzien kontre, sorthu baita. Eta aski etziren ospatze handi horik zinez eta garbiki oihtu die bekhatuaz hitz den bezain sarri, Maria Birjina Saintaren ez dela aiphatzerik, zuñek gaintika ukhen baitu grazia alde orotarik bekhatuaren goithzeko; eta goratik erran die Birjina guziz loriosa izan dela burhasoen arreraikizalea, ondokoen bizigarria, bethidanik haitatua Jaun-goikoak beretako adelatua, Jinkoak aitzinaiphatua erran zianian sugeari: Exaigoak ezariko ditiat hire emaztearen artean, zuñek dudagabe zaphatu baitu suge haren buru phozoatua; eta hartakoz erran eta zintu die Birjina guziz dohatsu hura izan dela Jinkoaren graziaz bekhatuzko thona orotarik xahu, eta khozu orotarik garbi khorpitzian, ariman eta gogoan, Jinkoarekin zegoela bethi bihotzez, bethiereko pato batez harekin bat-eginik; behinere ez dela izan ilhunpean, bena bethi argian; eta holatan izan dela osoki Jesu-Kristek behar zian bezalako egongia, ez khorpitzaren edertarzunaz, bena hatsarretik ukhen dian graziaz.

Bada orano Aiten hitz ederrik Birjinaren Konzebizioneaz, mintzatzean erran dienian, naturak graziari aitzinaldia utzi zeiola, eta baratu zela ikharaturik ez ausartuz aitzinatzerá; ezik ez zian behar Birjina Jinko-Amak amaganik konzebiturik izan, Graziak bere frutua egin beno lehen; zeren konzebitu behar zian emaztetako lehen-sorthuak, zuñtarik konzebitu behar baitzen kreatura guzietako lehen-sorthua. Zintu die Birjinaren aragiak Adameganik hartuak ez dutiala hartu Adamen thonak, eta holatan Birjina guziz dohatsua dela Jinkoak berak dentu etxola edo tabernaklea, Espiritu Saintuak adelatua, purpuraz egiazki egina, Bezeleel berri harek urhez aphaintua eta josia; hura bera dela eta zuzeneki (sic) deithurik dela Jinkoaren egiazko lehen lanhegina, gaistoaren suzko tragazetarik gerizatua, izatez ederra, thonarik batere gabea, ozkorria bezala aldeorotarik argi mundiala agertu dela bere konzebizione thonagabean. Ezik ere etzen sori haituzko untzi hura besteak bezalako theiarzuner pharatusa izan ledin, zeren hanitzez besteak ez bezalako baita, haien izantzán pharte ukhenik ez baitu hutsian; eta bestalde guziz sori zen, Zeluan Aita hiruretan Saintu Seraphinez goraiaphaturik dian Jinko-Seme-Bakhoitzak, Ama lurrian ukhen lezan saintutarzunaren argiaz sekula gabeturik izan ez dena. Eta sinheste hori hain zen gure Aitzinekoen gogoetan eta bihotzetan sarthu, nun hartu baitzien ohidura berhezi eta miragarri bat haren aiphaitzeko (sic), deitzez usu-usuan Jinkoaren Ama, thonagabea, alde orotarik thonagabea, ogengabea eta guziz ogengabea, garbia eta ozoki garbia, xahua eta bekhatuzko theiarzun ororentako ezinago atze dena, oro xahua, oro garbia, eta hullan xahutarzunaren eta hutsgabearen moldea bera, edertarzu-



na beno ederragoa, xuritarzuna beno xuriagoa, saintutarzuna beno saintuagoa, sainta bakhoitza, arimaz eta khorpitzez ezinago garbia, xahutarzun eta birjinitate guziak gaintitu dutiana, eta bakhoitza ozoki izan dena Espiritu Saintuaren grazia guzien egongia, eta Jinkoaz beste ororen gainekoa; Xerubinak eta Serafinak, berak beno, eta Aingurien armada guzia beno izatez garbiagoa, ederragoa eta saintuagoa, nun ez beitira hullan ere gai haren laudatzeko zeluko eta lureko mihiak. Goreste hori Elizako izkribu eta ofizioetara bere beitharik bezala igaran dela, hetan usu aurkhitzen dela eta osoki gaintu dela, ihur ezta ez dakienik; ezik ere hetan deithurik eta aiphaturik da narrorik ez dian edertarzuneko úrzoa, arrosa bethi lilitua, aldorotarik xahu-xahua, bethi thonagabea, bethi dohatsua; goretsirik da inozentzia behinere zauririk ukhan ez diana bezala; eta Eba berria Emmanuel sorthu diana deithurik.

Ez ta arren miresteko, Birjina Jinko-Amaren konzebizioe thonagabearen erakaspeta, Aiten ustez Guthun Saintuetan ekharria, haien beren hainbeste aithormen azkarrez gutarat igarana, lehenagoko hainbeste orhitzarre handitan ibenia eta goretsia, Elizaren sinheste indartsuaz eta phezu handitakoaz guri ezkentua eta segurtatua, hainbeste su, debozione eta amoriorekin Elizako Artzainak eta populu fidelak egun oroz zinezago aithortzez boztu baitira; eta deus ez badie ukhen gozoagorik ez onhesgariagorik zuña, amorio gartsuenarekin, Jinko-Ama sorzarozko thonagabe konzebituaren ohoratzea, deitzea eta oihutzea. Hortakoz ere lehenagoko orduetarik, Aphezkupuek, Eliza-gizonak, Ordre relijiosek, bai eta ere Inperadore eta Erregek berek, Jargia Apostoliko hunenganik isiki galthatu die, Jinko-Amaren konzebizioe thonagabea fedezko egietan ezar ledin. Holako galthoak gure egunetan ere izan dira berriturik, eta berheziki orhitzapen huneko Gregori XVI gure Aitzinekoaren denboran, eta gihauri eri eginik izan zaizku bai Aphezkupuez, bai Eliza gizonen, bai Erlejiosen, bai prinze handienek eta populu sinhestedunak.

Guk hartakoz bihotzeko boztario berhezi batekin, horik oro untsa ezaguturik eta zinzinki gogoan erabilirik, nahibada gaigabe Jinkoaren Probidentziaren detse gordeaz Phetiriren jargia gora huntara alxaturik, Eliza guziaren gobernua hartu dugun bezain sarri, deus eztugu lehiatuagorik ukhen, zuña haurzarotik Maria Birjina Jinko-Amari ekharri deiogun goreste, debozione eta amorioaren aran, Elizak orano gudiziatzen ahal zutian guzien egitea, Birjina ezinago dohatsuaren ohorearen handitzeko, eta haren dohain berhezien argi handiago batean ezarteko. Bena nahiz egitekoari zohidura osoa eman, manhatu dugu biltzarren berhezi bat, Gure Anaie Ohoragarri Erromako Eliza Saintuaren kardinale, Erreljio-

nez, Zuhurtarzunetz eta Jinkozko jakitatez goretsienik direnez; eta haitatu dutugu Eliza-gizonak, Erreljiosak theologiako gaizetan jakintsuentarik, manuekin Birjinaren konzebizioe thonagabeari doazkonak oro artha handienarekin ikher litzen eta bere erabakia ekhar lizagien. Eta nahibada egin deikuien galthoetarik nuzpait azkenian fedezko egietan ezar dezagun Birjinaren konzebizioe thonagabea, ezagutzen gunian hanitz Aphezakupuren sinhestea; halere baranthailaren 2 1849 Gajétarik igorri dugu mundu orotako Aphezkupuer Guthun general bat, amorekatik Jinkoa othoiturik, izkribuz jakin eraz lizagien, nolako zen bere fededunen debozionea eta gogokuntea Jinko-Amaren konzebizioe thonagabearen gañen eta berheziki zer berek Aphezkupiek uste zien sinheste horren erabakitzen gañen, zer gudiziatzen zien; amorekatik eta ospe handienarekin gure azken hitza erran ahal genezan.

Ezta ttipi izan gure boztarioa, gure anaie Dohagarrien ihardexiak heltu zaizkunian. Ezi berek ezinsinhesizko alagranzia, atsegin eta gogoberoekin ihardesten zeikuielarik, ez gutie bakharrik seguratu bere eta bere meneko appez eta populuen debozioniaz eta sinhesteaz Birjina ezinago dohatsuaren konzebizioe thonagabearen gañen; bena guziek batbatian bezala, galthatu deikue Birjinaren konzebizioe thonagabea gure goihenhitzaz eta autoritateaz erabaki genezan. Ez gira gutiako boztu, nuiz etare aiphatu bilzarren berhezi artako Gure Anaie Kardinaler Dohagarriek, eta erran diren Theologo aholkari guk haitatuek, ber boztarrio eta suekin, untsa gaiza ikhertu undoan, othoitu gutienian konzebizioe thonagabe hori sinhesteko egietan ezar dezagun.

Gerokoz Gure Aitzinekoen urhats ederrer jarraikirik eta nahiz xuxen eta behar bezala aitzinatu, bildu eta eduki dugu bilzarren handi bat, zuñtan Gure Anaie Dohagarri, Erromako Eliza Saintaren Kardinaler mintzatu baikira; eta hurak arimako boztario handiekin entzun dutugu guri galthatzen, othoi sinhetsi behar egietan ezar dezagun Birjina Jinko-Amaren Konzebizioe Thonagabea.

Beraz osoki Jinkoatan sinheste harturik heltu dela behar zen thenore, Birjina Maria Jinko-Amaren konzebizioe thonagabearen sinhestetan ezarteko, zuñ Guthun Saintuek, zaharren erakaspetak bethizko Elizaren usteak, Aphezkupu katolikoaren eta fidelen hortan bateratze miragarriak, Gure Aitzinekoen egitatek eta erranek hain argitu eta zintu beitie; gaizak oro ontsa phezaturik, Jinkoa thaigabe garsuki othoiturik, uste ukhen dugu ez guniala behar berantu gure goihen hitzaz Birjinaren konzebizioe thonagabearen aithortzea eta sinhestetan ezartea; eta holatan mundu katolikoaren hirritz deboten, eta gihaurek Birjina guziz dohatsuarentako dugun



debozisionaren asegitea, eta harekin batian Jesu-Krist haren seme bakhaitz Gure Jaunaren bethi haboro ohoratzea, zeren semealat gaintitzen befitira Amari emaiten zaitzon dohaite eta ospe guziak.

Hartakoz thaigabe aphaltuntuan eta barurian, gure giharen othoitzeak eta Elizaren othoitze bilduzkoak Jinko-Aitari bere Semeaz eskentu undoan, Espiritu Saintuaren indarrak gure gogoia othoi lagunt eta azkar lezan; galthaturik zeluko khorre guziaren heltura: Trinitate saintu eta ezinberheziaren ohoretan, Birjina Jinko-Amaren dohaite eta ospetan, Eliza Katolikoaren altxatzeko, eta Khiristigoaren hedatzeko, Jesu-Krist Gure Jaunaren autoritatez edo nausigoaz Phetiri eta Phaule Apostolu Saintuen eta giharen autoritatez erraiten dugu, oihutzen dugu, eta sinhesteko egietan ezarten dugu erakaspian hau: Birjina Maria guziz dohatsua bere konzebizioaren lehen menian, Jinko ahalorotakoaren graziaz eta dohain berheziaz, Jesu-Krist gizonkentearen salbazalearen merezimintuen gatik, sorzarozko hutsaren thona orotarik xahu begiraturik izan dela, Jinkoak ezaguterazirik dela eta hartakoz fededun guziek zinez eta bethi sinhetsi behar diela. Halatan sunbait (sic) guk baitu dugun ez bezala, (Jinkoak begira detzala!) uste ukheitera gogotik ausart balite, hek ikhas dezela eta jakin dezela, berak bere jujamentuaz kondenaturik direla, fedean itho direla, eta Elizaren batarzunezik berhezi direla; baita orano bere egitateaz beraz Elizak ekharri phenen pean jarten direla gogoan uste diena, hitzez edo izkiribuz edo beste zernahi kanpotiko kheñuz erakustera atrebitzen badira.

Betherik da betherik gure bihotza boztarioz eta gure mihia alegantziaz, esker aphaltanak baita gorenak Jesu-Krist gure jaunari eman eta emanen deitzogu, zeren hunki berhezi batez, guri merezi gabe eman dian, dohaite horren, loria horren eta ospe horren bere Ama dohatsuari eskentzea eta eretxekitzea. Esperantza segurrena orai badugu eta konfidantza osoa, Birjina guziz dohatsu harek, oro xahu eta thonagabe suge garratzari buru phozoaia lehertu dianak, eta munduari salbamentua ekharri dianak, zuñ baita Profeten eta Apostoluen ospea, Martiren ohorea, Saintu guzien boztarioa eta khoroa; zuñ baita lanjerian diren guzien ihes lekhu segurrena eta heltari fidelena, eta lur huntako egoiliar guzien arartekari eta bakezate photeretsuena bere Seme Bakhaitzaren aitzinian; Eliza Saintaren loria eta edergallua, baita enpharu azkarrena; zuñek erakaspian gezurrezkoak erauzi baitutu, populu eta dierrri khiristiak mota orotako gaitz handienetarik ideki, eta gihaur hainbeste galbideren artean begiratu; nahi dukiala bere benia guziz ahatsuaz egin, Eliza Ama Santa Katolikoa, traba guziak khenturik, gezurkeriak oro historik, dierrri orotan bazter guzietan

bethi haboro heda, azkar eta lili dadin, nausi dadin itsasotik itsasora eta ibaietik munduaren azken mugetarano; bake osoa, deskantsua eta libertatea goza dezan; ogendunek pharkamentua, eriek sendogallua, bihotz aphalek indarra, bihotz eriek konsolazionea, lanjeretan direnek helgoa ukhen dezan; eta herrapidean diren guziek bere gogoko ilhunpeak iraxirik, egiazen eta justiziaren xendalat utzul ditian, eta izan dadin arthalde bat eta artzain bat.

Entzun ditzela gure hitz horik Eliza Katolikoaren haur maite guziek, eta debozinezko, errelijionezko eta amoriozko sugar bethi borthitzago batekin ohora dezela, dei dezela eta othoi dezela Jinkoaren Ama guziz dohatsua, Birjina Maria, sorzarozko thonagabe konzebitua; eta urrikizko eta graziazko Ama guziz ezti harengana, lanjer, herstura, beharrune, duda eta lotseria guzietan, konfidantza oro batekin ihes egin dezela. Ezta ezik deusez beldurtzeko, deusez exitzeko, hura lagun, hura begirari, hura althe, hura gerizazale badugu; harek beitu guretako egiazko Ama baten bihotza, eta gure salbamenduaz ari denian, gizonkente guziaz beitu antsia; eta den bezala zeluko eta lurreko Erregiña Jinkoak ezaririk, eta Aingurien eta Saintuen bilduma guziak beno gorago Jinkoaz alxaturik, bere Seme bakhaitz gure Jaunaren eskuinian jarririk, bere Ama legezko othoi azkarrez segurka ardiesten du, bilhatzen diana edireiten du, eta ez daiteke azurka.

Azkenian, nahiz Eliza guziaren ezagutzetara, Maria Birjina guziz dohatsuaren konzebizioe thonagabearen baitze hau hel dadin, gure Guthun Apostoliko horik, bethiko horren orhitarretan egon ditian nahi dugu, manhatzen dugularik hoiem kopia eskuz edo molde izkiribatuer, notari publiko batez sinaturik eta Elizako aitzindari zunbaiten kaxetaz iruizkirik diren ber, sinheste bera emanik izan dadin, zuña eman beleite hoier bereri, aitzinian agerturik eta erakutsirik balira.

Emanik Erroman, Jaundone Phetiri beithan, Jinkoaren gizonegiteko, mila zortzi ehun eta berrogei eta hamalaur-garren urthean, abentuko J seigarrenian, gure Aphez handigoak bederatzu garrenian.